

• *eus*
Jakin 236

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2020

**Xabier Amurizari
elkarrizketa**

MIREN AMURIZA

GAIAK

Idatzi munduari lotzeko

Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe
autonomia literarioaz eta konpromisoaz

MIREN RUBIO ITURRIA

EGUNEN GURPILEAN

ITZIAR UGARTE IRIZAR

JAIME ALTUNA RAMIREZ

ALBA GARMENDIA CASTAÑOS

Jakin^{•eus}**236**
herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2020



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea, 29

20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakín Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

1 1 Xabier Amurizari elkarrizketa Miren Amuriza

Xabier Amuriza bertsolari eta idazlearen bizitzan eta jarduan sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Etxanon; ikasketak Zornotzan eta Derioko seminarioan; Gizaburuagan abade; 60ko hamarkadako politika eta kultur mugimenduak: lehen atxiloketa eta Gogor mugimenduko apaizen itxialdia; zazpi urteko espetxealdia Zamorako apaiz kartzelan; militantzia politikoa Herri Batasunan: Gernikan Espainiako erregeari *Eusko gudariak* abesten; *Egin*-en sorrera eta kazetaritza eta zutabegintza lanak; 1980 eta 1982ko bertsolari txapelketako garaipena eta bertsolari ibilbidea: bertso saioak, eskolak, liburuak, diskoak...; literatur idazle ibilbidea; bizitzari eta heriotzari buruzko gogoetak...

GAIAK

75 Idatzi munduari lotzeko

Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz

Miren Rubio Iturria

Hiru hamarkada pasatu dira Txillardegi eta Bernardo Atxagak idazlearen funtzioaz eta literatur jardunaren autonomiaz izandako eztabaida mugarritik. Aldaketa soziopolitiko eta kultural esanguratsuak izan dira geroztik, eztabaida bera birkokatzeko adinakoak. Aldaketa horietan ondutako Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe idazleen iritzia eta bizipenak jasotzen dira idazlearen konpromisoez, betebeharez, kontzientziaz zein zapalketez.

EGUNEN GURPILEAN

99 Kultura

Itziar Ugarte Irizar

105 Soziolinguistika

Jaime Altuna Ramirez

112 Glokalia

Alba Garmendia Castaños

KONTRAZALA Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Interview with Xabier Amuriza

The *bertsolari* (verse improviser) and writer Miren Amuriza conducts a wide-ranging interview with her father, Xabier Amuriza, also a *bertsolari*, writer and Basque activist in a new issue of the *Living History* series. The interview takes an extensive look back at Amuriza's life: his childhood in Etxano; his studies in Zornotza and at the seminary school in Derio; his work as priest in Gizaburuaga; political and cultural movements from the 1960s: his first capture and sit-in with priests from the *Gogor* movement; seven years imprisoned in the Zamora priests' prison; his political militancy in Herri Batasuna: singing *Eusko Gudariak* before the King of Spain in Gernika; establishment of the newspaper *Egin* and his work as a journalist and columnist; victories in the 1980 and 1982 *bertsolari* championships and his career as a *bertsolari*: performances, schools, books and records, etc.; his career as a literary writer; his thoughts about life and death... **Miren Amuriza**

Writing to be involved in the world: Harkaitz Cano, Eider Rodriguez and Kirmen Uribe about literary autonomy and commitment

The journalist Miren Rubio Iturria gathers together the opinions and experiences of the writers Harkaitz Cano, Eider Rodriguez and Kirmen Uribe about writers' commitment and conscience. Indeed, three decades have passed since the debate between Txillardegi and Bernardo Atxaga about the function of the writer and the autonomy attached to literary activity. Subsequent socio-political and cultural changes mean that the debate is now seen in new terms. **Miren Rubio Iturria**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte Irizar, Jaime Altuna Ramirez and Alba Garmendia Castaños. **Various authors**

Urte eta hamarkada berria, JAKIN aldizkarian, ohitura dugunez, *Historia bizia* elkarrizketa biografiko-soziografiko-historiografiko luze batekin abiatu dugu, eta honako honekin dagoeneko hogeita hiru kulturgilek utzi du orriotan bere bizipen eta memoriaren zati bat. Xabier Amurizak oraingoan. Elkarrizketara ekarri dugu eta, aurreko hogeita biak bezala, ispiluaren aurrean jarri dugu. Amurizaren bizitza eta pentsamenduaren errepaso pertsonalak Euskal Herriko historiaren berri ematen digu, sail honek helburu duen bezala. Xabier Amuriza bertsolari eta idazleari elkarrizketa ugari egin izan zaizkio, baina honako honek badu berezitasun kasik determinante bat, ispilua aurrean jarri dion elkarrizketatzailea ispiluaren beraren parte den bat baita: Miren Amuriza.

Amuriza Amurizaren aurrean. Amuriza bere buruaren aurrean, hark bizi izandakoaren aitzinean. Amuriza Amurizaren aurrean. Amuriza aita eta Amuriza alaba, elkarri begira: bi belaun, bi bertsolari, bi idazle; adinekoa eta gaztea, gizona eta emakumea. Biak galde-erantzunean, elkarrizketan, memoria harilkatzen, bizitzaz pentsatzen, izandakoa gogoetatzen, datorkeena begitantzen, eta, tarteka, baita ezbaian ere. Amuriza eta Amuriza begiz begi jarri dira, eta begirada partekatu horretatik bestelako geruza eta kolore batzuk ikusi ahal zaizkio memoriaren mapari. Eta mapa bat ilustratu du Unai Iturriagak, kontrazalean, Amurizaren *obabaren* geografian barrena ez galtzeko.

Xabier Amurizaren historia engaiamendu historia bat da, bistan da. Eta engaiamenduaz hizketan jarri ditu Miren Rubio JAKINEKO kazetariak, berriki burutu duen lan akademiko batetik abiatutako artikuluan, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe. Orain berrogei urte idazle konprometituaren auziak kultur munduan zuen zentralitaterik ez du egun; baina auzia hor dago, besteak beste errelatuaren borroka betean bizi garen honetan. Hor jarri du begia Rubiok, eta konpromiso artistiko, sozial eta kultural-linguistikoa bere egiten duten hiru idazle horien pentsamenduarekin berritu du auzi zahar-berria.

Egunen gurpilean atalean, Itziar Ugartek kulturak kritikotasuna aktibatzeko duen gaitasuna eta ezina han eta hemengo kultur

ekimenetan ikusi du; ertzez, ertzen ertzez eta ertzen erdiguneaz ari da Jaime Altuna; eta Alba Garmendiak gorputza, bizitza eta utopia eta heriotza galdera ikurrez –agian berrituz teknologiaren aurrean– ari zaigu. Hamarkada berriak ere kartografiak eskatzen dizkigu.

HISTORIA BIZIA

11 Xabier Amurizari elkarrizketa
Miren Amuriza

Xabier Amurizari elkarrizketa

Miren Amuriza

Bertsolaria eta idazlea

Eskua bekokian ipini eta gorantz begiratu du: *Prisión Provincial de Zamora*. Harrizko eraikin bat adreilu gorritz inguratuta; arkudun ate handi bat erdiko dorretxoan eta ezker-eskuma zabaltzen diren hegala bi alboetan: barrotedun leihoak, grafitiak eta sastrakak. Hamar, hogeita hamar segundo eta aurrerantz jarraitu du kameralaria bi atzetik dituela, pauso txikian, berandu baletor legez. Atarira iritsi denean, tupustean gelditu da; etxera ere sekula ez da sartzen oinetakoak lanpasean igurtzi barik.

Lanpasik ez hemen; txori-zirinez zikindutako harlauza bat besterik ez. Eta pauso erdi eman du barrura, ilunpetarantz: *enaz*. Beste erdi kanporantz, eguzkitara: *banaz*. Erdia barrurantz: *enaz*. Erdia kanporantz: *banaz*. Ezbaian, harik eta kameralarietako batek barruraino sartzeko agindu dion arte: «hemen, Zamora, gure etxea!», dio besoak altxatuta.

Ezkerretara, funtzionarioen garita, komuneko atea ere zabalik duela; eskumatara, bulegoak. Sabaian, farola bat hutsik eta kristalak apurtuta; behegainean hondakinak, baldosa zatiak eta txori baten hezurdura. Ez du ikusi. Atari nagusia zeharkatu eta patio ireki batera irten da: eskailera mordo bat eta kartzelako fatxada aurrez aurre, sagarrondo baten atzean erdi gordeta. Berez hazi ei zen. Sagarrondoa. Zuhaitzaren antzik ere ez dauka ia, erdi etzanda eta sasiak hartuta, baina arretaz inguratu du: zein sagar klase ote da hau? Etxean fruta-arbolatar igota ibiltzen da sagarrak, melokotoiak eta intxaurrak batzen (ahal duela, andrea ez dagoenean). Sagartxo bat poltsikoan sartu eta laukoan igo ditu eskailerak: korridore luze bat eskumatara, barruranzkoa; lokutorioak ezkerretara. Eta bisita geletarantz sartu da norbaiten, zerbaiten bila ari balitz legez.

LUZIOREN MUTIKOA

Hasiko gara?

Bai, bai. Ekin!

Hasi, Torreburun hasten da mundua, ezta?

Nirea bai, behintzat! Hantxe goian, Oizen eta Bizkargiren arteko mendi-lepoan, Torreburubarrin. Zaharra gure amaren baserria zen, eta berria gure aitak egin zuen, gerra hasi baino pare bat urte lehenago. Amaren gurasoek lur zatitxo bat eman zieten, eta bertantxe. Mendi-lekua zen Torreburu: ez biderik, ez urik, ez argirik. Argia nik 18 bat urte nituela sartuko zen. Etxe bi edo hiru baino ez geunden, hirurak ere zabal, eta argia haraino eroatea... kosta! Bizimodu primitiboa zen orduko baserrietakoa.

Eta gerra hasi zenean, etxetik alde egin behar.

Bai. Gure neba-arreba zaharrenak, Miren eta Imanol, jaiota zeuden ordurako. Batak urte bi izango zituen, eta besteak

urtebete eskas. Aita frontera desagertu zen eta amak oinez joan behar izan zuen Somorrostrorantz, hartu ume biak-eta. Han joan ziren, gure aitita Andres eta biak, behi bat hartuta.

Behia?

Umeei esnea emateko, ez zuen nahikoa bular izango eta. Baina, bidean, milizianoek kendu zieten eta erdi bertan behera geratu ziren; behirik barik, umeak besoetan... Halaxe izaten zen gerra. Denboraldi luzea egin zuten kanpoan. Gero, frankistek Bilbo hartu zutenean eta gauzak apur bat baretu zirenean, atzera etxera. Txikituta topatu zuten, altzariak ostuta... Nork? Ba, beste bandokoen aldekoek, beren etxeetan geratu zirenek. Gure amak esaten zuen, auzoen etxeetara joan eta han ikusten zituela bere tresnak, aulkiak eta zerak. Baina eskatzen atrebitu ez! Eta hantxe jarraitu zuen, bizimodua zelanbait ateratzen, harik eta aita etorri zen arte. Santoñan atxilotu zuten eta trabajadoreetan denboraldi bat egin ondoren bidali zuten bueltan, gerra amaitu zenean.

Etxearen zer gomuta daukazu?

Ez zen baserri erakoa, ganadua gutxi: behi bi edo hiru, txerria eta txahala, oiloak... Baina bizimodua, total baserrikoa zen. Behean ezkaratza, despentsa eta komuna ezkerretara; korta txiki bat eskumatara. Goian lau gela zeuzkan. Lauretatik hiru, logelak. Batean aita eta ama, bestean hiru anaiok eta beste batean, aparte, arreba. Laugarrena, sabai moduan erabiltzen zen; han egoten ziren komoda, arropa espezialak, ontziak-eta... Gozokiak ere bai, gure amak giltzaz gordeta. Eta gero ganbara... Ganbara zen, ba... Leku mitiko bat umeontzat. Zeren han gauzak gordetzen ziren, baina geu ere bai! Patata, sagarrak, galtzua, artoa... Eta ni bazter batean jarrita, neure pentsamenduetan. Eguraldi txarra zegoenean, hantxe ibiltzen ginen olgetan.

Nik ahaztu samar daukat Torreburu, joan egin beharko dugu gaineko egunen batean.

Ikusiko dugu... Izeoari ez zaio erakusteko moduan dagoenik iruditzen eta... Tratatuko dugu. Zu, grabagailua frogatu beharko dugu, ezta? Martxan dabil?

Bai.

Seguru? Ez dugu froga bat egingo, ea entzuten den?

Entzuten da. Elkarrizketa hasi baino lehen konprobatu dut.

Bai, baina ea ondo entzuten den... Altuago berba egin behar badut ere.

Entzuten dela...

Tira, ba! Zeuk badiozu...

Jarrai dezagun aitita-amamez. Kontatu izan dizkidazun gauzengatik, *La vida es bella* pelikulako protagonistaren antzekoa imajinatu izan dut aitita Luzio: gizon txiki bat kontzentrazio esparruan txistu-joka, semeari gerra jolas bat dela sinetsarazten.

Txikia ez zen. Gizon sendoa zen. Baina fantasiosoa, bai. Guztiz. Harentzat, bere neurrira eginiko dekoratu bat zen mundua; bera luzitu zedin diseinatuta balego lez hartzen zuen. Beti zeukan kanturen bat, ipuinen bat... Beti umore oneko eta olgetarako prest! Sasoi hartan, ezinikusi handiak izaten ziren baserrietan, baina gu denetatik libratzen ginen: *niri ez ekarri haserre konturik!* esaten zuen, eta aurrera. Gero, beharra ere egiten zuen, e? Beharra sendo. Igeltsero. Torreburutik Zornotzara, edo tokatzen zitzaion lekura, oinez, negu eta uda.

Bide batez, Autzaganeko tabernan sartu-irten batzuk ere bai.

Ba, bai. Beharrera egundo ez zuen hutsik egin parrandan ibilita etxeratu arren. Baina, horretan, egia da ez zela amamak gura izango zuen bezain zorrotza; batzuetan, diruak ere joan egiten zitzaizkion...

Amama Maria Jesusi, ostera, Marie Curieren antza hartzen diot; ilea batuta, begirakune estua...

Bizimodu prekarioa geneukan eta! Gose-goserik ez genuen pasatzen gurean, baina jangura bai. Berak eroaten zuen etxeko ekonomia, umeak ere bere kargu... Lehenengo, hiru neba-arreba zaharrenok geunden: Miren 12 urterekin joan zen neskame, mediku baten etxera; Imanol ere 14 urterekin hasi zen beharrean; ni, seminariora... Eta laugarrena, ni baino bederatzi urte gazteagoa, Floren. Horrek ere pasionistetan egin zituen urte batzuk. Abadegaitan, etxera bueltatzen nintzenean, ama eta biok bakarrik egoten ginen askotan eta pozik hartzen ninduen, beti kontu berriak esaten nizkiola eta.

Baina berba gutxikoa zen hura.

Ez pentsa, eguneroko martxan bai. Etxean nengoenean, biok bakarrik bazkaltzen genuen eta egiten genuen berba. Baina ez, horrela, orain «berba egitea» esaten den moduan; hori komunikazio kontzeptu hori ez zen existitzen orduan.

Sekula ez zintuztedan elkarri musu bat ematen ikusi.

Ez, gurean ez zegoen ohiturarik. Neuk emanda, abade egin nintzenean emango nion lehenengoz, meza berriko zeremonia amaitu zenean. Eta orduan ere, besteengatik gehiago, neugatik baino! Izekoak-eta hantxe zeuden eta... Badakizu. Baina guretzako kalekumeen kontua zen musuena eta, ohituta ez geundenez, gogor egiten zen. Seminariora bisitan etortzen zenean, zer egin ez nekiela egoten nintzen: musu emateak lotsatu, baina norbere amari musurik ez ematea ere...

Argazkietan-eta ikusi izan dut, baina gaitz egiten zait amama panderoa jotzen eta kantatzen imajinatzea.

Jotzen zuen, ba! Plazan ez dut gogoratzen aritzen zenik, baina etxeko ospakizunetan, auzolanetan edo gonbidatu joaten ginenetan, beti. Orain, jotzaile sutsua zena, bere ama zen: amama Segunda. Ni abadegaia nintzela, irrati transistore

bat ekarri zuen soldaduskatik gure anaia Imanolek eta, egun batean, taka! Non ipintzen diogun Arrate Irratia berak ez dakiela. Amama zurtz eginda: *nor jabik hor?* Eta guk: *entzun, entzun, amama!* Handik aurrera, aukera zuen guztietan eskatzen zigun musika ipintzeko; hain zeraman odolean! Berak eta etxeko guztiek... Semea ere, soinularia zeukan.

Zu Torrebura eroan zintuena?

Huraxe, bai. Osaba Jose. Sasoi hartan ume guztiak ailegatzten ziren Paristik, zikoinarekin, baina gure aitak ni Bizkargitik etorri nintzela esaten zuen; Bizkargi eguneko bainaiz ni, 1941eko Santa Kurtz egunean jaioa. Kontuak kontu, joan zen osaba Jose Bizkargira eta erromeria jotzen ari zela: *ene! Ume txikia kitanoen karropean, negarrez!* Hartu du ume hori, sartu du soinuaren barruan eta tibiri-punbara-pun, erromerian jarraitu. Amaitu zuenean, segituan jaitsi zen Torrebura. Zabaltzen du soinua ezkaratzeko mahai gainean eta hantxe ni! Orduantxe hartu ninduen amak.

Bizkargi egunera ere eroan ei zintuen aititak, non topatu zintuzten ikustera.

Beharko! Eskatu eta eskatu egiten nion eta... Artean txikitxo nintzela eta sei urterekin eroango ninduela esaten zidan. Iritsi zen egun hori eta ez zuen, ba, elurra egin?! Hura zaputza! Ondorengo urtea eternitate bat izan zen niretzat... Baina zazpi urte bete nituenean, gora! Nik ez nuen zertzuk ziren jakingo baina, orduan, trintxera-zuloz beteta zegoen Bizkargi, frontea bertan egon zen eta. Mezatara joan ginen lehenengo eta irten ginenean, non esaten didan lubaki bat seinalatuta: *hortxe topau hinduen!* Niretzako, hura... Itzela izan zen.

Eta Bizkargitik etxerako bidean, geldialditxo Autzaganen.

Zelan ez! Arratsaldean hantxe izaten zen Etxano aldekoen erromeria. Joseparen taberna bete-beteta; mostradore gainean txorizoak, solomoak eta bakailaoak lehortzen... Eta gure aita sartu eta batera kantuan, jakina. Halako batean,

besapetik heldu eta mostradore gainera igo ninduen norbaitek: *aupa, Jabi, bota bertso bat!* Jendeak bazekien nik kantatu egiten nuena eta; behiak zaintzen nenbilela, arbola gainera igota... Koplak eta elizako kantak.

Baina orduko hartan bat-batean aritu zinen, ezta?

Bai, bai! Hasi nintzen «tzen, eta tzen, eta tzen» eta zelanbait amaitu! Gero *Kartzelas* izeneko batek txapela pasatu zuen eta jendeak dirua bota! Elizako moduan. Guardia zibil bikote bat zegoen atean, armak tente jarrita... Oraindik ikusten ditut. Ba, pezeta bana bota zuten haiek ere! Eta orduan hori diru handia zen. Amaitzen du buelta Kartzelasek, etortzen da neugana eta painelua ateratzeko eskatu. Ipintzen dut mostradore gainean, botatzen dizkit txanponak, korapilo bat egin eta: *hartu, Jabi, hik aita be pasauko dok eta!* Halako lainorik! Eta hantxe hasi zen nire sufrikarioa, zeren, harrezkero, joaten nintzen leku guztietan eskatzen zizkidaten bertsoak, nahinon! Gonbidatu egunetan-eta, aita kantuan hasi orduko alde egiten nuen mahai bueltatik.

«Halako batean, besapetik heldu eta mostradore gainera igo ninduen norbaitek: 'aupa, Jabi, bota bertso bat!'. Jendeak bazekien nik kantatu egiten nuena eta; behiak zaintzen nenbilela, arbola gainera igota...»

Eta zeuk, gero, familia-bazkarietan trikitia jotzen derri-gortzen ninduzun ni.

Beno, derrigortu... Zelan hartzen den.

Derrigortu.

Etxekoentzat dakizunetik zerbait egitea ez dago txarto, aizu! Denok aportatu behar dugu zerbait. Apurtxo bat behartu ezean, ume baten «ez dut nahi»-aren aurrean ez dago arrerabiderik. Eta zuk ez zenuen jotzen... bihurrikeriagatik.

Zeuk ere batzuen batzuk egingo zenituen umetan.

Nirea, bihurrikeriak baino, inbentuak egitea izaten zen. Baserrietan lanpetuta ibiltzen ziren denak, eta nik neure artean: hau arintzeko ez ote zagok modurik? Orduan, egur-kargatxoak lotzen nizkion txakurrari. Edo iratzeak batzen nituen eta arbola-adarretatik salto eginda hegan egiten saiatzen nintzen. Beste batean, etxetik joan nintzen; San Joan Bataiatzaileak basamortuan matxinsaltoak janda biziraun zuela eta nik gauza bera egingo nuela basoan... Gure aitak nire asmakerien berri entzuten zuen bakoitzean... Haren poza! Denei kontatzen ibiltzen zen.

Eta zeure mundutxotik kanpora, eskolan eta, zelan moldatzen zinen?

Hasteko, gu etxean euskara hutsean bizi ginen eta Etxanoko eskolako maistra, Nati, estralurtar bat zen niretzako: *los ríos de España son...* Baina on-on-ona zen eta, neu ere formala nintzenez, kutuntzat nindukan. Nahikoa zeukan hark berearekin! 5-6 urteko umeetatik hasi eta 15-16 urterainokoak egoten ginen gela berean, neskak eta mutilak, ezker-eskuma. Eta ni, klanik ez neukanez, ba, neska helduagoen arrimura ibiltzen nintzen, mutilek errespetua zieten eta. Bestela mutilen jolasak biolentoak izaten ziren, dena borroka eta norgehiagoka. Ni futbolekin eta pilotan ibiliko nintzen haiekin, baina, osterantzean, askorik ez. Burezurrekin futbolekin eginda gaude gu!

Burezurrekin?!

Burezurrekin, bai. Lehen elizetan ehorzten ziren hildakoak eta lantzean behin atera egiten zituzten gorpuzkiak. Etxanoko elizaren kontrahormen gainean, kanpoaldean, hutsune bat zegoen eta haraxe botatzen zituzten hezurak. Gero porlanarekin tapatu eta, halaxe, kapa bat bestearen gainean. Baina gorengoan zeudenak tapatu gabe geratu ziren eta lantzean bat jausi egiten zen; han erabiltzen genituen, ostikopean.

Ume ikarati samarra zinen, orduan?

Bai. Ni nahiko koldarra izan naiz beti, eta horrexek salbatu nau, garbi esanda. Ausarta izan banintz, beste bide batzuetan sartuko nintzen eta akabo. Azañarik eta horrelakorik... Nik ez.

Zer da, ba, zuretzat azaña bat?

Ba, konpromiso handietan sartzea: gose-grebak, ekintzak, polizien aurrean jartzea... Batzuk zirkunstantzia horietan brabo jartzen diren moduan, ni kikildu egiten naiz. Nik, horrelakoetan, arrazoiaren puruz jarraitu izan dut aurrera; ez balientea naizelako. Niretzat, balienteak dira heriotza hurrean ikusteko lekuan dabiltzanak, edo inori laguntzeko arriskutzen direnak. Eta, gero, inkontzienteak daude, kirol extremoak-eta egiten ibiltzen direnak, adibidez. Eta esango didate: *mendigoizaleak ausartak dira!* Ba, igual bai, baina niri filosofia hori ez zait gustatzen. Zeure burua gainditzera zoazela-eta, mendia gainditzeko saiatu? Itsasoa gainditzeko? Natura ez da gainditzeko, miresteko baizik. Arriskuaren goraipamena balio humano moduan? Ez. Askoz ere humanoagoa da Everesti behetik gora begiratu eta esatea: *ederra haiz, ni baino handiagoa.*

SEMINARIOA ZURI-BELTZEAN

Ni trikitira eroan ninduzuen adin bueltarekin, 10-11 urterekin, zu komentura bidali zintuzten.

Horrela da, bai. 1952an. Zornotzako karmeldarrak sarri-sarri pasatzen ziren Etxanoko eskolatik. Eta maistrak ume argitzat nindukanez, ekin egiten zidaten eurekin joan nendin. Eta nik, egun batean, baietz esan! Ez dakit zergatik. Eta berehala zabaldu zen Torreburoko mutikoa fraide zihoala. Orduan, non igartzen dudan etxeok, auzoek eta denek inoiz baino hobeto hartzen nautela: *ai, gure fraidetxea!* Gozokiak-eta ematen zizkidaten. Eta pentsatu nuen: mahuka bat duk hau!

«Etxetik komentura alde egin beharra urradura handia izan zen niretzat. Baina ez nuke erabakia aldatuko. Joan nintzelako izan da nire ibilbidea izan den modukoa»

Fraide noala esanez gero, dena eginda! Baina udako oporrak aurrera zihoazen eta ordua iritsi! Arreoa egiteko koltxoia behar izaten zen orduan, eta gure izeko Madalen artile mordo batekin etxera agertu zenean, orduantxe estutu nintzen benetan. Baina beldurtia nintzenez, ba, ez nintzen ezeztzik esaten ausartu.

Eta ausartu ez izanaren arantza geratu zaizu?

Begira, etxetik alde egin beharra urradura handia izan zen niretzat, handia. Baina ez nuke erabakia aldatuko. Joan nintzelako izan da nire ibilbidea izan den modukoa. Joan izan ez banintz, orduko gizartearekin eta gure etxean zeuden baldintzekin zer izango nintzen ez dakit; naizena, seguru ezetz. Negar asko egin nuen. Baina nire sentimendurik primarioena zor diot ikasle garaiari: etxera itzuli nahia, neure ingurura. Horregatik naiz hain animalia territoriala; ni, oraintxe ere, etxe bueltan pozen.

ETBko *Sei argazkitan* programan elkarrizketatu zintuztenean, Zornotzako karmeldarren komentuko grabazio zahar bat eman zuten: hantxe zeunden, ikasmahai ilara batean jarrita. Inpresio handia egin zidan zure umetako irudia mugimenduan ikusteak.

Bai, uste dut misiolari batek grabatu gintuela. Neuri ere zauskada itzela eman zidan neure burutxoan han ikusteak; itxura koitadua, hunkigarria hartu nion.

Koitadua zergatik?

Ez dakit... Denok ere nahiko koitaduak ginen han; begien aurrean dauzkat ohean pixa egiten zuten mutikoen koltxoiak, leihoetatik eskegita, erdi usteltzen. Neurea han ikusi baino

gurago izango nuen... Eta, hala ere, han ez nintzen hain txarto ibili: formala nintzen, nota onak ateratzen nituen... «El chico de los diez dieces» esaten zidaten.

Baina zuk Torreburura nahi.

Hori beti. Gogoan daukat etxera bueltatu bezperako gaua: lotegi handi batean egiten genuen lo eta nik ezin pozari eutsi! Orduan zer egin nuen? Komunera joan eta, hantxe, salto-saltoka hasi. Isilean, e? Luzaroan egotea susmagarria zen eta ohera bueltatzen nintzen. Beste guztiak zurrungaka eta nik: baina hauek zelan zaudek lo? Ez zakitek bihar etxera goazena ala? Apurtxo batean ohean egon, eta komunera berriro... Joan-etorrian, biharamun goizera arte.

Zornotzan urtebete egin eta handik Deriora; seminariora aldatu zintuzten, 1953an.

Herriko abadeak egin zuen operazioa eta joan egin behar. Aldakuntza handia izan zen: beste komunitate bat askoz ere zabalagoa, beste bizimodu bat... Han dena zen ilunagoa: euskarari zegokionez diziplina zorrotzagoa, ikasketetan ja ez nintzen hainbeste gailentzen eta burla egiten zidaten. Komentua baino garestiago ere bazen... Urte bi, hiru, lau, nahiko estu.

Estura ekonomikoak dezente eragin zizun, ezta?

Askok! Fraideetan, urtean 700 pezeta izaten ziren, eta seminarioan, 4.000. Gure etxean ez zegoen hura ordaintzeko beste, eta abadeak beka bat agindu zigun, baina gero bertan behera utzi gintuen. Hiru hilabeteka ordaintzen zen: lehenengoa ordaindu zidaten, bigarrenean dena ordaindu barik salbatzea lortu zuen amak, baina hirugarrenean, eskegita geratu nintzen. Orduan erretorearen aurrera negar egitera etortzen zen ama, eta horrek... Horrek lotsa itzela ematen zidan, beldurra ere bai. Hirugarren ikasturtean, dena ordaintzen ez zutenak azterketa barik geratuko zirela iragarri zuten, eta zordunon zerrenda 'pikota' izeneko tablero batean ipintzen hasi ziren. Ikasgelatik irten eta, hantxe, denen bistan... Eta norberak

azpitik pasatu behar, egunean hainbeste bider. Denak hasten ziren: *mirad, mirad, quiénes están!* eta barre eta burla egiten ziguten. Krudela zen. Niretzat, umiliaziorik handiena horixe izan da bizitzan: neure izena eta familiarena pikota hartan ikusi beharra.

Eta barreiotarrak? Noiz agertu ziren?

Laugarren urtean. Ramon Barreiro eta Maria Luisa Asumendi. Bilbon bizi ziren. Garai hartan ohikoa izaten zen modu oneko familiek estu samar zebiltzan ikasleei ikasketak ordaintzen laguntzea, eta haiek nire salbazioa izan ziren. Eurei eskerrak apaiztu nintzen. Seminariotik gutunak eta idazten nizkien, eskerrak emanez: *Queridos bienhechores...* Eta notak bidaltzen nizkien. Bisitan ere etortzen zitzaizkidan, biak altu-altuak, pertsona eleganteak. Eta lagunak ikaratuta: *nortzuk dira horiek?* Gero, udan, eurenera joaten hasi nintzen bi-hiru egunerako eta, azkenean, etxe-etxeko egin ginen. Ramon orain urte batzuk hil zen, eta Maria Luisa aurtengo neguan. Zer esango dizut, ba? Oso-osu eskertuta nago biei, eta familia osoari.

Seminarioko egunerokoa grabazio zahar haren modukoa imajinatzen dut: zuri-beltzekoa, isila, hotza...

Ez dakizu ondo! Goizetan ur hotzarekin dutxatu behar izaten zen han, neguan ere bai, higiene moralagatik.

Eta abadeak inguruan, abituak tarrazean-eta.

Abadeek asko estutzen gintuzten. Oso iluna zen hango giroa, oso itoa. Dena zen bekatua, debekua... Neskei begiratzea, esate baterako, debekatuta. Eta mutikoen artean ere, gauza arraroak egoten ziren, «amistades particulares» esaten zitzaiona.

Zer?

«Amistades particulares». Notak ematen zituztenean, konduktan zero bat jartzeko motibo fulminantea izaten zen. Ez ziguten garbi esaten zer zen, baina mutikoak mutikoekin

‘zertuta’ egotea; horixe zen. «Noli me tangere» zen lehen araua, «ez ni ukitu». Bigarrena, zenbaki bakoitietan ibiltzea: edo banan edo hirutik gora, lagun bi bakarrik inoiz ere ez. Mutiko bi bazter batean ikusiz gero, laster ateratzen zuten konklusioa: «amistades particulares». Eta, azkenean, denok nahasi gintuzten amaraun erdi obsesibo hartan.

Azken urteotan, barnetegietan abusuak jasan zituzten ikasle askoren testigantzak jakin dira.

Orduko internatuetan bazegoen hori, gurean ere bai; 300 laguneko komunitate batean, denetik... Sexualitateari lotutako guztia zen iluna eta morbidoa, eta ageri-agerikoa zen goikoetako batzuek mutil politagoei tratu diferentea ematen zietela. Guk bagenekien nortzuk ziren haien kutunak; desiratuak, zelanbait esateko. Eta orduan, ba, haien lagun egiten saiatzen ginen, goikoek kutuntzat hartzea gauza ontzat hartzen genuelako. Eta norberak ere, batzuetan, desiratua izan nahi. Zeren, inork aintzatesen ez bazintuen, pentsatzen zenuen: nik ez diat ezertarako balio! Orduan, igurtzi batzuk-edo egiten bazizkizuten, ba... Jasan. Baten batek igurtzi batzuk baino gehiago ere egin zizkigun. Ni, horrek, ba... Pribatuan izaten zenez, isildu eta aurrera.

«Abadeek asko estutzen gintuzten. Oso iluna zen hango giroa, oso itoa. Dena zen bekatua, debekua... Neskei begiratzea, esate baterako, debekatuta»

Ez dakit zer esan.

Halaxe zen. Baina itomen haren barruan ere, egia da, niretzat, pikotan denen aurrean egon beharra askoz umiliagarriagoa zela. Bestea, ba... Pasatu egin behar. Leku askotan gertatu izan dira horrelakoak, eta, gertatzen badira, ez bakarrik Elizan, eskoletan edo beste edonon, salatu eta zigortu egin behar dira; duda barik. Baina zoaz duela 60 urteko kontuak argitzera...

Minak berritzen zaizkizu salaketok entzuten dituzunean?

Gaitza da bertatik pasatu ez den bati hori esplikatzea. Askori badakit bizitza mingostu zietela internatuek. Min handiarekin egiten dute berba. Baina beste batzuentzako, aukera on bat izan zen. Nik 13 urte egin nituen seminarioan eta, dena jota, aukera on bat izan zen. Esan dizut: handik pasatu izan ez banintz, ez nintzen naizena izango.

Eta zelan bizirauten da 13 urtez horrelako leku batean?

Haziz joaten zara, gogortuz. Zapalkuntza politikoa bestekoa zen sasoi hartan zapalkuntza morala; pentsamendua ere jan egiten zizuten, jaungoikoak zure pentsamendu guztiak entzuten zituela eta abar. Eta niretzako, eman nuen pausorik inportanteena, kontzientzia morala askatzea izan zen. Egun batean, esan nuen: *nire pentsamendua ezin dik inork entzun, eta jaungoikoak entzuten badu, ba, konponduko nauk berarekin*. Hori deskubritzean libratu nintzen zelanbait erru-zamatik, eta orduantxe jaregin nion buruari: dabilela nahi duen lekutik!

Jainkoa aipatu duzu eta... Fedea, eduki, bazeneukan orduan?

Fedea edukitzea da gauza bat, eta Elizaren hierarkiaren funtzionamenduan sinestea beste bat. Nik, abade egin nintzenarako, jada ez nuen horretan sinesten; ebanjelioaren beste balio batzuetan bai. Ni morala askatzeko eta eskubide sozialak eta nazionalak lantzeko egin nintzen abade. Hain nintzen kritikoa Eliza ofizialarekin ze, Teologiako urte batean tesi txiki bat egin nuen: Eliza ofiziala antikristoa zela frogatu nahi nuen! Apokalipsian eta beste zenbait testutan datozen antikristoaren ezaugarriak aplikatzen nizkion Elizari.

Buruari jaregin zenionean, leiho berri asko irekiko zitzaizkizula pentsatzen dut.

Bai, bai, fronte guztietara zabaldu ginen 17-18 urterekin. Gerrakoaren aldean, beste belaunaldi bat ginen gu; gaztea, grinatsua... Eta 1960ko hamarkada irauli bat izan zen:

seminarioak eta komentuak husten hasi ziren eta aldakuntza handiak gertatu ziren, bizitzan ezagutu ditudan handienak. Eta, bien bitartean, ba, gu hantxe. Abel Muniategirekin erdi isilpean, bertsotan hasten... Neure kontura erdi isilpean, irakurtzen... Liburu debekatuak Vernereren azpian gordeta.

Vernereren urpekariak legez imajinatzen zaitut, seminario-ko korridoreetan eskafandra batekin.

Burua badabilkizu, ba, zuri ere! Begira, *Berria*-ko zutabe batean idatzitako esaldi bat gogoratu zait, elkarrizketan sartu nahi baduzu: «Nire lagunik onenak oroitzapenak dira, txarrenak ere bai. Saiatzen naiz lagun txarretatik aldentzen». Apuntatu duzu?

Bai.

Ondo badatorkizu, sartu. Eta bestela, jaurti.

Ez dakit oroitzapen onekin edo txarrekin lotuko duzun, baina sarritan esaten duzu orain ere seminarioarekin amestuz duzula.

Han ibiltzen naiz, bai, maletak egiten. Kartzelatik ihes egiten ari naizela ere askotan amesten dut, baina kokapen fisikoa seminarioa izaten da beti. Itzartzen naiz eta: non nagok? Non ibili nauk? Bitxia da. Kartzelan egotaldi luzea egin nuen, baina buruan inprimatuta, umetan gertatuak geratzen dira batez ere. Eta nire parte bat hantxe geratu zen: seminarioan.

Isil-isilik doa korridorean barrena, kamerekin ahaztuta: hormetako margoa desitsatsita, grafitiak, zikinkeria behegainean... Eta barrote granatez osaturiko itxiturak bata bestearen segidan. Bururik bueltatu barik zeharkatu ditu hiru, lau, bost ate; halatsu egiten du aspaldion etxearekin ere eta, lantzean behin, hantxe uzten ditu giltzak, kanpotik ipinita. Batzuetan, argiak ere bai; ezkaratzeko, egongelako edo komuneko argiak uzten ditu piztuta oherakoan. Ohitura zaharrak:

fraideetan, seminarioan eta kartzelan inoren ardura izaten zen gauetan ateak itxi eta argiak itzaltzea. Korridorearen alde bietako ziega hutsei begira-begira doa, zer topatuko: txanponez betetako zapitxoak, Vernerren liburu bat, eskutitz bat?

Eta ziegetako baten ataurrean geratu da: hauxe! Bost oin zabaletara, zazpi eta erdi luzetara; leihatila bat horman, zulo bat pixatokitizat, ohe baxu bat eta lababoa ispilu zartatu batekin. Artega sartu da eta hantxe ikusi du bere burua (jattetxe bateko komunean balego, orrazitxo bat aterako luke karteratik eta bizarra txukunduko luke, disimuluan). Gura badu, bost-hamar minutu hartzeko diotse kameralariak. Ondo deritzola berak. Eta metalezko ate astunari tiratu dio barruko partetik. Justu-justuan ikusten zaizkio begiak eta sudurra atearen goialdeko eskotilatik, urpeko ontzi batean sartuta dagoela ematen du. Urpeko ontzian sartuta legez abiatzen da, abiatu ere, ilunkara askotan; kotxea hartu eta Oizko pistetara, musika entzutera doala eta. Verdi. Nabucco. *Va, pensiero*. Urpetik ez da mundua entzuten. Bolumena igo dio irratitari. *Va, pensiero, sull'ali dorate...* Eta kameralariak atea zabaldu dionean, sustoa hartu du. Jiratu eta bolumena jaisteko imintzinoa egin du atzamarrekin.

ABADE BAT MOTORREAN

Konparazio bat daukat, gustatuko zaizuna: 1956ko udan, zu abade egin zinenean, Bob Dylan *Like a Rolling Stone* kantua estreinatzen ari zen.

Gustatzen zait Bob Dylan, beti gustatu izan zait. Kanta indartsuak egiten ditu artifizio gutxirekin. Urte berekoak gara, gainera.

Hura harmonikarekin eta zu, sotana jantzi berri.

Berdin-berdin, bai! Hura ez dakit non ibiliko zen, baina ni Bilboko Santiago katedralean, hantxe ordenatu nintzen. Hala

ere, inportantea meza berria izaten zen guretzat, lehenengo meza, eta nik hori Etxanon eman nuen. Jai handia egiten zen, egun guztikoa, baina nik arratsalde egin nuen meza; ez nien etxekoei bazkari jendetsu bat ordainarazi nahi... Eta gero, filosofia moduan ere bai. Gomutakian ipintzen nuen: «herriarentzat egin naiz abade...». Eta halaxe jokatu nahi nuen.

Eta handik, segituan Gizaburuagara?

Ez, ez! Uda osoa pasatu zen bien bitartean.

Obabakoaren antzeko unibertso txo bat iruditzen zait orduko Gizaburuaga.

Izan zitekeen. Herri txiki bat, abade berriaren zain. Sasoi hartan industrializazioa nahikoa aurrera zihoan, baina inguru hartan gutxi. Lekeitiotik hur egokeran, batzuk itsasora irteten ziren, baina gehienak baserrietan. Barrualdera begira zeuden. Eta, jakina, Ameriketara! Inguruko asko joaten ziren, artzain edo dena delakora; kalkuluak egin nituen eta, proportzioan, etxe bakoitzetik bat eta erdi ematen zuen Gizaburuagan. Eta gainerakoak, ba, herrian... Gogoratzen naiz, ailegatu nintzenez, neska talde batek eroaten zuela eliza. Andra Mari bezpera zen eta eliz kanten entsegu bat egin behar zen. Halako batean, hasten naiz organoan fandango bat jotzen, eta neskak harrিতuta: *baina hau zertan dabil?*

«Bilboko Santiago katedralean ordenatu nintzen. Hala ere, inportantea meza berria izaten zen guretzat, lehenengo meza, eta nik hori Etxanon eman nuen»

Lehenagoko abadeekin alderatuta, zuk zeneramatzen asmoak txokanteak egingo zitzaizkien. Ala?

65erako gauzak mugitzen hasita zeuden politikan, kulturean, eta Elizan bertan ere bai. Jendeak berehala kokatu ninduen. Orduan dena zen agindua, diziplina, konfesioa... Abade

errebeldia izateko, nahikoa zen jendea gehiago ez estutzea. Nik mezatan, sartu zitekeen tamainan, eduki politikoa ere sartzan nuen, euskara lantzen nuen umeekin... Eta abadetxea zabalik egoten zen beti: umeak ibiltzen ziren, herritarrak, euskara ikasleak... Eta beste mugida batzuetan zebilen jendea ere bai; klandestino politikoak eta sozialak. Lokalak edukitzea oso inportantea zen, zeren hirutik gorako batzarrak ilegalak ziren eta kalean ez zegoen non batu. Eta batez ere, poliziak Elizaren lokaletara sartu ezin izaten zuelako. Orduan, ba, ireki samarrak ginen abadeoi herri handietan ez ziguten kargurik ematen, baina hango gazteak gure ingurura batzen ziren askotan; nire kasuan, Lekeitio, Ondarroa edo Markinakoak. Han ibiltzen nintzen, gora eta behera, neure motortxo hartuta.

Orduantxe izango zinen, zelanbait esateko, librea lehenengo aldiz?

Gehiago esango nuke libertatea kudeatzen hasi nintzela, zeren seminarioan ez ginen ezer, eta egun batetik bestera, itzelezko autoritatea geneukan. Dena ez zegoen gure esku, baina gauza inportante bat bai: jendearen kontzientzia.

Eta autoritatea ondo kudeatzen zelan ikasten da?

Nik, erabili, ez nuen erabiltzen. Herriko ohiturei jarraitzen ahalegintzen nintzen. Hasieran deseroso egiten zitzaidan, baina ezin nuen kolpera dena larregi nasaitu. Aurretik pedagogia apur bat egitea eskatzen du edozein aldaketak.

Elizan ez eze, handik kanpora ere ari zineten saretzen-saretzen. Orain 'herri mugimendu' moduan ulertzen dugun horren hasierak izan ziren zuenak?

Gu beti egoten ginen herri mugimenduei begira. Herri Gaztedirekin harremana genuen, erakundea ere martxan zebilen ordurako... 'Gu' diodanean, abadeen mugimenduaz ari naiz, e? Eta saiaturen ginen, ekintzak antolatetik aparte, sare hori artikulatzen; ahal genuen neurrian, jakina, zeren diktadura baten azpian geunden. Herrian jaiak antolatzen genituen,

antzerkiak, mendi-irteerak, berbaldiak... Eta, gero, kontaktuak egiten genituen kanpoko herriekin, gazteak harremanean jartzeko eta abar. Inguruan kontzerturen bat zegoela? Ba guk kolaboratu egingo genuen, jendea eraman... Ez Dok Amairuren kontzertuetara eta.

Orduantxe hasi zineten euskarari Elizan ere lekua egiten.

Elizan euskaraz aurretik ere egiten zen, baina dokumentu ofizialak euskaraz idazten orduantxe hasi ginen abade batzuk. Horrek iskanbila instituzional handia eragin zuen. Artikulu bat ere idatzi nuen *Zeruko Argia*-n, esanez norbere parrokian euskaraz meza entzuteko aukerarik ez zeukan kristauak ez zeukala beste herri batera joan beharrik; are gehiago, ez zeukala mezatar joateko obligaziorik ere. Gurpide zen orduko gotzaina eta berehala deitu ninduen azterketa pertsonalera; orduan gotzainarekin egotea zen... Enperadore batekin egotea beste! Ateak zabaldu eta non sartzen den: *¡dejadme con este curita!* Nik zer eta zergatik idatzi nuen azaldu nion, eta bertan moztu zen azterketa: *¡Llevaos a este curita de mi vista!*

Garaitsu hartan, 1967-68aren bueltan, abiatu zuten euskara batua sortzeko prozesua ere. Bazeneukan harremanik Euskaltzaindiarekin?

Neukan tratua bertsolaritza zela-eta neukan. Artean, eurek antolatzen zituzten txapelketak eta epaileak behar izaten ziren: 1966an, Bizkaikoan egon nintzen eta 1967an, Euskal Herrikoan, Xalbadorri txistuak jo zizkioten hartan. Nik, batez ere, Alfontso Irigoien, Juan San Martin, Juan Mari Lekuona eta horiekin tratatzen nuen. Orduan, Bilboko Erriberan zegoen Euskaltzaindia. Liburutegi ilun bat... Hantxe egin nintzen Arestiren lagun ere.

Hizkuntzalaritzan, literaturan, politikan... Aresti izan da zure musa?

Musa ez dakit berba egokiena den, baina bai, nire erreferente inportanteenetako bat izan da. Tratu handia izan genuen

garai hartan. Guk bagenekien bera figura bat zena eta miretsi egiten genuen. Arlo kulturallean eta sozialean oso zorrotza, oso beroa zen; euskaratik iraultza bat egin behar genuela esaten zuen. Berak Elizaren defentsaritzat hartzen gintuen eta eztabaidan ere sarri aritzen ginen. Baina ordurako tentsioa gora zetorren; dena zen erdi klandestinoa, gu aktibo edozertan... Eta larri ere bai, sarritan.

Larri abadeok, esan nahi duzu?

Abadeok eta... denok. Denok. Ni neu orduantxe pasatu nintzen lehenengoz kuartel batetik, 68ko abuztuan. Amorotoko umeekin joan nintzen egunpasan, Igeldora, furgoneta batean. Bueltan, Saturraran gainean gentozela, Guardia Zibila. Geratzeko eta joateko eurekin kuartelera. *Baina umeekin zer egingo dugu? Umeak ere datozela bertara!* Eta eurekin eroan gintuzten. Pentsatzen nuen: hemen zerbait gertatu duk! Azkenean, libre utzi ninduten eta bueltan jakin nuen erakundeak Meliton Manzanas hil zuela.

Hura izan zen brabo jarri beharrean kikiltzen zaren momentu horietako bat?

Izan zen, bai. Baina orduan, neugatik baino gehiago, umeengatik estutu nintzen, eta gurasoek pentsatuko zutenagatik. Nik trankil neukan barrua eta eman nituen eman beharreko azalpenak herrian. Baina, handik laster, atxilotu egin ninduten. Uda haren hasieran hil zuten Txabi Etxebarrieta eta, ondorengo asteetan, halako meza-bolada ospetsu bat izan zen bere alde. Mugida handia sortu zen, baina zelan ukatu abade bati hildako baten aldeko meza ematea? Kontua da, lekuan lekuko herritarrek baino ezin zutela elizkizunetara joan. Ni Durangokora joan nintzen. Sartzerik ez nuen lortu, baina baten batek ikusi eta salatu egin ninduen: 30.000 pezetako isuna. Mila pezetako, kartzela-egun bat izaten zen, eta ordaindu ez nuenez, banekien bila etorriko zirena. Itxaroten ez nuena zen elizan atxilotua izatea.

Amoroton hori?

Bai. Ezkontza batean. Amaitzen dut elizkizuna, arropak aldatu eta banoa kanporantz, eta danba, sekretak atean: *¡vamos!* Atzealdetik atera gura izan ninduten, baina nik ezetz: *ikus dezala jendeak zelan naroazuen!* Pasillo moduko bat egin zen jende artean eta han irten ginen. Bien bitartean, herritarrak zer egin ez zekitela eta akolitoak aztoratuta: *Don Jabier darue! Don Jabier darue!* Handik Basaurira, eta astebetara, Zamorara.

30.000 pezeta, 30 egun. Hilabeteko kartzelaldia eta irailerako buelta.

Gizaburuagako jaietan irten nintzen, hain suertez, Andra Marietan. Baina giroa berotuz-berotuz zihoan: ekintzak, manifestazioak... Irailean irten, urrian itxialdia prestatzen hasi eta azaroaren 4an, Deriora sartu ginen.

Hemen dauzkat, apuntatuta, orduko egunkarietako titular batzuk: «Unos 60 sacerdotes vizcaínos, recluidos voluntariamente en el seminario diocesano», «El episcopado desaprueba a los curas rebeldes», «Fondo político y tufo cismático»...

Nondik atera dituzu titular horiek?

Gogor diskoaren azaletik.

Zeuk daukazu, orduan?

Bai.

Ba, utzi bere lekuan. Lantzean gauza bat hartzen didazu, eta gero hor ibiltzen naiz topatu ezinik.

Utziko dut.

Eta... Zer esaten ibili gara?

Itxialdia. 1968ko azaroa, Derioko seminarioan.

Bai. Ordurako Bizkaiko abadeon *Gogor* mugimenduak bazuen oihartzun bat. «Gogorkeriaren aurka gogortasuna». Horixe zen gure leloa. Agiri bat atera genuen. Alde batetik,

Eliza pobrea, dinamikoa eta bertokoa eskatzen genuen, eta, bestetik, Euskal Herriaren eskubide politikoak, sozialak eta kulturalak aldarrikatzen. Eta Elizaren eta estatu frankistaren arteko konplizitatea salatu ere bai, jakina. Itxialdia egiteko lekurik onena Derioko seminarioa izango zela pentsatu genuen; ideala Bilboko katedrala izango zen, baina mezak-eta etengo genituen eta ez genuen talkarik nahi jendearekin. Gu txoko batean kokatuko ginela adostu genuen seminarioko arduradunekin. Bertatik egiten genuen komunikazio lan guztia: Vatikanoa, Radio Paris, BBC... Eta egunero mugitzen ginen herrietara, unibertsitateetara eta ahal zen leku guztietara, zertan ari ginen esplikatzera. Diskoa ere orduantxe grabatu genuen... Hilabeteren buruan, itxialdia amaitzea erabaki genuen lortu nahi genuen oihartzuna lortu genuela eta. Handik laster hasiko ginen gutariko batzuk gose greba prestatzen.

Handik urte erdira, 1969ko maiatzean, sartu zineten bost lagun Bilboko gotzaindegian.

Nikola Telleria, Julen Kaltzada, Alberto Gabikagogeaskoa, Jesus Naberan eta ni neu. Bagenekien eraikinak azpian soto bat zeukala, eta hantxe. Berehala inguratu zuen polizia, bai-

«Agiri bat atera genuen. Alde batetik, Eliza pobrea, dinamikoa eta bertokoa eskatzen genuen, eta, bestetik, Euskal Herriaren eskubide politikoak, sozialak eta kulturalak aldarrikatzen»

na Zirarda gotzainaren baimen barik ezin ziren gu atxilotzera sartu eta erretoreak arrastaka ere ez gintuen aterako. Orduan ere, komunikazio plana ondo pentsatuta geneukan, eta, lehenengo greba egunean, Radio Parisen gure aipamena entzun genuenean, pozik gu! Herrietan abade asko ari ziren sermoiak egiten, Herri Gaztedik ere zabaldu zuen gure berri,

eta hala. Hirugarren egunean atxilotu eta Indautxuko kuartelera eroan gintuzten. Torturatuen oihuak entzuten genituen

ondoko ziegetatik eta larri geu ere... Baina kasua hain izan zen mediatikoa eta interbentzioak hain goi-mailakoak, ze ez zirela eskurik ezartzen ausartu. Astebetean epaituta eta kondenatuta geunden, Burgosko epaiketa militar sumarisimoan.

ESPAINIAN BEHERA, HAN DAGO ZAMORA

Eta goiz batean, Zamorako apaiz-kartzelan itzartu zinen.

Ziega txiki-txiki batean. Kartzelara sartzen zarenean, hiru egun eragiten dizkizute ziega batean, kontrol moduko bat. Zamorako kartzela probintzialaren hegal bat zen gurea, euskal apaizontzako beren-beregi prestatua, nahiz eta gero estatuko beste leku batzuetako abadeak ere egon ziren.

Pasatu ziren egun bi, hiru, lau... Noiz hartzen du batek kartzelan dagoelako kontzientzia?

Kontzientzia hartu, lehenengo egunean, baina kondenaren luzerak asko eragiten du. Niri lehenengo kartzelaldia, hila-betekoa, arin pasatu zitzaidan, lagunekin, euskara kontuak eta lantzen. Bigarreanean, hamar urterako nindoan eta hor gauzak asko aldatzen dira. Kartzelaren gogortasuna denbora joan ahala ikusten da, hainbat gehiago ekintzak eta eginez gero. Esaterako, gu sartu eta laster kondenatu zuten heriotzara Andoni Arrizabalaga, eta gose greba bat hasi genuen. Horrelakoak egin ahala, ikusten duzu kartzela gogortuz-gogortuz doala eta, norbere jarrera ere samurtuz ez da joaten, normalean; preso politikoan artean behintzat, ez. Bigunenean ere, oso gogorra da kartzela.

Hasiera hartan, talde handi samarra zineten.

Bai. Sartu-irten handia zegoen, kondena txikiak zituztenekin eta. Guztira, 54 abade pasatu ziren Zamorako kartzelatik. Gehienak Euskal Herrikoak, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, batez ere. Hamar bat, penintsulakoak: madrildarrak,

asturiarrak, galiziarrek eta katalanak. Gero, Burgosko epai-
ketaren ondoren, kondena laburrekoak Madrilera bidaltzen
hasi ziren eta, azken urteetan, zazpi lagun geratu ginen.
Linboan, ez inor sartu, ez inor irten.

Pentsatzen dut kanpokoekin harremantzea ere zailagoa izango zela orain baino.

Guk kanpoko munduarekin ez geneukan ia batere konexio-
rik. Bisitak familia hurbilarentzat bakarrik ziren, eta gai-
nerakorik pentsatu ere ez. *Vis a vis*-ik ez zegoen. Etxeko
gutunen bat edo beste, eta gutxi gehiago. Oro har, oso iso-
latuta, beraz. Hain urrun ere ez geunden, baina ez genuen
nahi izaten bisitarik maiz izaterik; endredu handia zen etxe-
koentzat, eta gastua ere bai. Eta orain, urrunago daudenak,
ba, pentsa! Dispersioak asko handitzen du sufrimendua.

Zelan moldatzen zineten egunerokoa?

Egia da, kondanak zenbat eta luzeagoak izan eta sartu-ir-
tena urriagoa, barruko bizitza estutu egiten dela. Baina gu
talde homogeneoa ginen, eta geure gorabehera txikiak edu-
ki arren, eguneroko martxan ondo konpontzen ginen; alde
horretatik, oso gomuta ona daukat. Bakoitza bere lanetan
ere aritzen zen: ikasketetan saiatzen ginen, edo idazten...
Nik hantxe idatzi nituen *Hil ala bizi* eta *Hiztegi errimatua*
izenekoaren zirriborroa, Huxleyren *Bai mundu berria* eta
beste zenbait itzulpen. Lan kolektibo bat ere egin genuen
atzizkiei buruzkoa.

Eta funtzionarioekin, zelan?

Beti tentsioan. Funtzionarioa tolerante samarra izanda ere,
sistemak azpian hartuko zaitu beti. Gu abadeak ginenez, ha-
sieran ez zekiten zelan tratatu; portatu izan bagina isil-isilik,
mezatxoak eman eta errezatu... Baina laster konturatu ziren
plan horretan ez geundela, eta gero eta estuago hartzen gin-
tuzten. Horixe da kartzelako dinamika. Dena zigorra, dena
mehatxua, dena absurdoa... Gauza zentzunezko bat ezin duzu

planteatu. Neguan hamar gradutik behera daudela? Izorratu. Tuberia guztiak apurtuta daudela? Izorratu. Oso bakanki, izaten ziren funtzionario tolerantetakoak ere; batek asko lagundu zigun tunelarekin... Baina gehienak kartzela-sistemari zorrotz eustekoak ziren.

Etxekoei-eta zenbateraino ematen zenieten barruko berri?

Neurrian. Zertarako arduratuko genituen gehiago? Nik amaren bisitarik, esaterako, ez nuen gura izaten; Zamoraraino etorri, erdaraz egin behar... Bereztat oso biolentoa zen, eta neureztat ere bai. Aita bai. Hura alai etortzen zen, autobusean, gainerako senideekin. Baina ez pentsa kartzelako kontuez aritzen ginenik, e? Hark ondo pentsatuta ekartzen zituen bere kontakizunak. *Bueno, Jabi, ahora te voy a contar mis historias...* Kartzeleroak ere barrez lehertzen ipintzen zituen, bai bisitetan eta bai bidaltzen zizkidan gutunekin.

«Horixe da kartzelako dinamika. Dena zigorra, dena mehatxua, dena absurdoa... Gauza zentzuzko bat ezin duzu planteatu»

Ibili naiz Zamorako karpetak begiratzeko eta batzuk politak topatu ditut: gizaburuagarrenak eta amorotoarrenak, etxekoenak, lobenak...

Tío ya ando a la escuela sin fallar un día yo voy aprendiendo mucho a si te escribiré carta y te contare algunos cuentos. Cuando bienes tu nos vamos arreglar bien sino tienes dinero no importa el padre tiene mucho iremos a todos los sitios. Tío adios asta pronto. Yosune.

Umeenak pozik hartzen nituen, bai! Baina, etxekoenak, denak ez dira eurek idatziak, e? Amaren eta arrebaren ize-nean beste batzuek idazten zidaten. Azkenean harrapatu egin zituzten. Gero, geure klabea genuen gutunak hartzeko eta idazteko. Kanpoko norbaitekin adosturiko klabea, kartzelatik libre irtena zen lagun baten bitartez. Gutunean betelan inozo

bat egin eta, pare bat orrialdetan, nahiko mezu konplexuak trukatu ahal izaten genituen.

Hortaz, nortzuek osatzen zuten zuen zaintza-sarea?

Bisitetara, etxe-etxeakoak. Hortik aparte, bagenuen laguntza sare bat, kartzela guztietan bezala. Gure kasuan, Zornotzako Txaro Aranbarrik eta Pedro Berrioategortuak, beste batzuen artean, izugarrizko lana egiten zuten. Eta geu abade ibiliak ginen inguruetako jendeak ere asko kolaboratzen zuen. Alde horretatik, elkartasun itzela, kanpotik jatekoa sartzeko eta abar. Eskerrak, zeren kartzelako arrantxoarekin bakarrik hezurak ere hantxe utziko genituen!

Kartzelari buruz kontatzen zenizkidan istorio guztien artean, tunelarena nuen gustukoena. Oraintxe, dudana nago egia-egiak zertzuk ziren eta zertzuk ez.

Tunela hasi eta amaitu egin zen, zure umetako ipuinak legez; egia horixe da. Halako burutazio batzuekin ibili ginen bolada batean eta, azkenean, hastea erabaki. *Barrurago ez gaitiztek sartuko!* Hasiera izan zen gaitzena. Baldosak jaso eta zulo karratu bat egin behar zen, astean behingo dutxetako ura berotzeko galdara baten ondoan. Arketa moduko bat egin eta hura ondo disimulaturik utzi, txirbil eta egur zatien azpian. Eta miraria aurrera zihoan! Burgosko epaiketa hasi zenean, eten bat egin behar izan genuen, gure artetik Jon Etxabe eta Julen Kaltzada ere epaiketa hartarako zeuden-eta. Hura pasatu zenean ekin genion berriro, eta, denborarekin, ba, hamazazpi bat metroko tunela egin genuen, barrutiaren azpitik kanpoko harresiaren bestalderainokoa. Azkeneko metroetan harresiaren kanpotik ibiltzen ginen, pentsa! Eta bueltan esaten genuen: *bagatoz lanetik etxera!* Bien bitartean, estutasun itzelak, baina ilusioa ere bai, han helburu eder bat zegoen eta. Itzela izango zen abadeek ihes egitea, nondik eta bereziki eurentzat sortutako kartzela batetik! Baina 1971ko urrian harrapatu egin zuten. 21ean ihes egitea zegoen planeatua, eta 13an, zapla! Hantxe amaitu zen gure istorioa. Zaputz handia.

Baina zuk, zaren modukoa izanda, ezin zaputuz bat idatzi. Argi apurren bat ere ikusten da *Neska bat leku imposiblean* nobelan kontatu duzun ihesaldian.

Idatz nezakeen istorio triste bat, baina ez nuen hori nahi. Pertsonaiak tunela egiten dabiltzaneko kontakizunak guztiz zehatzak eta egiazkoak dira. Gertaera mitiko baten erreferentzia dago hor: Sarrionandia eta Pikabearen ihesa. Barrutik kanporakoa gertatu ahal izan bazen, kanpotik barrurakoak errazago behar zuen. Halaxe sartu nuen neska bat baflean. Zailtasuna ez zen hori, gero gordetzea baizik. Ohiko kartzela batean ez, baina apaizen kartzelan bazeuden baldintzak, beti ere zorzea lagun, tunelaren kasuan bezala. Dena jota, tunel bat urte eta erdian gordetzea zailago ikusten dut neska bat bi hilabetean gordetzea baino.

Errealitatean ere eman zenioten buelta zaputzari, baina.

Eman behar! Amets bat amaitu zen, baina, iraun zuen bitarte luzean, amets ederra izan zen.

Amets bat amaitu eta errebolta bat hasi: mutin entzutetsu bat egin zenuten 1973an.

Gure aldarrikapena zen, preso egotekotan, kartzela normal batean egon nahi genuela; ez genuela abade estatusaren pribilegiorik onartzen eta preso politiko moduan tratatuak izan behar genuela. Ez ziguten jaramonik egiten, eta esan genuen: *zerbait gogorra egin behar diagu. Zarata handia aterako duena*. Eta mutin bat egitea pentsatu genuen, ahal zen guztia errez eta txikituz. Eta ondoren, gose greba. Eliza ere salatu nahi genuen, erregimen diktatorial baten konplizetat.

Badaukazu zuk bertso-sorta bat mutinari buruzkoa: «Ke azpitik, su gainetik, gar artetik ihesi...».

Bai. Sorta horretan diodan moduan, sutan ipini genuen kartzela eta oihartzun mediatiko handia izan zuen. Hamahirugarren eguneko goizaldean, jantzi eta alde egin behar genuela esanez etorri zitzaizkigun, eta guk: *irabazi diagu!* Bien

bitartean, harremanak izan ziren, antza, goi-istantzietan, eta gure trasladoa erabaki zuten. Carabanchelgo erizaindegira eroan eta sei egunez eduki gintuzten han. Gutako bat, Paco García Salve, madrildarra zen, eta CCOO inguruko jendea entzuten genuen kanpotik oihuka, animoak ematen. *Hau eginda zagok!* Indarberitutakoan, beste kartzela batzuetara banatuko gintuztela uste genuen, baina, seigarren egunean, atzera furgoietan sartu eta txaka-txaka ez gaituzte, ba, lehengo zulora eroaten! Hasieran ez geneukan irabazteko itxaropen handirik, neuk behintzat, baina Madrilera eroan gintuztenean, sinetsi genuen zerbait. Bagenekien Eliza eta estatua deseroso zeudela kartzela harekin.

Apaiz kartzela ixtear egon zirela esan gura duzu?

Bai. Erabakia hartuta egon ei zen. Gero jakin genuen ministro kontseilu bat egon zela bitartean, Carrero Blanco buru zela, eta hark: *et, et, et, hauek atzera lehengo lekura!* Guretzat, zaplada izugarria. Eta gose greban jarraitu genuen. Niretzat, itzulera hura bizi guztiko oinazetik bizienetakoa izan zen. Bakoitza furgoi batean gindoazen. Bide erdian, txizalarría etorri zitzaidan. Eusten saiatu nintzen, baina gaizki. Oraindik ehundik gora kilometroren faltan, geratzeko eskatu nuen. Ezet, ezin zela geratu. Ezin niola eutsi. Ezetz. *Baina zer kostatzen zaizue une batean...* Ezetz. Ezin zela. Salbaziora bezala iritsi nintzen ziegara, baina han ezin txizarik egin. Eta min itzela! Denbora luzea horrelaxe. Gaur balitz, furgoiari bertan egingo nuke, zarra-zarra, polizien kulatetara.

Gose-greban jarraitu bai, baina noiz arte? Hain momentu kritikoetan erabakiak hartzea ez da erraza izango, are gutxiago taldean.

Zigor-ziegetan geunden orduan. Alberto Gabika, Julen Kartzada, Josu Naberan eta ni «satorregia» esaten zioten zulo batean, eta Jon Etxabe eta García Salve kartzelaren beste puntan. Aurretik adostua genuen, norbaiten osasuna arriskuan ikusiz gero, uztea. 35. egunean, amaitzea erabaki genuen. Gero

lau hilabeteko zigorra: negu-negua, ziega ia lurpeko haiek, isolamendua... Carreroren heriotzaz ere ez ginen enteratu eta atera kontuak! Goiz batez, funtzionarioak besoko beltzez agertu ziren. Preso sozialen patioetan musika funebrea entzuten zen. Sumatzen genuen izen handiren bat izango zela, hiru eguneko lutua agintzeko eta guri esan nahi ez izateko. Lau egun halaxe, gero eta espektazio handiagoan, harik eta Gabon afaria iritsi zen arte. Gau hartan, ziegetan zigortuei ere elkarrekin afaltzeko 'grazia' aplikatzen zitzairen, eta gure lagun Nikola Telleriak, ekin-tzatik 'enlaze' modura aparte gelditzea erabaki genuenak, non egiten digun oihu, elkar ikusi orduko: *Carrero!* Berak ere modu bitxian jakin zuen berria. Zamorako egunkaria leihoz beterik ekartzen zioten, eta futbol-partida erregional baten kronikan, ezustea: «y en el descanso se guardó un minuto de silencio por el asesinato de Carrero Blanco». Zentsoreari berri horrek eskapatu egin zion antza.

«Aurretik adostua genuen, norbaiten osasuna arriskuan ikusiz gero, gose greba uztea. 35. egunean, amaitzea erabaki genuen. Gero lau hilabeteko zigorra: negu-negua, ziega ia lurpeko haiek, isolamendua...»

Gaiz aldatuta... Tunelarena amaitu eta mutinarekin hasi bitartean, 1972an, aitita Luzio hil zen.

Bai. Egun batean, aita azkenetan zegoelako berria ekarri zidaten eta... Nekauen! Hura izan zen zartakoa! Basurtura ekarri ninduten, ikustera. Hura pozik zegoen sueroarekin, gibela berritzen ari zitzaiola eta. Baina guk bagenekien ezetz. Handik egun batzuetara, non bidaltzen didan azkeneko gutuna, letra jausi-jausian idatzia.

Ospital 5-12-1972: Oye Jabi me encuentro mejor que antes el departamento este no parese Ospital parese un teatro todos salen rriendo tambien estamos muy agradecidos del donatibo

de los curas de Zamora nos ha entregau Jabier cierta cantidad de dinero. Umor tengo mucho a todos les doy cuoba ha Martinchu tambien ya le inche de rrisa aqui hau buenos rumores que hay indulto el dia 18 de Julio. Aqui soy un onbre grande me bicito el Obispo por que soy tu padre, Lucio Amuriza.

Hura idatzi zuenetik egun batzuetara, atzera hil zen. Beno, atzera ez. Hil egin zen. Joder! Eta berriro ikusteko aukera eman zidaten. Dudan egon nintzen, baina esan nuen: joan egingo nauk. Etxekoak ikusiko ditiat, Zornotzara joango nauk, jendea ikusiko diat... Horiek denak, ezta? Eta Urkiolatik edo Barazartik izango zelakoan, hara non nakarten Villarcayo aldetik. *Baina zergatik gatoz hemendik?* Poliziek aita ez zegoela etxean, ospitalean baizik. *Eta orain diostazue hori?* Basurtuko gorputegian zegoen, beste gorpu batzuen artean. Kanpoan, ama, neba-arrebak, ezagun batzuk... Izara jaso, gorpuaren aurrean minutu batzuk egin, eta zuzenean komisariara. Gauean garrasi itzelak entzun nituen. Torturatuena. Biharamun goizean, berriro Zamorara. Itzulera tristea izan zen. Hala izango zela jakinik, ez dakit etorriko nintzen, zeren, horrelakoetan, hila geratzen zaizu begietan.

Orain alferrik pentsatuko duzu hori.

Ba, bai. Baina niri barruak ez dit ematen hilak ikusterik. Harrezkero, gorpurik ez ikusten saiatu naiz beti. Gauzak nola diren. Umetan gustatu egiten zitzaidan! Orduan, etxeetan egoten ziren hildakoak eta, uzten bazidaten, ikustera sartzen nintzen. Hilerrian ere horixe egiten nuen, ilaran pasatu eta, ahal bazen, bertan gelditu, lepoa luze-luze.

Zuk, oraintxe ere, oso presente daukazu aita.

Bai, bai! Zelan da Paveseren esaldia? «Etorriko da heriotza eta zure begiak izango ditu». Ba, nik hori entzuten dudanean, aitita Luzioren ospitaleko begirada ikusten dut. Heriotzaren begirada horixe da niretzat. Ametsetan eta, huraxe datorkit. Eta tristura handia sartzen zait. Eta, lehen esan duzuna ere, orain Torreburura joatea... Niretzat, orain, Torreburu ez da.

Aita falta bada, ama falta bada, nire haurtzaroko mundua falta bada, hura ez da Torreburu. Bizileku bat berean jarraitzen baduzu, berez joaten zara aldakuntzak gaindituz. Baina nik, orain, hara noanean, neure burua ikusten dut estratan gora maletarekin, edo pentsatzen dut txakurra, aita, ama eta orduko guztiak agertuko direla. Baina ez dira agertzen. Horregatik, joaten naizenean, oroitzapenekin bete beharreko hutsune batean aurkitzen naiz. Eta oroitzapenak gauza onak dira, baina hutsunearen gainean, tristura pilatzen dute.

Espetxeko jantokia. Gainerako espazioen aldean zabala eta, zergatiari oraindik antzeman ez arren, artegagarria. Hotza. Ez mahairik, ez jarlekurik; ez usainik, ez zaratarik. Hutsune bat argi-ilunetan. Hormetako baten goialdean, bentana luzangak; bigarrenean, telebista barne-huts bat eta, hirugarrenean leihatila bat. Jantokia errekonozitzen ote duen galdetu dio kameralarietako batek; baietz berak, zelan ez! Eta leihatilara arrimatu du burua, bila, zerbaiten bila... Sukalde kiskali bat bestaldean. Ea kartzelako elkarbizitzaz hitz egiterik baduen, kamerak; argiak ematen dion horma-txoko horretan jarrita, mesedez. Baietz berak. Eta txokora joan da eskuak bizkarrean gurutzatuta. Eskuen parean, horman, 70eko hamarkadako bi, hiru, lau futbolariren pegatina higatuak. Atlético Madrid. Fútbol Club Barcelona. Atlético Madrid. Real Betis. Pegatinak eta telebista barne-hutsa... Horiexengatik da hain artegagarria jangela, presoen arrastoengatik.

Barruko grabaketa amaitu eta patiorantz, eguzkitarantz: sasiak eta grafitiak, porteria bat, zapatila urdin bat... Espetxera sartu garenetik ikusi dugun objektu bigun bakarra. Berriz ere eskuak atzean gurutzatu eta, bueltan-bueltan inguratu du patioa: pilotaka aritzen ziren karrajua, garbitokia, zuloa egin zuten bazterra... Goitik behera miatu du. Linterna-edo utzikiko zuen bertan? Eta oinez jarraitu du. Etxaurrera irteten denean ere, halaxe ibiltzen da, bueltan-bueltan, inoiz ere ez lerro zuzenean. Beti zirkuluan eta aurrerantz, zirkuluan eta

aurrerantz mandarinak zuritzen dituen bitartean. Zirkuluan eta aurrerantz, erlojuaren moduan. Elkarrizketa egiteko seta prest dutela eta bertan esertzeko eskatu diote. Jesarriko dela berak, baina gurago duela eguzkiak parez pare ematen ez badio; orbainak ateratzen dizkiola azalean. Betaurrekoak erantzi eta begiak igurtzi ditu.

ARO BERRI BAT, ZENTZU ASKOTAN

Zamora, 1975eko abuztua. Maleta hartu eta kartzelako atetik kanporantz zoaz.

Sei urte eta erdi eginda, berriz etxera. Sinetsi ezinik! Jende asko etorri zen harrera egitera: familiakoak, lagunak, abadeak,

bertsolariak... Bidean bazkaldu eta zuzen-zuzenean joan ginen Zornotzara; besarkada besarkadaren gainean. Gizaburuagan eta Amoroton ere berdin: umeak handi eginda, tunelaz eta gainerako guztiez galdezk... Halaxe. Ondorengo asteak bisitak egiten igaro nituen: izeko-osabak, nire aurretik irten zirenak, barruan geratu zirenen familiak... Gizaburuagan eta Amoroton, etxe guztiak pasatu nituen banan-banan eta

«Abadetza hurrengo urtean utzi nuen. Lasai pentsatu nahi nuen, apur bat lur hartutakoan. Jendeak ontzat eta bidezkotzat hartu zuen; uste dut gehiago harrituko zirela apaiz jarraitu izan banu»

harrera itzela egin zidaten den-denetan. Hamabost egunean egiteko asmoz hasi nintzena, hiru hilabetez luzatu zitzaidan erronda.

Ia zazpi urtean kanpoan eta erdi isolatuta egon ondoren, kostea egin al zitzaizun birkonektatzea? Politikoki esan nahi dut.

Bai. Aldatuta eta nahikoa zatituta topatu nuen dena. Nik, zelanbait, olatu bakar bat utzi nuen, eta itzuli nintzenerako, urak asko mugituta zeuden: ETaren VI. biltzarra eginda, LKI martxan, beste alderdi eta sigla mordo bat... Denbora behar izan nuen pixka bat kokatzeko, nahiko aro kritikoa izan zen eta. Eskakizun sozialetan indar eginez gero, espainolista-tzat jotzen zintuzten. Herri Batasuna oraindik sortu barik zegoen... Franco ere udazken hartantxe hil zen eta, tira, aro berri bat, zentzu askotan.

Zure ingurua ere aldatuko zen: auzoa, herriak...

Dezente! Desorientazio fisikoaren gomuta garbiena Bilbokoa daukat. Banentorren halako arrapala batean beherantz, eta zerbait arraroa, arraroa... Hainbeste urtean lauan ibilita, ez nekien aldasbeheran ibiltzen! Han joan nintzen, neure gorputzari eutsi ezinik, idiak ferratu berritan ibiltzen diren moduan.

Atzera jendartera egokitzea ez zen erraza izango, hainbeste denboran hain jende gutxirekin egon ondoren.

Ni amaren etxera joan nintzen. Artean, Torreburutik Zornotzara jaitsita zegoen, eta bakarrik bizi zen. Alde horretatik erraz, ze biok bakarrik geunden. Baina hainbeste jende eta bueltarekin, zorabiatu egin nintzen apur bat eta pentsatu nuen: hamabost bat egun egin behar ditiat nonbait, erdi erretiroan. Orduan, Aramaioko Untzilla auzoko Uxarte baserri-jatetxera eroan ninduen Jon Lopategik. Ostatu bat izango zen ustean joan nintzen, baina kobratu ere ez zidaten egin. Etxe-etxekotzat hartu ninduten, eta halaxe jarraitzen dugu gaur ere.

Kartzelatik irten zinenean, erabakita al zeneukan abade-tza uztea?

Ez. Utzi, hurrengo urtean utzi nuen. Lasai pentsatu nahi nuen, apur bat lur hartutakoan. Jendeak ontzat eta bidezko-tzat hartu zuen; uste dut gehiago harritu izango zirela apaiz jarraitu izan banu.

Abadetza utzita, 35-36 urte beteta, amaren etxean... Bizi-modua nondik atera pentsatzen hasi behar.

Lan fisiko batean hastea pentsatu nuen, burua arintzeko eta bestelako mugidetatik denboraldi batez aldentzeko. Baso-lanetan hasi nintzen anaiaren lankide batekin, egun erdiz. Besteak aurretik fabrikari lanaldi osoa eginda etortzen ziren, eta hala ere, ezin izaten nien jarraitu. Ni, fisikoki, ez naiz indartsua izan inoiz, eta muga hori abildadearekin berdintzen saiatu behar izan dut, baina, han, abildadeak bakarrik ez zuen balio. Hilabete batzuk baino ez nituen egin.

Esan duzun moduan, denboraldi batez aldenduta egon ondoren, Herri Batasunako zerrendetan aurkeztu zinen, 1977ko hauteskundeetan.

Bai. Egia esan, ez nuen neure burua horretarako ikusten, baina lehenengo hauteskunde demokratikoak ziren, eta bazegoen halako ilusio bat. Ardura haiek ere baten batek hartu behar zituela, eta onartu egin nuen Zornotzan zerrendaburu joatea. Bien bitartean, bertsoetan eta beste saltsa batzuetan ere bananbilen eta zail egiten zitzaidan dena uztartzea. Legealdia amaitu zenean, uztea erabaki nuen. Gerora ere, hainbat proposamen egin zizkidaten, baina argi neukan kargu organikorik edo direktiborik hartu behar ez nuena.

Zelan joan zinen, ba, orduan Bizkaiko Batzar Nagusietara?

Orduko filosofia juntetara eta parlamentura ez joatea zelako. Horrexegatik joan nintzen. Une puntualetan baino ez ginen agertzen.

Juan Carlos Borboikoa Gernikara etorri zenekoa izan zen horietako bat.

Eta ez nolana hiko! Errege-erreginak estreinakoz zetozen Euskal Herrira, eta harrera solemne bat egin zitzaien Gernikako juntetxean, 1981ean, Garaikoetxea lehendakari zela. Erregea hitza hartzear zela, di-da zutundu eta *Eusko gudariak*

kantatzen hasi ginen HB eta LAIAko hainbat batzarkide. Irudiak hortxe geratu ziren, betiko.

Nik orain urte gutxi ikusi nituen telebistan eta aitortzen dizut, ordura arte, ez nekiela ezer. Horrelakoetan, lotsa apur bat ematen dit...

Beno, erdi bana da kontua. Gure obligazioa da zuei orduko gertaeren berri ematea, eta zuena, ba, entzuteko borondatea edukitzea. Neuk ere, dagoeneko, erdi ahaztuta dauzkat orduko gorabeherak baina...

Trantsizioa igarota, Borboiko errege-erreginak berrezarritu, eta Felipe González 1982an Espainiako presidente izendatu berri; erakundea jardun betean eta GAL atentatuak egiten hasita... Hamarkada mugitua zetorren.

Mugitua eta gordina. Ordurako, gure anaia gaztea errefuxiatuta zegoen eta sarri joan behar izaten genuen Iparraldera. Beste motibo batzuegatik ere bagenuen harremana hango askorekin. Garai gogorra. Gogorra. 1984an, Belokeko monasterioan, Antxon Ezeizarekin 18. Ikuska grabatzen ari ginela jakin genuen Santi Brouardena, eta kolpe izugarria izan zen. Bilbon halako jendetzarik ez dut sekula ikusi. Gero, bertso batzuk kantatu nizkion Lekeitioko hilerrian. Halako emoziorik! Hurrengo urtean, Xabier Galdeano hil zuten. Iparraldean agurtu genuen eta... Zer esango dizut, ba? Biak izan nituen oso hurrekoak.

Galdeano Egin-en ezagutuko zenuen zuk.

Egin-en sorreraren inguruan hasi ginen harremanean, bai. Egunkaria martxan jarri aurretik, proiektua landu eta sozioak topatu beharra zegoen, eta kanpaina luze bat egin zen, 1977an. Orduantxe elkar ezagutu genuen.

Zelan gogoratzen duzu Egin-en hasiera hura?

Oso hunkigarria izan zen. Herri mugimendu masibo bat martxan ikustea, langileak gogotsu... Ederra! Artean, Bizkaiko

arduraduna Galdeano zen, eta kazetari titulurik ez neukan arren, Bilboko erredakzioan hastea proposatu zidan. Urte politikak izan ziren. Baina egoera ekonomikoa nahiko kritikoa zen, eta denbora batera, pertsonala txikitu beharra iritsi zen. Nik beste gauza batzuetatik ere atera nezakeen bizimodua eta, orduan, irten egin nintzen plantillatik. Baina zutabegile moduan jarraitu nuen, *Semaforo gorria* eta *Arrano Beltza* izeneko ataletan.

«*Egin-en hasiera oso hunkigarria izan zen. Herri mugimendu masibo bat martxan ikustea, langileak gogotsu... Urte politikak izan ziren*»

Guztira, *Egin-en* eta *Gara-n*, 22 urte egingo nituen ia eguneroko zutabeetan.

Eta libre uzten zintuzten? Ala egiten zizuten lantzean iradokizunen bat?

Libre, libre! Gero, gertatzen dena da zuk badakizula non zabiltzan, eta orduan, ba, eremu baten barruan mugitzen zara normalean. Baina, zutabeaz gain, nik beti eduki izan dut lan paralelo bat, eta horrek halako askatasun bat ematen dizu. Ulibarri euskaltegian ibili nintzen, Edertracken, enkarguzko itzulpenetan... Eta idazketa eta bertsolaritza, hortik aparte.

Plazetan ere orduantxe hasi zinen lekua egiten; bultzaka sartu zinenik ez dut esango, baina sakadatxo batzuk egin behar izan zenituen.

1976an egin nuen debuta, Gernikako Jai Alai frontoian. Oskorriren kontzertua izan zen, eta ondoren, sei bertsolari Abel Muniategi gai-jartzaile genuela. Nik kokapen politiko jakin bat nekarren eta bertsotan ere ez nuen ezkatzen. Orduan, sektore batzuk oso alde eduki nituen eta beste batzuk oso kontra. Ideologiagatik eta bertsokeragatik ere bai; ikasia nintzelako, edo esateko modu ezberdinak nekartzalako, edo... Ez dakit.

Eta, hala ere, txapelketa nagusian parte hartzea erabaki zenuen 1980an.

Hala ere, ez. Hargatik. Urteak ziren txapelketarik jokatzeko ez zela, eta orduan, Euskaltzaindiaren proposamena etorri zenean, eztabaida egon zen, egin ala ez egin. Bertsotan goi samarrean zebiltzanek ez zuten txapelketarik nahi, kulturaren lehia ez zela egokia, eta bata eta bestea. Nik argi neukan, egi-ten bazen, joango nintzela.

Joan zinen, baina ez joate hutsagatik, ezpada asmo jakin batzuekin.

Zelan, bestela? Lehenik eta behin, argi neukan euskara baitan kantatu behar nuela eta hizkuntzari zelanbaiteko garrantzia eman nahi niola. Ordurako eginda neukan *Hiztegi errimatua*, idatzi ere egiten nuen, eta, gehiago edo gutxiago, paperean landutakotik zerbaitek beti ateratzen zaizku kantuan ere. Animoso joan nintzen, doinu berriak eroan nituen, neurriak ere bai. Arriskatzea zen, baina ondo irten zitzaidan. Eta pentsatu nuen: tira, oraintxe erakutsi diat bertsolaria naizela eta bakea. Baina nire kontrako erreakzio zabal samar bat ikusten hasi nintzen, halako nahigabe edo mikaztasun bat, txapela irabazi nuelako. Bitartean, hori sentitzen zuen jendearen aurrera joan eta kantatu egin behar! Gogor egiten da. Gero, hurreko tratuan, batek baino gehiagok esaten zidan: *ez nian uste horrelakoa hintzenik!* Bien bitartean, plaza askotan publiko irabazi ere egiten nuen, eta aurrera. Harik eta 1982an berriz irabazi nuen arte. Konfirmazio moduko bat utzi zidan bigarren txapel hark. Niretzat gauza handia da oraintxe ere jendea sasoi hartako bertsoekin gogoratzen dela ikustea: aitarenak, ogiarenak, Gernikako debutekoak... Egunotan, *Miñan* irakurtzen nabilela, asko gogoratu naiz naufragoaren bertsoekin.

**Itsaso hori dago zatarra/ nire oihua eta negarra/ untzi bat horra non azaltzen den/ nik behar nuen izarra./ Orain-
txe sartu zait arra/ berriz piztutzeko garra/ baina hau da**

zoritxarra/ ikusi naute aurrean eta/ ai hau destino baldarra/ laguna ondotik pasatu eta/ nik hemen ito beharra.

Gaur egun gai ezaguna da, eta bertsoak ere egin daitezke hobeak. Baina 82an, gai hura berria zen, diferentea. Eta bertso haiek efektu bat sortu zuten. Amets Arzallusen liburuak ere badu indar hori. Historia gogorra, baina oso elegante kontatua, halako lakonismo eta zehaztasun sarkor batekin. Irakurlea indiferente ez uzteko modukoa da.

Bat-batean aritzeaz gain, bertso jarriak eta jaialdi musika-tuak egiten ere bazenbiltzan. Bide berrien bila?

Bila edo... Sinesten nuena plazaratzen. Sasoi hartan, *Laurehun herri, mila bertso berri* izeneko liburuan bildu nituen sortak kantatzen genbiltzan. Lekuan lekuko informazioa jaso eta bertso sortak egiten nituen, gero musikariekin kantatzeko. Lehenengoetan, Lopategik eta Azpillagak ere parte hartzen zuten. Geroago, Lopategik bakarrik. Musikarietan, Gontzal Mendibil eta bere taldearekin egin nuen bolada bat, eta gero Josu Zabalarekin, batez ere, beste zenbait musikari ere txandatu. Emanaldi mordo baten ondoren, gai orokorragoak ere sartzten hasi ginen: *Lemoiz, Tejero, Mendian gora, Sanferminak...*

Garaitsu hartan ipini zenituzten martxan bertso-eskola asko ere. Pentsatzen dut txapelketan eta plazetan hainbeste erresistentzia egonik, eskolen inguruan ere agertuko zirela batzuk.

Guk hiru gauza defendatzen genituen: berezko dohainak gorabehera, bertsoan ikasi egin zitekeela, euskaldun berriak bertsolari izan zitezkeela, eta emakumeek berdin egin zezaiketela bertsoan. Askok ez zuten emakumeena ikusten, eta pentsatzen nuen: baina zelan gabiltzak oraindik honelako kontuak eztabaidatzen? Eta ez jende ikasi gabeekin, e? Jende kultuarekin ere bai. Nik poz itzela hartzen dut emakumeak bertsoan ikustean. Garaipen handi bat izan da hori, ez bertsoaritzarentzat bakarrik, baita gizartearentzat ere.

1980ko hamarkadarako, mugimendu feministak ere ahots propioa zeukan Euskal Herrian. Zenbaterainoko oihartzuna zeukan lanean, militatzen edo sorkuntzan ari zinen esparruetan?

Garai hartan salda politikoa gogorra eta tentsoa zen eta, hemen, alderdi ezkertiarrek ez zuten, beharbada, mugimendu horrekin askorik konektatu. Emakumeen borroka zen eta nik ondo ikusten nuen, baina ekintzetan edo eduki espezifikoa ez genuen gehiegi sakondu. Orain ere, ideia asko partekatzen ditut feminismoa-ekin, baina ni jada ez nago ezein mugimendutan lerrokatua. Asko pozten naiz izan duen gorakadaz, justiziari dagokionez, aurrerapena dakarrelako. Eta justizia kontua bada, denon borroka da.

«Hiru gauza defenditzen genituen: berezko dohainak gorabehera, bertsotan ikasi egin zitekeela, euskaldun berriak bertsolari izan zitezkeela, eta emakumeek berdin egin zezaketela bertsotan»

Ez al zenuen bertsoaren batzuegatik zenbait feministarekin aurrez aurrekoen bat izan?

Egin-en gutun batzuk argitaratu zituzten, bai. Hara, nik gauza lotsagarriak kantatu izan ditut, hainbat lotsagarriago gaur egunetik begiratuta. Hori aitortu beharra daukat. *Gogor* diskoan bertan: «Euskaldunak hiru gauza/ maite zitun antzina:/ osasuna, ardo zaharra/ etxean andre fina». Andrea etxean eta euskalduna, gizona... Lotsagarria. Zuk diozun garaian, bazen jende bat oso sentsibilizatua, eta arrazoi objektiboak izango zituzten mintzeko. Eta, neuk ere teoriarik dena jakin arren, gero, bertsotan, burura datorkizun lehenengoa botatzen duzu. Diskurtsoa ez duzu beti ondo egokitzen, umorea ez duzu beti nahi zenukeen moduan bideratzen. Gero hasi ginen pentsatzen: *hi, gauza batzuk ezingo dituk horrela esan!* Gauzek aldatu egin behar dute, nik horren dudarik ez dut izan sekula.

Gauzek ala norbanakoek? Zeren, bertso-munduan ere, esango nuke gizonezkoen gehiengoa egongo dela modu generiko batean 'gauzak' aldatzearen alde. Baina egoe-ra konkretuei buruz berbetan hasten garenean, tentsioak sortzen dira. Zuk zeuk ere, antzina ez dela esan didazu ez dituzula *Kontrako ezta* saiakeran azaltzen diren hainbat gauza ulertzen.

Nik, *Berria*-ko elkarrizketa batean oraintsu esan nuenez, argi ikusten dut liburu hori akusazio bat dela. Eta bai. Akusaturik sentitzen naiz. Aipatzen dituzuen jarrera batzuk identifikatzen ditut, noski, eta ulertu ere ulertzen ditut asko. Beste batzuk, ez hainbeste. Paternalismoaz esaten dituzuenak, adibidez. Nik neuk beti izan dut ardura bertsolari gazteak, neska zein mutil, plazan zelanbait babesteko eta konfiantza emateko, eta uste dut beraiek ere ondo hartu izan dutela hori. Eta ez gazteekin bakarrik. Helduekin ere, zoazen tokian, ardurak eta erabakiak hartu behar dira, batez ere, librean zabilzanean. Liburura itzuliz, gauza bat dira datuak eta beste gauza bat, sentsazioak edo inpresioak. Zuk zeuk, adibidez, liburuan esaten dituzun gauza asko inpresioak dira, eta inpresioa, sarritan, sentipen subjektiboa da. Saioetan batak edo besteak gaineratik egin izan dizula, ez zarela aintzatetsia sentitu, hala edo bestela epaitu zaituztela... Horrelako inpresioak neuk ere sarritan izan ditut, ez, noski, emakumea izateagatik. Baina bai beste motibo sarritan emozional batzuegatik.

Inpresioak? Botere-harremanak islatzen dituzten gertaera zehatzak ere makina bat daude liburuan...

Bai, noski! Nik ez dut hori ukatzen. Liburu horretan agertzen diren adierazpen guztiak asko interesatzen zaizkit, emakumeek eta edozein pertsonak sentitzen dutena interesatzen zaidalako. Baina datuak eta inpresioak zehaztasunez bereizi behar direla uste dut. Eta elkarrizketa horietan aipatzen dituzuen sentipen asko ez dut uste emakume izateari dagozkionik.

Baina zu kontziente zara gizon-emakumeen arteko egiturazko diferentziaz eta horrek eman dizkizun pribilegioez?

Jakina kontziente naizena! Esan dizut: niretzat justizia oinarrizko zutabea da, eta feminismoak oinarrizko injustizia asko bistaratu ditu. Alde horretatik, feminismoaren kausa justuen borroka denon borroka da. Beste kontu bat da gizon-zekook, teorikoki hori guztia onartu arren, praktikan koherenteak ote garen. Badakit ezetz, zeren neu, behintzat, ez naiz lar koherentea.

PENTSALEKU BAT ANDIKOAN

Jabiz, Don Jabierrez eta Xabier Amurizaz aritu gara orain artean. Hitz egingo dugu Xabierrez?

Apur bat ezagutzen dut hori ere...

Kontatuko didazu amarena?

Baina zer nahi duzu? Dena kontatzea? Ala nik hiru-lau gauza esanda osatuko duzu?

Ez, ez. Kontatu dena.

Beno, ba, badakizun moduan, amari neuk eman nion lehen jaunartzea. Gero, kartzelatik irten nintzenean, Gizaburuagara eta Amorotora joaten jarraitu nuen eta kuadrillan ibiltzen nintzen gazteekin. Euren aita izan nintekeen, baina kariñoso hartzen ninduten, eta ni gustura. Ama ere tartean ibiltzen zen, eta horrela joan ziren hiru-lau urte. Eta egun batean, non ikusten diodan ebakin bat karteran. Neure *Semaforo gorria* izeneko zutabe baten ebakina. Eta horituta zegoela konturatu nintzen, gainera: joño! Honek zergatik zeramak ebakin hori karteran, hainbeste denboran? Eta buruari bueltaka hasi nintzen. Nire burutik ez zen pasatu ere egiten zure ama pretenditzerik, baina... Ebakin hura han! Bera Bilbon bizi zen orduan, ahizparekin. Eta neu ere, *Egin-en*, Bilbon

nenbilenez, sarritan aipatzen genuen geratzeko kontua. Eta pentsatu nuen: deitu egingo zioat! Eta berak baietz. Kafe bat hartzeko geratu ginen, Mochedades kafetegian, eta gero handik Deustura. Agurtzear gaudela, nik suabe-suabe: *datarren astean berriro?* Eta berak baietz. Halaxe ostegun batzuetan, behin ausartu nintzen arte: *aizu, hemen zerbait gehiago egon liteke?* Eta berak: *Nigatik bai!* Nire burutik pasatu ere ez zen egingo halakorik, baina... Zer esango dizut, ba? Pozarren!

Zu jabetzen zinen amari zurekin hasteak ekar ziezaiokeenaz?

Izango ez nintzen, ba! Bere adin bueltako gazteentzat, agure bat izango nintzen; abade ohia, preso ohia, herri txiki batean... Nik hori ulertzen nuen eta horrexegatik egiten genituen Bilbon elkar ikusteak. Baina denbora aurrera zihoan eta esaten nion: *eskola-umeen moduan ibili behar al dugu, ezkutuan?* Eta, azkenean, Gizaburuagako jaietan ofizialki elkarrekin agertzea pentsatu genuen, nahiz eta jendeak ordurako bazekien. Izan ziren marmar batzuk, baina gero, benetako orduan, denek hartu zuten ondo. Denek edo gehienek, neuk uste.

Handik laster, amamarekin eta zurekin bizitzera joan zen, Zornotzara. Bera arduratzen zen etxeaz eta amamaz, berak eroaten zituen zure zutabeak Egin-eko erredakziora, berak gordetzen zizkizun egunkarietako ebakinak idazteko ideiak har zenitzan...

Horrela zen, bai. Baina galdera zein da?

Hori.

Orduantxe hasi zen magisteritza ikasten, eta lan finko batean hasi zen arte, ba, halaxe konpontzen ginen. Zergatik begiratzten didazu horrela?

Pentsatzen ari naiz, gehiagoko barik.

Gure etxean, bai niretzat eta bai zuretzat, ama dena da. Hori horrelaxe da. 40 urte daramatzagu elkarrekin eta ondo

konpontzen gara. Ni neu, oraintxe ere, berarekin ibiltzen naiz gusturen. Eta bera ere baietz uste dut nirekin.

Baina zure bizi-ibilbideak erabat markatu du amarena.

Badakit! Gauza batzuk ondo egingo nituen, eta beste asko ez. Asumitzea besterik ez daukat. Eta geratzen zaizkidanak ondo egitea, jakina.

**Badago Bertsolari aldizkariaren zenbaki bat, 1996koa, hainbat bertsolariren emazteen testigantzekin osatua. Amari galdeturikoak, honakoak: «Zer egiten duzu zuk figura baten ondoan? Gustatuko al litzaizuke bere kalitate-
ren bat edukitzea? Zeren inbidia diozu zure ondokoari?».**
Horiek galdetu zizkioten?

Bai.

Eta zer erantzun zuen berak?

Gauza asko... Besteak beste bertso-mundura zurekin inguratzek jende interesgarri asko ezagutzeko aukera eman ziola, baina ibilera horiekin nekatua zegoela. Bikotean zenbiltzateanean, adibidez, askok ez ei zuen zuen espazioa errespetatzen.

Oso gaitza zen oreka topatzea. Neuri ere ez zitzaidan gustatzen, amarekin irteten nintzeanean, edonork moztea, baina zer egingo nuen? «Zoazte hemendik» esan? Zaila zen, zeren nik gero jende harekin tratatzen jarraitu behar izaten nuen. Berrero hasiko banintz ere, kosta egingo litzaidake hori gainditzea. Nik ezin ditut pertsonak harrika bota, asko kostatzen zait. Gainera, bertsolaritza ez da plazara eskuak

«Bertsolaritza ez da plazara eskuak poltsikoan sartuta joan eta kantatzea bakarrik. Harremana behar duzu jendearekin, bestela arraro usaina hartzen dizute. Jendeari gustatu egin behar zatzaizkio»

poltsikoan sartuta joan eta kantatzea bakarrik. Harremana behar duzu jendearekin, bestela arraro usaina hartzen dizute. Jendeari gustatu egin behar zatzaizkio.

Zuretzat inportantea da jendeari gustatzea?

Bai, bai! Bertsotan inportantea da, eta bertsotatik aparte ere bai. Lantzean kaparrada bat jasan behar izaten da, baina zer egingo diozu, ba?

Baina zuk, dena jota, ondo eroan duzu hori esposizio hori.

Ondo eroan dut, jende atsegina eta maitagarria ere asko topatu dudalako. Baina jende arteko ibilerak nekagarriak izaten dira gehienetan...

Horregatik etorri zineten Andikoara?

Neurri batean bai. Nik honelakoxe leku batean bizi nahi nuen, mendiz inguratuta. Zornotzan eguneroko martxa zurrunbilo hutsa zen, eta 86an Berrizera etorri ginen. Andikoa bake-leku bat zen eta da. Nirvana bat. Etxaurrera irten eta aurrez aurre Anboto, Udalatx, Aizkorri, Urkiola ikustea itzela da.

Harreman estua daukazue, eduki ere, Anbotok eta zuk.

Aitormen batzuk egin izan dizkiot, bai. Sorta bat ere jarri nion, Anje Duhaldekan kantatzen zuena: «Tximistak dzist-dzast, goiz eta arrats,/ haizea norantz, lainoak harantz/ baditut mila min edo grina/ lauhun gozo, seirehun garratz./ Oi, Anboto, bizkar zorrotz/ erraldoi mendetsu hilotz/ Oiztik egiten diat hots!/ Emaidak arren heure zati bat/ nik hiri bihotz eta hats/ sentimenaren berri dezagun/ nik ikas eta hik ahantz». Disko bat atera zuen nire letrekin, eta Anbotorena ere hantxe. Disko hura...1989an izango zen. Bai, hori da, 1989an, ni ordurako eztarritik operatuta nengoen eta. Isilik egon behar izan nuen ia urtebetean, eta tarte hartatik sortu zen diskoaren ideia.

Zu zaren modukoa izanik, isilik egon beharrak dezente eragingo zizula ematen dit.

Apur bat bai. Etxean-eta konpontzen nintzen zelanbait, arbeltxo batekin eta zeinuak eginez. Baina irtenez gero, jendeari azalpenak eman behar, berbarik ere ezin egin, eta... Deserosoa izan zen. Hargatixe geratu nintzen 1989ko txapelketara aurkeztu barik.

Eta ez zenuen plazak galtzeko beldurrik izan?

Ez hainbeste. Aurreikusten nuen hori ere, baina zer egingo nuen, ba? Bestela ere erabakita neukan azkeneko txapelketa izango zela, irabazi nahiz galdu. Orduan, ba, pena eman zidan, baina, era berean, lasaitasuna ere bai. Azken batean, txapelketa lehia da, eta lehia borroka. Nahi duzuen guztia esan eta distendituko duzue lehia, baina bakoitzak bere burua jartzen du jokoan, eta mundua hantxe amaitzera balihoa lez joaten gara txapelketara.

Baina mundua ez zen han amaitu.

Ez horixe! Andikoako jai batzuetan itzuli nintzen plazara, neure auzoan, halaxe apropos pentsatuta. Lopategik eta biok egin genuen saioa, eta espektazio handia sortu zen: ni hainbeste denboran isilik egona, bera Euskal Herriko txapela irabazi berri... Txapela jantzi zuen egunean, hiru agur-bertsu kantatu zituen, eta bat geuri eskaini zigun: «bera ezta rri minez/ emazte haurduna/ txapelez agurtzen dut/ bere etorkizuna».

Meza berria eman zenuenean, elizpean; kartzelatik irten zinenean, atean; plazara itzuli zinenean, oholtzan... Momentu esanguratsu askotan eduki duzu ondoan Jon Lopategi.

Asko ibiltzen ginen elkarrekin. Bikote egokia osatzen genuen, eta deitu ere, bioi deitzen ziguten sarritan. Berak prestigio handia zeukan, eta ni haren inguruan eta hura nire inguruan, ba, ederto konpontzen ginen. Ondo osatzen ginen eta arrakasta lortzen genuen. Nik aurrelari moduan jokatzen nuen normalean, bideak zabaltzen, eta hark beti ateratzen zuen atzetik ertz oportunoren bat. Maila handia zeukan bertsoan,

ingenioa ere bai. Bertsolaritzak eman duen figurarik handienetakoa izan da Lopategi.

Andikoan kantatu zenuten hartan, jaio berri-berria izango nintzen ni.

1990eko martxoan jaio zinen, eta saioa maiatzean izan zen... Ba, bai, hiru hilabeterantz zu. Hantxe egon zinen, karrotxoan, gogoan daukat. Eta bertsoarako ere eman zenigun zeresana!

Zertan aldatu zizun bizitza gurasotasunak?

Emozio aldetik, denean. Luzaroan genbiltzan ume bat izan guran. Amak abortu bi ere izan zituen, eta zurekin poza.

Poz handia eta ilusioa. Ez zinen kosta bakoa izan! Behin ume txiki bat etxera sartzen denean, beste guztia sobera dagoela ematen du. Den-dena betetzen du ume batek. Artean, ama lanean hasi barik zegoen oraindik, eta nik etxetik egiten nituen zutabeak eta itzulpenak. Orduan, ba, ondo konpontzen ginen; ni neure lanetan, ama zu zaintzen, ama Maria Jesus ere gurekin...

«Lizarra-Garaziko akordioak itxaropen handiak sortu zituen nigan eta Ezker Abertzalearen inguruan zebilen gehiengo batengan. Su-etena amaitzea zer izan zen? Ba, dezepzio handi bat»

Zutabegintza aipatu duzunez gero... Akorduan daukat ama, ezkaratzeko mahaian pilatuta zeuden hiru-lau Egin hartu eta karpeta batean gordetzen, halakorik gehiago ezin izango genuela erosi eta.

Zu umea zinela itxi zuten, bai, 98an. Itxiera hura... brutala izan zen. Proiektua hankaz gora, jendea hankaz gora... Baina biharamunean bertan agertu zen *Euskadi Información* eta handik hilabete batzuetara, *Gara*. Haren sorreran ere izan nuen neure partea, ez *Egin*-en beste, baina lagundu nuen. Bolada nahasia izan zen. Lizarra-Garaziko akordioa

ere orduantxe sinatu zen eta... Atzetik etorri zen guztia etorri zen gero.

Ordukoa aukera galdu bat izan zela entzun izan dizut beti.

Dударик барик. Akordio hark itxaropen handiak sortu zituen, nigan bai, behintzat. Eta Ezker Abertzalearen inguruan zebilen gehiengo batengan ere baietz esango nuke. Eta su-etena amaitzea zer izan zen? Ba, dezepzio handi bat. Jarraitu genuen geure ildoan, baina dezepzio handiarekin. Nik neuk askoz aurrerago ere ez nion norabide onik ikusten borroka armatuari.

Horretan oso argia izan zara beti neurekin ere.

Zelan argia?

Politikaz ere argi hitz egin izan didazula ume-umetatik: gure herria hau da eta hemen hau eta hura gertatzen dira. Nahiz eta gero kontakizunak zeure modura ipuindu...

Niretzako gauza handia zen zurekin ibiltzea eta jolastea; beste modu batean, baina gure aitaren antzekoa naiz horretan. Eta denetik kontatzen ahalegintzen nintzen, bai; berdin Gernikako bonbardaketa edo berbetan zekiten animalien kontuak. Gauero ipuinak eta errima-jokoa, akordatzen zara? Nik esaten nizun «txakurra», eta zuk «elurra». Eta hala. Ez zenuen amaitu gura izaten, lotara ez joatearren. Zuk, orduan, ez zenuen jolasa bertsolaritzarekin lotzen, baina nik pentsatzen nuen: ondo, ondo! Gustatu egiten zaiok! Eta gero ikusten nuen doinuak erraz harrapatzen zenituela, bertsolari batzuegan arreta jartzen zenuela...

Horren akordua badaukat, bai. Gurean bertsolariak sartu-irtenean ikusi izanarena esan gura dut. Asko gazte-gazteak, gainera.

Nik, sasoi hartan, sarri kantatzen nuen gazteekin eta tratua ere baneukan batzuekin. Sarasua eta Arantzazu Loidi, gero-txoago Unai, Igor eta Beñat, Jon Maia, Leire Bilbao, Iratxe

Ibarra, Maialen bera... Haiek denak bertso-eskoletatik zetozen, eta plazetan ikusteak poz handia ematen zidan. Eta neu eurekin aritzeak ere bai, jakina.

Bere garaian zeuk ekarri zenituen legez, esateko modu berriak zekartzaten haiek ere, gai berriak, erreferentzia berriak... Ez al zintuzten apur bat deskolokatu?

Deskolokatu, ez nuke esango. Gehiago zen erronka bat. Eta aukera ezberdin bat. Sarasua figura bihurtu zenean, adibidez, saio asko egin genituen elkarrekin. Zaharra eta gaztea. Binomio horrek berak joko-zelai berri bat zabaltzen zuen dialektikarako.

Ondorengoei ez eze, aurrekoei ere beti begiratu izan diezu zuk; 90eko hamarkadatik aurrera, hainbat bertso-bilduma osatu zenituen.

Geuk egiten ez badugu, nork egingo du, ba? Oso beharrezko irizten diot lan horri, eta nik gustura egiten dut, gainera. Hor daude *Bizkaiko bertso-gintza* izeneko lau liburua, Xalbador eta Lazkao Txikiren bertsoaldiekin osatutako diskoak, Jon Maiarekin eginiko *Mende baten aldarriak*, eta oraintsuago, Mañukortari buruzko liburua.

Bien bitartean, kantari askorentzako letrak ere idatzi dituzu: Imanol, Tapia eta Leturia, Oskorri, Mixel Ducau, Kepa Junkera, Anje bera, Mikel Markez, Mikel Urdangarin, Elustondo anai-arrebak...

Antzina esan nuen: kantatu nahi dut bizitza!

Korridore argitsu bat. Beirate handi batzuk ezkerretara, zartatuta denak; barroteak agerian eta kristal zati triangeluarrak leihoen markoetan. Ziega ilara bat eskumatara eta gainean, balkoi moduko baten atzean, bigarren pisu bat atez bete. Hementxe errodatu zuten *Celda 211* pelikula: gizon aldra aztoratu bat marruka, barandak astintzen. Bera, ordea,

isilik doa, lurreko luma pilatxoei begira: satortegira, satortegira... Halako batean, non hegaldatu den uso pare sabaiko habe batetik! Ez die jaramonik egin eta, krika-kraka, lantzean kristal multzo bat zapalduz jarraitu du aurrera.

Korridorearen barreneko zuloan, lau ziega borobil-erdi batean kokatuta; gainerakoan aldean txikiak eta ilunak, atek pinta-pinta eginda... Ea bera zeinetan egon zen, kameralariak. Bigarreanean; hemen Naberan, hor Kaltzada, eta hor Gabika. Behegaineko esprai potoak apartatu eta barrura sartu da. Etxe atarietan jartzen diren zintzilikarioen antzeko hotsak datoz korridoretik; haizea, leihoetako kristal zatietan. Argazki pare bat egiteko leku ona dela eta burdinazko ohe-euskarrian esertzeko eskatu diote. Baietz berak, egiteko nahi beste. Eta sagartxo atera du poltsikotik, telazko musuzapi bat ondoren. Zapia zabaldu, ohe-ertzean ipini eta burua makurtuta jesarri da gainean. Bila... Kutunen baten bila? Begiratzeko gorantz, kameralariak. Eta gordetzeko sagarra poltsikoan, planoan sartzen dela eta.

Argazki saioa amaitu dutenean, belaunburuak igurtzi eta dezisioz zutitu da: gose greban zeuden bitartean, sorta bat idatzi zuela satortegian bertan eta ea kanta dezakeen. Bai, gizona! Oratu die barroteei esku biek eta bi, hiru, lau bertso bota ditu aldian-aldian tonu erdi igoaz: «geratu zaigun biziagur/ maite gaituen anitzi,/ hilda ikusi nahi gintuztenei/ barka eta mila goraintzi». Indarrez astindu ditu barroteak. Eta orduantxe nasaitu da. Beharbada, ez zen ezeren bila etorriko, zerbait uztera baizik.

OHOLTZETATIK, IDAZMAHAIRA

2002ko martxoan hil zen amama Maria Jesus, eta, niretzako, huraxe izan zen umezaroaren akabera. Zer izan zen zuretzat?

Niretzat, alde batetik, berak errepresentatzen zuen mundu-txoaren itxiera. Eta, bestetik, poza ere bai, izan zen moduan

izan zelako. Katarro bat, eta tak, amatatu egin zen. Hamabost egun aurrerago egunkaria ilunetan eta betaurreko barik irakurtzen zuen hark! Ez zuen argirik piztu nahi izaten, ez gastatzearren. Oso bere buruarekin zebilen emakumea zen gure ama eta, harentzat, dependentzian jaustea izango zen txarrena. Baina ez zen horrelakorik gertatu, eta azkenera arte gobernatu zuen bere burua. 93 urte ondo beteta, zenbat gehiago eska daiteke, ba?

Handik bizpahiru hilabetera kantatu nuen nik lehenengoz eskolartekoan, eta txapela eskaini nion.

Bai, bai! Izaten zuen harrotasun bat zuk egiten zenituen gauzeekin! Poztuko zen bertsotan ikusi izan bazintu.

Eta zuk? Zelan hartu zenuen ni bertsotan hasi izana?

Pozez neuk ere! Guk sekula ez zintugun bultzatu, baina bertso-eskolan hasi zinenean, poza eta lasaitua ere hartu genuen; bertsotan hasi zinelako baino gehiago, lagunarte horretan sartu zinelako, giro horretan. Gero, 14-15 urterako, zarta-zarta egiten zenuen, eta lantzean saio bat elkarrekin egiten ere hasi ginen. Nik urte haien gomuta itzela daukat. Nire ibilbideko etapa hunkigarrietakoa izan zen zurekin egin nuena. Gero, burua konplikatu zitzaizun une batera ailegatu zinen eta... Kito. Ez zinen eroso aurkitzen nirekin.

Ez da ez nintzela eroso aurkitzen, baina zure ondoan, oso rol jakinak hartu behar izaten nituen beti. Hasieran gustura aritzen nintzen alaba nerabearen paperean, baina gero, 17-18 urterekin, beste zerbait egin nahi... Eta ezin. Tresnak faltako nituen, edo heldutasuna. Ez dakit.

Horixe, ba! Burua konplikatu zitzaizula!

Konplikatu ez, garatu.

Beno ba, garatu. Orduan beste saltsa batzuetan sartzen ere hasi zinen, eta bolada bat izan zenuen, nahikoa... Nahikoa gora etorrita ibili zinen. Etxean ere hemen ibiltzen zinen

denok doktrinatu nahian! Eta guk arrisku batzuk ikusten genituen, zuk, beharbada, ikusten ez zenituenak.

Arriskuak?

Orduan dozenaka atxilotzen zituzten gazteak, eta norbere umea hala imajinatzea...

Zu 17 urterekin gazte zoli bat zinen eta ni ume bat?

Ez da gauza bera. Eta zu, zeuri gustatu zein ez, beti izango zara 'gure umea'.

Kontuak kontu, urteetan jarraitu genuen elkarrekin saioak egiten. Harik eta zu plazatik erretiratu zinen arte. Ondo zeunden bitartean utzi gura zenuela esaten zenuen.

Ni gustura ibiltzen nintzen bertsotan, eta, egia esan, ez nenbilen arteagatik edo kulturagatik bakarrik; horregatik ere bai, baina ez horregatik bakarrik.

Bertsotan jarraitu nuen bizibide bat ere bazelako, eta bizibidea berba duina da. Neure gizartea eta harreman sozialak ere hortxe neuzkan eta horiek uzteak ere pena ematen zidan. Baina epe-muga bat ipini beharra neukan. Laster 80 urte bizkarrean-eta, ez nintzen atzera eta aurrera ibiliko! Eta non ipini langa? Ba, 75. urtean. Bada errespetuzko adin bat, ezta?

«Ni gustura ibiltzen nintzen bertsotan, eta, egia esan, ez nenbilen arteagatik edo kulturagatik bakarrik. Bertsotan jarraitu nuen bizibide bat ere bazelako, eta bizibidea berba duina da»

2016ko apirilean, zuk urteak bete baino egun batzuk lehenago egin genuen Altzoko bertso-afaria.

Ez daukat ahazteko! Hunkigarria izan zen, ederra. Eta pentsatzen nuen: haxe izango duk azkena, benetako azkena; neure alabarekin eta Altzon, hainbeste lagun izan dudan lekuan. Eta itzela gertatu zitzaidan, hain zuzen, azken agurrarekin:

aurretik pentsatzeko denbora edukita, agur gogoangarri bat bota behar nuena, ez nintzen gauza izan. Neu naizenarekin! Eta, azkenean, bertso arrunt-arrunt-arrunt bat kantatu nuen: «eskerrik asko bihotz bat eta/ esku pareta beterik/ topiko handi bat dela badaikit/ baina ez dago besterik».

Bertso polita izan zen. Ez gara beti poema epikoak kantatzen ibiliko!

Polita... Arrunta. Huraxe izan zen nire azken inpotentzia.

Zuk beti esaten zenuen ez zinela omenaldi zalea, eta zeuretzat ez zenuela halako ezer nahiko. Baina, azkenean, onartu egin zenuen. 'Kontraesana' ez zaio esaten horri?

Kontraesan dohatsu bat! Ba, bai, onartu egin nuen, etorri zen lekutik etorri zelako; Durangaldeko bertsolariek antolatatu zutelako, berriztarrak inplikatu zirelako, zornotzarrak eta etxanoarrak... Nahiz eta beste dimentsio bat hartuko zuela konturatu, banekien: hementxe amaituko duk eta kito. Eta gero, ba, plana ere polita zen: egun batean Etxanotik Berrizerainoko ibilbidea, eta beste batean, Platerueneko jaialdia. Hainbeste musikari eta artista! Oso eskertuta nago. Oraintsu, Hertzainak-en berragerpenak ekarri dit halako... antzeko olatu bat.

Euskaldunatik etxerako bidea isil-isilik egin zenuen ko-txean, bai...

Niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertu hura. Josurekin tratu handia eduki izan dut beti. Berak ere hartu zuen parte Platerueneko jaialdian, eta neuk ere ezin nuen Bilbora huts egin. Josu da... talentu handi bat! Eta ahal dudan neurri guztietan jarraituko dut berarekin tratua izaten, zeren nire lagunik maiteenetako bat, kulturaren eta denean, bera izan da.

Jubilatu eta plazetatik erretiratu zinenean, idazketari eman zenion zentralitatea.

Jubilatu, jubilatu... Aspalditxo egin nintzen! 65ekin. Azke-neko urteetan *Anboto* astekarian ibili nintzen, zuzentzaile moduan. Uste dut hori ez dugula aipatu, ezta?

Ez.

Ba, sar ezazu aipamentxoren bat, oso etapa polita izan zen eta. Etxe inguruan, hurreko jendearekin... Erretiratzeko tranpolin bikaina.

Sartuko dut.

Eta, idaztearena, ba... Arrakasta handi barik, baina ni beti izan naiz idazle prolificoa. Itzulpenak, zutabeak... Hortixe bizi izan naiz neurri handi batean. Baina, neure kontura, literatura moduan egin ditudanetatik... Ruina bat. Idazle ruinosoa izaten jarraitzen dut.

Berria-n idatzi zenuen zutabe baten zatitxoa hemen: «Dezepziotik dezepziara pozik bizi naiz. Dezepzio bakoitzak itxaropen bat izan du. Itxaropen zapuztu bati beste itxaropen zapuzgarri batek darraio. Horrela, beti da itxaropena. Zirkuিতua etengo balitz, suizidatuko nintzateke, baina ez dago arriskurik, itxaropen zapuzgarriak amaigabeak baitira».

Itxaropena kontzeptu mistiko, erlijioso samarra da, eta ez zait askorik interesatzen. Beti esaten da itxaropena dela galtzen den azkena; gezurra. Nik askotan galdu dut, baina gero berriz sortzen zaizu grina, idazteko edo dena delakorako. Itxaropena argi intermitente bat da, etengabe itzaltzen eta pizten ari dena.

Eta zuk beti izan duzu zango bat idazmahaiari lotuta. Literatura moduan egin dituzun lan horietan, zeure bizitzaz aritu izan zara batez ere. Zergatik?

Nireaz baino gehiago, giza espeziearenaz. Nik, neure bizi-penak kontaktzen ditudanean, besteek ere antzekoak izango dituztela pentsatzen dut. Analogiaz eraikitzen dituzu bes-teenak: nik zure 'nitasunean' ezin dut sartu; zu umetan izan

zinenari buruz idazten badut, neu nintzen umetik ariko naiz. Eta kontua ez da bestearena azartatzea; kontua da, asmatua ala gezurrezkoa izan, polito esatea. Eta kontrasteak bilatzea. Ni efektu horien bila joaten naiz, ez egiaren edo gezurraren bila.

Hau ere, zure agurraren moduan, topiko bat izango da, baina idazten zabiltzanean, zerekin gozatzen duzu eta zerekin sufritu?

Nobela bat edo testu luze bat bada, arkitektura lan bat egin behar izaten da. Gerta dakizuke egitura hori argi ez edukitzea eta, orduan, ba, hutsunea ez da orrialde zuri batekoa. 200 orrialde zuri ikusten dituzu! Nik zirriborro horri forma bat eman arte sufritzen dut, batez ere. Baina gordinean zerbait daukazunean, eta hori ontzea tokatzen denean, orduan gozamina da.

Joan ziren sailarekin zabilta azken urteotan: heptalogia bat idazteko erronka ipini zenion zeure buruari, Proustek legez.

«Nobela bat edo testu luze bat bada, arkitektura lan bat egin behar izaten da. Nik zirriborro horri forma eman arte sufritzen dut. Baina gordinean zerbait daukazunean, eta hori ontzea tokatzen denean, orduan gozamina da»

Eta seguru baten batek esango zuela: *non sartu duk hau?!* Baina ni burugogorra izan. Proust asko gustatu izan zait beti, eta pentsatu nuen: hark Parisko bizitza aristokratikoaz idatzi zuen moduan, antzeko zerbait egingo diat, baina hemen, geruza terrenalago batean. Zergatik ez? Eta 'neure denbora galduaren bila' hasi nintzen, oroitzapenetan sartu-irtenean... Eta, tira, arrakasta handi barik, baina hor nabil sei edo zazpigarrenarekin.

Aitortu behar dizut itomentxoaren sartzeko zaidala zuk idatzi duzun guztia irakurtzera iritsiko ez naizela pentsatzen

dudanean. Orokorrean, irakurri nahi nukeen guztia irakurtzeko astirik ez daukadala konturatzen naizenean.

Ba, horrek erantzun erraza dauka. Bat: ezin dituzu denak irakurri. Bi, ez dituzu denak irakurri behar. Ezta neureak ere, jakina. Nik hori oso argi daukat. Irakurketa mugatu bat egin behar dudanez gero, ona izango dela suposatzen dudana aukeratzen dut. Eta deskuidatzen banaiz eta interesik ikusten ez badiot, berehala uzten dut. Lehen ez. Lehen eskuetara etortzen zitzaidan ia guztia irakurtzen nuen. Ba, ez. Zu gaztea zara eta hartu neurria garaiz, denborak ez du itxaroten eta.

Pelikulei ere, 10-15 minutu ematen dizkiezu, eta konbentzitzen ez bazaituzte, katez aldatu.

Eta zinean altxatu eta alde egitea zatarra delako, bestela... Zinean biolentzia gehiegi dago gaur egun, eta ez fisikoa bakarrik. Efektuak lortzeko, biolentziara jo behar beti. Horrek atzerakada handia ematen dit. Niri aktore onak eta gidoi onak gustatzen zaizkit, txotxolokeriarik eta argumentu arbitrarioerik bakoak. Etxekoak aipatzearren, *Handia* asko gustatu zitzaidan, adibidez. Zeren horrelako pelikula kostunbrista bat izateko, horrelako pertsonaia batekin... Duintasunez tratatutako istorioa begitandu zitzaidan. *Dantza* ere bai, bisualki edertasun itzelekoa eta gidioia ere ona. Dantzan dabiltzala, ikusten dira armak-eta, baina ez dago biolentziaren esploziaziorik. Horixe da esan nahi izan dudana.

Animalien dokumentaletan ere egoten da biolentzia, baina egunero-egunero ikusten dituzu.

Hori natura da. Adimena natura leuntzeko etorri zela suposatzen da, baina depredazio sena handitu besterik ez du egin. Gizadiaren aurrerapenaz hitz egiten da, baina pentsamenduan eta filosofian, orain lau mila urte ere, geure mailan zeuden. Aurreratu zer egin da? Teknologia. Eta teknologiak zer ekarri du? Depredazio sena efektiboago egiteko moduak. Giza aurrerapena teknologiarekin identifikatzea atzerapen handia da. Begiratu mundu zabalera eta...

Zelan dago, ba, mundua?

Lehertzeaz!

Eta Euskal Herria?

Bizirik! Ez da gutxi... Elkarbizitzan aurrerapauso handiak izan dira azken urteotan baina presoen korapiloa hortxe dago oraindik. Zer edo zer mugitzen ari ote den... Baina ikusi egin behar da gobernuek aurrera egiten duten. Nahi nuke, baina berehalako hurbiltzerik ez dut ikusten; gutxiago etxeraterik. Gainerakoan, aspaldion, geurera baino Kataluniara gehiago begiratzen dugula iruditzen zait. Inondik arrakalatzekotan, handixe hasiko da arrakalatzeko estatua, eta horrek itxaropen bat ematen du. Gero, Kataluniak gauza bat dauka ona: independentzia politikora iritsi ez arren ere, kulturalki independentea dela. Eta hemen, ikusiko dugu gauzak norantz doazen, baina gure masa independentista nahiko ezegonkor ikusten dut. Eta nik argi daukat: bere zailean ere, errazena independentzia da. Zailagoa, sozialismoa. Eta zailena, Euskal Herri euskalduna.

Euskara izan da, hain justu, zure gogoetagai nagusietako bat azken urteotan, eta proposamen zehatzak ere egin dituzu hizkuntza-eredu nazionalari dagokionez. Erdi baka-rik sentitu zara bien bitartean?

Horixe da euskaldunon gaitz larrienetako bat: gutxi garela eta garenok ezin garela hizkuntza-eredu nazional eta efektibo batean ados jarri. Teorian bai, beharbada, baina sentimenduak oso dispertsaturik daude. Asko idatzi dut horri buruz, baina, garbi esanda, orain ez daukat auzi horretan luzatzeko gogorik. Gura duenak topatuko du... Nik oso argi daukat hizkuntza-eredu nazional bat behar dugula. Eta dauzkagun bitartekoak horren mesedetan erabili beharko liratekeela. EITBn daukazu, esaterako, adibide argi bat. Albistegietako eta beste zenbait programetako esatariak entzuten dituzu eta pentsatzen duzu: hemen badago hizkuntza-eredu nazional baterako ahalegin bat. Baina, gero, sartzen zara beste programa batzuetan eta... kaosa! Kaos probintzianoak, kate

nazional batean. Baina, tira, euskara bizi da eta, hiztunek nahi badute, aurrera egingo du.

Mugimendu sozialen artean, pentsiodunena da gorakada nabarmenenetakoa duena. Zeu ere hantxe ibiltzen zara, astelehenero-astelehenero.

Ibili behar. Mugimendu interesgarria da, eta nahiko masibo-a, e? Bizkaian bai, behintzat, eta inguruan ere baietz uste dut. Garai batean lanean, borrokan edo zerbaitetan ibili ginenok gabilta hor. Batzuek esango digute: *bai, baina etxean geratzen direnak askoz gehiago dira!* Ba, bai. Hori beti izan da horrela, baina argi-zuzia piztuta dago, edozein momentutan handiago bihurtzeko arriskuan. Estatuak badaki, Rajoyk egin zituen antzeko mozketak egiten baditu, masa kritiko handi bat mobilizatuko dela. Etxean geratzen direnek ere badute erreferentzia argi bat zelan mobilizatu behar duten eraso larri baten aurrean. Horretarako, argi-zuziak piztuta egon behar du, eta zuzi horixe da pentsiodunok astero mantentzen saiatzen garena.

«Horixe da euskaldunon gaitz larrienetako bat: gutxi garela eta garenok ezin garela hizkuntza-eredu nazional eta efektibo batean ados jarri»

EIZUE LO LASAI

Ibilbide oso batean zehar eginiko lanagatik saritu berri zaituzte Manuel Lekuona sariarekin. Ibilbide oso bat atzean...

Eta, oraindik, aurretik ere bai apurren bat! Gainerako sari guztiak borroka baten edo lehia baten ondorioz jaso ditut, eta Lekuona saria etorri egin zitzaidan. Eusko Ikaskuntza prestigio handiko erakundea da, eta, alde horretatik, horrelako aitormen batek suposatzen duenagatik, pozik nago.

Baina errekonozimenduetatik baino gehiago, kariñotik bizi gara, eta niri horrexek ematen dit indarra eta bizipoza. Horrelako poz txiki asko ekarri dizkit Lekuona sariak: ikusten duzu jende bat zugatik poztu dela, edo lantzean batek esaten dizula: *aizu, entzuten zaitut irratian!* Edo: *gustatu zitzaidan zure zutabe hura...* Poz klase horiek.

Zu sekula ez zara izan jendea indiferente uztekoa. Aldekoak alde, kontrakoak kontra.

Bien bitartekoak gutxi izan ditut, bai. Baina orain gudu-zelaietatik aparte bizi naiz. Lehen erdi kontrako nituen batzuek ere orain aintzat hartzen naute. Baina, egia esan, ez dakit. Orain nire harreman sozialak oso mugatuak dira.

Baina orain bezain ondo sekula ez ei zara bizi izan.

Egia da. 20-25 urterekin, han genbiltzan mundu osoa jan beharrean. Baina mundua osorik jatea erantzukizun handia da gero! Eta sasoi hartan beldurgarria ere bai. Nik, orain, osasun konturik ez bada, zer gaitz eduki behar dut, ba? Ama eta zu ondo zabiltzate, pentsatzeko astia daukat... Etxaurrera irten eta lau orduan Anbotori begira egon gura badut ere, egon naiteke. 25 urterekin ezin duzu hori egin. Nik orain astiro ibili nahi dut. Pentsatuz ibili nahi dut.

Zure bigarren bizilekua izaten jarraitzen baitu pentsamenduak. Beste pasartetxo bat hemen, zeuk idatzitakoa: «Descartesek esan nahiko zuen (nork jakin!) izatearen edo existentziaren funtsa pentsamenduan datzala. Zertarako genuke izatea, bagarela konturatu ezik? Ba nik alderantziz esango nuke, René: naiz, beraz pentsatzen dut. Ezin da *naiz* esan, pentsatu gabe».

Horixe da nire bizi-filosofia, edo saiatzen naiz izan dadin. Denbora berdin-berdin pasatzen da kontziente izan zein ez, baina nik denbora ohartuan bizi nahi dut: orain pozik nagok, orain estu nagok... Gauza onen bat aurreikusten dudanean, niretzat aurreko egunak izaten dira gozamen-iturri nagusia:

pentsatzea, imajinatzea... Zeren unea bera tak joaten da. Hori gauza txikietan, e? Amarekin afaltzen joateko plana egin badut, adibidez, aurretik jakin gura dut, plazera antzizpatzeko. Heriotzaren hurbiltasunak egunean egunekoa gozatzera behartzen nau. Horixe da kontziente izatea.

Aitortzen dizut, egon, eskertuta nagoela transmititzen didazun bizi-filosofiagatik. Baina gero, heriotzari buruz berbertan hasten zarenean, gurago izaten dut gaia aldatu, egia esan. Zer egin nahi duzu, ba? Ez pentsatu? Heriotzaren jakile ez bagina, ez genuke bizitzen jakingo.

Bai, bai! Lantzean behin presente edukitzea ondo dago. Baina, zuk esaten duzun moduan, kontzientzia daukadaketik ari naiz entzuten «ni hiltzen naizen gauean behintzat eizue lo lasai». Behin eta berriro...

Nik horrelaxe sentitzen dut eta! Bizitzarekiko mezu negatiborik ez transmititzen saiatu izan naiz beti, bestela ere sobra ailegatzen zaizkigu. Gero, egia da, neurekiko ez ditudala gauzak beti horrela sentitzen. Inoizko ondoen bizi naizela diodanean, batzuetan egia izaten da eta beste batzuetan, ba, ez hainbeste. Ni neu ere sarritan egoten naiz behea jota.

Ondo disimulatzen duzu, ba.

Abildade bat da etsialdia disimulatzea, zeren sentsazioak oso aldakorak dira arrazoi objektiboen ondoan: goizean ondo egon banauk, arratsaldean zergatik nagok goibelduta, zirkunstantziak aldatu ez badira? Ni sentsazioekin ez naiz batera fidatzen, baina horiexen arabera bizi naiz. Hortxe beste kontraesan bat. Triste banago, triste nago. Baina tristura ere motibo argirik gabeko sentsazio bat izan daiteke. Motibodun tristurak ere badakit zer diren, e?

Baina sekula ez zaizu gustatu emozioei buruz berba egitea.

Gaur egun ematen du dena dela emozioa, baina nik ez dut horrela funtzionatzen. Emozioak emozioen gainean oinarritzen

badira, hondamenera zoaz. Emozioak pentsamenduaren gainean oinarritzen badira, nonbaiten kokatuta zaude. Marrubiak bezala: marrubi oso helduen gainean ipintzen badituzu, elkar aplastatzen dute; ziri batean sartzen badituzu, ederto eroaten dituzu. Ba, adimena horixe da: ziria. Sentimenduak, eduki, animaliek ere badauzkate: beldurra, poza, haserrea... Guk adimenarekin bilduz kontrolatzen ditugu sentimenduak, eta, hala ere, batzuetan eurek dominatzen gaituzte. Baina argi izan gure dohain nagusia adimena dela. Sentimenduekin bizi gara, baina adimena da ardatza.

«Literatura, artea, filosofia, erlijioa... dena dago heriotzaren gainean oinarritua; hil ondoren zer ote dagoen, zer ez... Heriotzaren ondoren zer? Ba, den-dena, norbera izan ezik»

biak bezala: marrubi oso helduen gainean ipintzen badituzu, elkar aplastatzen dute; ziri batean sartzen badituzu, ederto eroaten dituzu. Ba, adimena horixe da: ziria. Sentimenduak, eduki, animaliek ere badauzkate: beldurra, poza, haserrea... Guk adimenarekin bilduz kontrolatzen ditugu sentimenduak, eta, hala ere, batzuetan eurek dominatzen gaituzte. Baina argi izan gure dohain nagusia adimena dela. Sentimenduekin bizi gara, baina adimena da ardatza.

Ea, ba! Ondorengo galdera razionalki prozesatzen ahalginduko naiz neu ere. Zure kontzientziarik ez denean, zelan nahi duzu agurtu zaitzagun?

Hiltzen naizenean, esan nahi duzu?

Bai.

Hara! Ni hiltzen naizenean, zuen oroimenak jarraituko du, baina nireak ez. Beraz, zeuek nahi duzuen moduan. Suposatzen dut ez duzuela nire izanarekin inkoherentziarik egingo. Gainerako guztia literatura da. Esan izan dut nire izenean zuhaitzik ez landatzeko. Ni zuhaitz guztietan egongo naizela. Idatzi ere egin dut: «Hilak non daude? Hilak daude biziek nahi duten lekuan». Baina esan dizut, hori guztia literatura da, eta neuk ere baliabide literario moduan erabiltzen dut heriotza. Ez naiz neure heriotzaz ari. Literatura, artea, filosofia, erlijioa... dena dago heriotzaren gainean oinarritua; hil ondoren zer ote dagoen, zer ez... Heriotzaren ondoren zer? Ba, den-dena, norbera izan ezik.

Apuntatuta. Abisatuko dizut prozesatzen dudanean.

Ez hartu presarik, neuk ere oraindik ez daukat presarik eta!

Bien bitartean, negua joan, udaberria etorri... Eta zuk urtero esaten duzu «iazko udaberria» nahi duzula, eta haren aurrekoa, eta aurrekoaren aurrekoa.

Eta aurreragoko denak ere bai. Bai. Umezaroko udaberrietara iritsi gura izaten dut nik, eta urtero itxaroten dudan 'berritasuna', aurrekoetatik zenbat eta berdinagoa izan, hainbat hunkigarriago egiten zait. Betiko natura, betiko loreak, betiko txoriak... Nik kukua entzuten dudanean, adibidez, umetan entzuten nuen unea eta txoria etortzen zaizkit, eta hori da... zauskada bat! Gero pentsatzen dut: baina zenbat urte igaro dituk ordutik? Hirurogeita hamar... Oskua! Baina, azken batean, horixe da kontzientziaren jarraipen-sentsazioa.

Atzerantz zoaz, orduan?

Nire pentsamendua atzera eta aurrera dabil, joan-etorrian. Beti ibili da horrela.

Pentsamenduarekin ez eze, fisikoki ere izan zenuen erre-gresio hori egiteko aukera orain hilabete batzuk: iazko irailean Zamorako kartzelara itzuli zineten *Apaiz kartzela dokumentala* grabatzera.

Benetako pelikula bat izan zen hura! Oso hunkigarria. Zorionez, memoriak selekzio handiak egiten ditu eta minak ez zaizkizu ahazten, baina denbora luzera, beste era batera hartzen duzu guztia. Niretzat inpaktantea izan zen hara joatea, non egon ginen ikustea, zigor-ziegan bertan orduko bertsoak kantatzea... Horrelakoak gutxitan gertatzen dira bizitzan.

Barrura sartu zinenean, besoak altxatuta esan zenuen: «hemen Zamora, gure etxea!».

Hori esan nuen?

Eta irten zinenean: «Agur, Nikola! Hik segi hortxe, beti bezain alegre eta temoso».

Nikola! Nikola beti egon da gure gomutan, kartzelak hil zuen eta. Gu baino zaharragoa zen, balientea bera. Baina minbia etorri zitzaion eta jausten-jausten ikusi genuen. Huraxe izan zen Zamorako esperientziarik gogorrenetakoa. Geuk ikusi gizona hiltzen, eta ezin ezer egin! Kartzeleroei esan, eta jaramonik ere ez. Oraintxe ere horrelako kasuren bat entzuten dudanean... Gogorra. Azkenean, Madrilera eroan zuten, Carabanchelgo eritegira. Eta kondena amaitu arte, hantxe! Irten zen noizbait, baina harentzat, askatasunak etxean hiltzeko bakarrik balio izan zuen. Gizajoa... Guretzat ikono bat zen eta da, adinak ere errenditzen ez duena. Gure komandantea, Nikola Telleria.

Nik ume-umetatik entzun izan dut Zamorako berri: beste unibertso bat, beste espazio-denbora koordenatu batzuk, erdi errealak - erdi mitikoa. Niretzat, zuekin Zamorara joatea izan zen... Macondo batera joatearen parekoa.

Ba, bai. Macondo totala. Macondo amaitu bat, desolazioa. Presondegia abandonatu bat. Eta beste alde batera, bitxia, ezta? Marrazki haiek hormetan eta... Orain ez dakit zer ematen duen, hutsik jendez eta sastrakaz beteta. Baina nik munstro hura martxan ikusten jarraitzen dut, funtzionarioekin, presoekin, geure buruekin...

Handik bueltan gentozela, zure mapa mentalak nahasteko beldurra zeneukala esan zenuen.

Beno, beldurra, beldurra... Egia da gauza batzuk aldatu zaizkidala buruan neukanetik han ikusi genuenera, eta irudi batzuk nahasten zaizkidala orain. Baina nire patio mentala ez da askorik aldatu.

Nik idatzi nituen inpresio batzuk. Zu horietaz ez zara askorik fidatzen baina... Pasatuko dizkizut.

Pozik irakurriko ditut. Eta gero, nahi baduzu, neuk egingo dizut elkarrizketa bat zuri, Zamorako itzuliaz. 🍷

GAIAK

75 Idatzi munduari lotzeko

Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen
Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz
Miren Rubio Iturria

Idatzi munduari lotzeko

Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz

Miren Rubio Iturria

Kazetaria

I 985eko Liburuaren Egunean Txillardegi eta Atxaga Bilbon elkartu ziren idazlearen konpromiso eta egin-beharrez jendaurrean eztabaidatzeko. Ikusmina hainbestekoa zen, ezen aretoa txiki geratu zen elkartutako ehundik gorako entzuleentzat. Izan ere, aurreko asteetan egunkarietan bizi-bizi eztabaidatutakoa ekarri zuten aurrenekoz jendaurrera, norbere posiziotik mugitu gabe: Txillardegik euskararekin eta Euskal Herriarekin konprometitutako jardun literarioaren alde egin zuen, eta Atxagak, aldiz, literaturaren jardun autonomia defendatu zuen.

Literaturaren autonomiaren inguruko eztabaiden mugarritzat jotzen da aurrez aurrekoa, bi belaunaldi eta ikuspegiaren arteko talka irudikatu baitzuen; garaiko eztabaiden lekuko. Talka hark segida izan zuen hurrengo urteetan, han eta hemen azaleratzen. Baina, idazlearen autonomia literarioaren aldekoen ahotsa gailendu ahala indargabetu zen eztabaida publikoa, gaur egun ia desagertu arte –ez bada akademian eta kultur esparru jakin batzuetan–.

Idazlearen konpromisoaren eta autonomiaren eztabaidak, ordea, badu bere garrantzia eta baita gaurkotasuna ere. Aldaketa soziopolitiko eta kultural garrantzitsuak izan dira

azken hiru hamarkadatan: erakundeen eratze eta egonkortzea, ETAre desagertzea, 2008ko krisia, kultur kontsumoaren merkantilizazioa, euskararen garapena, idazle belaunaldi berrien etorrera... Aldaketa horiek guztiek kontestu berriak sortu dituzte, baita idazleentzat ere, eta, ondorioz, idazleen funtzioa eta inguruarekiko harremana ulertzeko eta bizitzeko ikuspegi nahiz baldintza berriak sortu ahal izan dira. Hau da, literaturaren autonomiaren/konpromisoaren eztabaida bera berriro auzitan jartzeko bide berriak urratu dira.

Horregatik da interesgarria eztabaidari ostera ere heltzea, eta idazlearen funtzioaren eta jardun literarioaren autonomiaren inguruko egungo ikuspegiak jasotzea; bereziki Autonomia Literarioaren belaunaldiaren¹ gerizpean idazten hasitakoena –horiek osatzen baitute egungo euskal literatura ardazten duen belaunaldia–. Izan ere, ikuspegi horiek jasoz, idazleek euren burua nola kokatzen eta ulertzen duten jakin ahal izanen dugu, eta euren sorkuntzaren helburua egungo ikuspegitik zein den ulertu. Euskal literaturarena berarena ere badena –zati batena, behinik behin–.

Horretarako, ikerketa apal baten baitan,² Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe idazleak elkarrizketatu dira, honako irizpideak betetzen dituztelako: Autonomia Literarioaren belaunaldiaren ostean eta horiek erreferentzial zirela hasitako idazleak direlako, euskaraz garatu dutelako euren jardun literarioa, aldaketa soziopolitiko eta kultural nabarmenak ezagutu dituztelako euren ibilbide artistikoan zehar, sari esanguratsuak jasotakoak direlako, irakurleen aitortza dutelako, eta egun jardunean jarraitzen dutelako ibilbide emankor batekin.

Marko teoriko jakin batean oinarritutako galdeketari emandako erantzunak laburbildu ditut jarraian, idazleka lehenengo, eta elkarrekin emanda ondoren. Ez dira ikerketako erantzun guztiak jaso, artikulua honetarako esanguratsuenak direnak soilik.

Harkaiz Cano, norbere sasoiko idazle sinaptikoa

Idazle izateko nahia oso goiz izan zuela dio Harkaitz Canok.

Baneukan bokazio edo idazle izan nahi bat. Hemezortzi urte nituenean nagusiki Atxaga izan nahi nuen, nire erreferentea zen. Sarrionandia gero estimatu dut, gero eta gehiago, baina orduan nik 'handia izatean' Atxaga izan nahi nuen.

Atxaga eredu izanik, euskaraz idazten zuen bere hastapeneko idazle erreferentzialak, eta, ondorioz, euskaraz ere irudikatu zuen hasieratik Canok bere jardun literarioa. Egun ere hala irudikatzen du, euskaraz, nahiz eta euskaraz idazten duenak gazteleraz ere idatzi behar izaten duen maiz, dioenez.

Gustuko konplize batek eskatu badit, gaztelaniazko testu bat edo katalogo bat, esaterako, egin izan dut. Eta askotan bi hizkuntzetan ere bai. Baina beti pentsatuz: zer da euskal idazlea izatea, double lan egin eta berdin kobratzea? *Run-run* hori etengabe duzu. Beraz, elebitasuna bihurtzen duzu sorkuntzaren parte. [...] Poema solteak bai idatzi izan ditut gazteleraz. Baina, zaila egiten zait nire burua arnas luzeko zerbait gazteleraz idazten pentsatzea.

Hasieratik idazlea izango zela garbi izanagatik ere, besteen aitortza beharrezkoa izan zuen bere burua idazletzat jotzeko. Oso gogoan du unea, gainera.

Lehiaketa batzuk irabazi, eta Martxelo Otamendik [*Egunkaria* eta egun *Berria*-ko zuzendariak] deitu zidan. 18 urte neuzkan, gurasoenean bizi nintzen, eta: «Hik gustuko duk Kubaren gaia?», galdezka deitu zidan. Nik Kubaz ez nekien ezer. «Bai, idatziko duk, idatziko duk...», Martxelok. Eta horrela ikusi nuen nire burua Kubari buruz idazten, Mario Benedettiren liburu bat hartu, eta *plagio vil* bat egiten...

Aitak hartu zuen egunkaria eta jarri zidaten: Harkaitz Cano, idazlea. Nik ezer argitaratu aurretik jarri zuten idazlea nintzela. Eta aitak esan zidan: «Orduan zer, idazlea haiz?». Eta nik: bai. *Sí quiero* bat bezalakoa izan zen. Zure burua aldarean ikustearen modukoa: bai, nahi dut.

Halako bultzadak gakoa izan zirela dio, berehala babestuta sentitu baitzen.

Gure garaian ez zen zaila argitaratzea, argitaletxeak gure bila etortzen zirelako Athleticeko *ojeadoreak* bezala. [...] Bazegoen halako kontzientzia bat: guk gure buruari ezin diogu permititu euskaraz idazle on edo ertain izan daitekeen norbait dedikatu dadin beste zerbaitetara. [...] Nolabait, sentsazioa nuen gu inkubadoran bezala gintuztela. Bazegoen bilaketa bat, estimulu horri erantzuteko ekosistema bat. Orain ez da horrela.

Harkaitz Canok helburu artistikoei lotuago ikusten zuen hasieran bere burua, eta egun, aldiz, gizarte kritiko eta zuhur bat ahalbidetzeko balio duen literatura sortu nahi duela dio, helburu estetiko/artistikoak baztertu gabe

Profesioa ezagutu ahala, ordea, errotik aldatu zaio idazlearen irudia. Guztiz erromantizatua baitzeukan hastapenean: ganbaratxo bateko bakardadean sortzen irudikatzen zuen. Egun, aldiz, beste artista eta agenteekin hartu-emanen dagoen artistatzat du idazlea, bere burua. Aldaketa hori ez da soilik profesioa bera ezagutzearen ondorioz gertatu, dio, baizik eta idazlearen beraren lanbidea «dekadentzian» dagoelako.

Profesio dekadente bat bezala bizi dut gure profesioa. [...] Nik ikusi dut 25 urteetako aldaketa hori. Beti izan da minoritarioa, bai, 'klaseko arraroak' ginen. Baina orain, nire ustez, idazlearen figura edo literaturarena, ez bakarrik pentsamenduaren arloan, baizik baita entretenimenduaren arloan ere, oso debaluatuta dago orain 25 urtekoarekin alderatuta.

Ondorioz, egun idazleak 'medium' baten modukoa izan behar duela uste du Canok.

Erdi autista nintzen, ez nuen sozializatzeko gaitasun berezirik, eta profesioaren eta bokazioaren mutazioak eraman nau sinaptikoagoa izatera, besteak gehiago entzutera. Ez zait txarra iruditzen, baikorra naiz horretan. Funtzio bat ere bete dezaket, medium funtzioa. Besteak entzun eta nire tresnak jarri ditzaket interesgarria iruditzen zaidan jendearen zerbitzura, edo interes-

garriak iruditzen zaizkidan arloen zerbitzura. [...] Ni hor eroso nago, gustatzen zait. 2019an, idazle baten funtsa euskaraz idatziz, hori ere bada. Edo hau da nagusiki, beharbada.

Hortaz, euskal idazlea babesten zuen ekosistema eraldatu, eta jarduna egokitu behar izan du idazleak, beste sortzaile eta intereseko esparruekiko harremanean.

Bizipen horiek badute eraginik Canoren idazlearen autonomiaren eta konpromisoaren ulerkeran. Izan ere, helburu artistikoei lotuago ikusten zuen hasieran bere burua, eta egun, aldiz, gizarte kritiko eta zuhur bat ahalbidetzeko balio duen literatura sortu nahi duela dio, helburu estetiko/artistikoak baztertu gabe.

Konpromiso literarioa hasieran lehenesten genuela esango nuke, nire belaunaldikoek. Esango nuke nik gehiago lehenesten nuela konpromiso literarioa orduan handik hamar urtera baino. Nire lehen liburuak hartzen badituzu, esaterako, 1994an idatzi nuen poema liburu bat, oso onirikoa, surrealista. Jazz tronpetista bati buruzkoa da ondorengoa, Euskal Herriarekin zerikusirik ez duena, abizena bakarrik euskalduna duena eta New Yorken bizi dena. [...] Egia da garaian bazegoela presio edo atmosfera gisako bat esaten zizuna: «ei, hiri nobela beltza gustatzen bazaik, zergatik ez duk idazten nobela beltz bat Euskal Herrian». Ez zen presioa, arnasten zen zerbait zen. Liburu horiek argitaratu ondoren komentatzen zizkidatelako halakoak.

Eta halako aipamenen aurrean, ezin demari eutsi gabe utzi.

Niri hor ateratzen zitzaidan demari eusteko gogoia. Desafioaren aurreko erreakzioa zen. [...] 1990eko hamarkadaren hasieran esango nuke oso jende gutxi arduratzen zela 'euskal gaiez' literaturan. Mikel Hernandez Abaitua eta... Ramon Saizarbitoriak orduan gutxi idazten zuen. Atxagak *Gizona bere bakardadean* atera zuenean nobedadea izan zen. Nik uste berak ere sentitu zuela hori: «oso ondo, baina non bizi zara?». Nik ere sentitu nuen interpelazio hori. Ez akaso hainbeste presio moduan, baina bai iruzkin bezala, edo komentario bezala... Hor zegoen. Kontzientzia hartu genuela esango nuke.

Inguruaren eraginez hartu zuen kontzientzia, beraz, eta inguruarekiko nolabaiteko 'konpromiso' horren ondorioz

hasi zen hori ere papereratzen. Interpelatuta sentitu zelako. Idazle batek, dioenez, ezin baitio inguruari ihes egin, ezta nahita ere: «Uste dut ez dela posible. Ni ez naiz gai izan. Nire sentsazioa da eskapismo ariketa houdiniano absolutua dela hori lortzea».

Gainera, idazleak ezinbestean behar du inguruari eta uanean unekoari adi. Horixe baita idazlearen benetako konpromisoa, dioenez: norbere garaia kontatzea.

Nik sentitzen dut erantzukizun bat bizi naizen garaiaren aldetik. Ez naizelako hortik kanpo bizi, salda horretan egosi naiz. Beraz, sentitzen naiz horrekin, ez horretan, kontaktuan, osmosian. Nik bai sinesten dut artista bakoitzaren erantzukizuna dela bere garaia kontatzea. Ez bere garaiari buruz idaztea, baizik egiten duenaren bidez bere garaia kontatzea, nahita edo nahi gabe.

Horregatik, idazleak badu gizartearekiko konpromiso hori, konpromiso soziala deituko duguna, estuki loturik dagoena gizarte kritiko eta zuhur bat sortzeko helburuarekin. Azken finean, bere inguruko eta garaiko auzi eta bizipenak papereratzeak berarekin dakarrelako kontzientzia hartze eta emate bat.

Idazlearen konpromiso politikoari buruz zehazki galdetzerakoan, berriz, idazlearen konpromiso sozialaren baitakotzat jotzen du Canok; hori ere ekidinezina, gure eguneroko ogi izan baitira auzi politikoak.

Hemen [Euskal Herrian] bazaude eta ari bazara 40 urtez egunero entzuten albistegietan, momentu batean edo bestean iruditzen zait saihestezina dela zuk zerorrek ulertzen ez duzun horri erantzun bat eman nahi izatea bitarteko literarioekin. Zerbait filtratzen da, zure garaiak eta zuk zerorrek ulertzen ez duzun gauzen beharra. Zure bizitzako momentu batena, nahiz eta zure bultzada primigenioa hori ez izan.

Horregatik, euskal gatazka nola literaturara ekarri, nola kontatu galdetzerakoan –kontatu behar bada–, idazlearen garai eta bizipenen baitakoa izango dela uste du Canok. Bere testuinguruaren arabera.

Gu [bere belaunaldia] hona iritsi ginenean, trena martxan zegoen. Txillardegi irakurtzean, esaterako, oso diferentea da, zuk sortu duzun istorio batez ari zarelako, zu barruan egon zarena. ETArrik gabeko gizarte batean jaio zen jendeak nola bizi izan zuen edo guk, horrek markatzen du erabat. [...] ETAk eragin du nire lanean? Bai, nire bibliografia hartzen baduzu, bai. Baina, bueltatzen naiz hasierara, badagoela desafio literariotik asko, gai horiei heldu nahi izatea, inguruan ditudan edo arnasten dudan eskaera horien erantzun batetik, eta, aldi berean, badagoela norbere kontzientzian eta bizipenetan filtratzen den historia biografikoaren faktorea. Biak dira. Baina, azkenean, nobelista batekin kontuz ibili behar duzu. Beti egingo du bere nobelaren alde.

Izan ere, idazleei ez dagokie euskal gatazkaren gaineko errelatua osatzea, Canoren ustez. Hau da, idazleak gaia landu dezake nahi badu, baina ez du horretarako berezko konpromiso edo betebeharririk.

Errelatu *ditxosozkoaren* kontura, idazleoi sinistarazi digute berez ez dugun erantzukizun bat dugula, ia termino notarialetan. [...] Kontua da sortu dela memoriaren industria bat, eta oso ondo gertatzen da idazle bat gonbidatzea horri buruz aritzeko. Gu joko horretan sartu gara, nahita edo nahi gabe. Nerea Arrutirekin [EHUko irakaslearekin] hitz egin nuen eta esan zidan Irlandako literatura garaikidean IRARI buruzko nobela guztiak oso transgresoreak direla; askatasun hori eman diote euren buruari. Hori izan omen da idazle irlandarren aportazioa, psikodelia. Ez hainbeste justifikazioa, barkamena, errua... Horretarako akademia eta kongresuak daude. Gu literatura egiteko gaude, jendea haserrearazteko, emozionatzeko edo gogorarazteko... [...] Egia da gauza batzuk kontatu ditzakegula fikzioaren maskarari esker. Beharbada hor bai ikusten dut aukera hori, literaturak batzuetan eragiten duela. Nik sinesten dut artearen gaitasun katartikoan. Baina, bizi izan dut gure lanaren ispilatze hori. Hau da, nobela bat idatzi duzu horri buruz, eta badirudi zure ardura dela berradiskidetzean parte hartzea. *Patria* bezalako nobela batek eragin duen harrabotsa garaipen bat bezala irakurtzea, adibidez, ba ez da. Nobela bati xaloki duena baino botere gehiago adjudikatzen zaio. Orain sinistarazi nahi digute literaturak duela egiaren pedigria. Eta literaturak ez du hori.

Horregatik, gatazkaren errelatua osatu behar izatearen konpromiso zehatz hori baztertu beharrekoa dela uste du Canok,

eta konpromiso sozialaren baitan soilik kokatzen den konpromiso politikoarekin egiten du bat, beti ere ez badu jardun literarioa oztopatzen.

Euskal idazleak, aitzitik, badu ihes egin ezin dion berezko konpromiso bat, dioenez: hizkuntzarekikoa. «Hori euskal idazle guztiok dugu gure DNAn». Horregatik, euskaraz idazteak berezko «kontzientzia estra bat» izatea esan nahi du, eta, ondorioz, baita bere kultura eta hizkuntza komunitate minorizatuarekikoa ere.

Erantzukizun hori are begi-bistakoagoa da euskal literatur sistematik kanpo:

Atzerrira joatean, onartu behar duzu ez zaudela zure buruari buruz hitz egiteko, ez batez ere, baizik zure komunitateari eta hizkuntzari buruz aritzeko; ordezkaria zara. Ez baduzu hori onartzen, edo hizkuntza aldatu edo ez bidaiatu, ze hori horrela da.

Euskal kulturaren eta komunitatearen neurri murriztak badu bere alde positiboa, dena den: merkatu arauetatik salbuago dagoelako euskal literatura.

Kriterio komertzialak ez dira gailentzen modu nabarmen batean. Generoetan ikusten da hori: baduzu ipuina, poesia... gure ipuin kantitatea urteko ez da normala. Munduko literaturetan ez da horrelakorik gertatzen. Eta horrek ahalbidetzen du zuk nahi duzuna idaztea. Zein da desabantaila? Ba ez dagoela euskal idazle Ferraridunik, eta, beraz, kultuzko idazle izatea edo bestselle-rrekoa izatea gurean ez da hain definitiboa. Are gehiago gurean zentroa eta periferia hain malgua denean. [...] Gure herrian bertan dugun ikusgarritasuna ere lanbroa da. Ez daukagu muskulu ekonomikorik produktu mailan –literatura doi-doi da errentagarria den produktu bat; dirua egin nahi duenak ez du argialetxe bat jartzen–. Gu radarretik kanpo gaude, onerako eta txarrerako.

Profesionalki idazle izateko zailtasun ekonomikoak dakartza horrek, eta enkarguak eta bestelako jarduerak behar ditu euskal idazleak profesionalki jardun nahi badu. Hala ere, egoera horrek sortzaile moduan askatasuna bermatzen diola azpimarratu du Canok, ez duelako zertan merkatura begira jardun behar, eta horrek autonomoagoa egiten du.

Hortaz, baldintza ekonomikoak oztopagarri izanagatik ere, sortzaile moduan askatzaileak ere badira. Hori dela eta, hizkuntza eta komunitatearekiko atxikimenduan, norberaren garaia kontatzeko konpromisoan ardaizen du Harkaitz Canok bere jardun literarioa, beti ere horrek eskaintzen dion autonomia literarioa alboratu gabe.

Eider Rodriguez, inguruaren taupada

Sortzeko grinak bultzatu zuen idazketara Eider Rodriguez. Unibertsitateko ikasketak amaitzen ari zela erabaki baitzuen sorkuntzaren esparruan egingo zuela lan, edozein diziplinatan zela ere, eta diru premiak bultzatuta irabazitako literatur lehia-ketek zabaldu zioten idazketarako bidea. Hortaz, Eider Rodriguezek ez zuen literaturarekiko bokazio edo grina zehatzik, baizik eta sorkuntza elikatzeke asmoz lotu zitzaion idazketari; idazlearen irudi idealizatu eta erreferentzial jakinik gabe.

Gainera, literatur sorkuntza beste jardunbideekin batera egin izanak, literatura bizi eta ulertzeko modua baldintzatu diolakoan da Rodriguez.

Lehen liburua argitaratu nuenerako mundu editorialean lanean ari nintzen, editore. Eta editore nengoela jarraitu nuen argitaratzen. Ez dut eduki idazle bizitza deitzen den hori. Beti egin dut hori beste zerbaiti lotua. [...] Beti joan naiz bazterretik egiten. Nire ibilbidearen bazter batetik jarraitu dut idazten, baina bazter hori ikaragarri inportantea izan da eta da nire bizitzan. Bide zentrala baino inportanteagoa da. [...] Joan naiz bultzadaka idazten, istorioak kontatu nahian. Sortu nahian. Beti daukat taupada hori.

Hori dela eta, dioenez, kosta egin zaio bere buruari idazlea dela aitortzea eta jendaurrean hala agertzea.

Hori izan da niretzako zailena. Joaten zarenean idazle bezala, batez ere jendeak ikusten zaituenean idazle bezala, kontraste hori. Zuk zure intimitatean eta zure barne mundutik ateratzen dituzun gauza batzuk pasatzen direnean –eta gainera, nahi duzu– kanpo mundura, hori kudeatzea niretzako izan da gauzarik zailenetako bat. Horrek eskatzen dituen barne gogoetak, posizioak...

Beraz, literatur sorkuntza intimitatearen esparruan kokatzen du Rodriguezek, sorkuntzaren bulkadari berari nola-baiteko autonomia aitortuz. Baina, horrek ez du esan nahi kontestutik aparte sortzen duenik, kontrara. Izan ere, Rodriguezen konpromisorik berariazkoena inguruarekikoa dela dio; inguruan gertatzen den hori literaturaren bidez iragaztea baita bere helburua.

Nik ez dut ulertzen literatura bat ez dagoena munduari lotua. Nik idazten dudan guztia dago bizi dudan eta bizi naizen mundu horri lotua. Kezka horiei, momentuko garaiko ardurei, bizipenei, nire ingurukoiei gertatzen zaizkienei... Horiek ekarri nahi ditut literaturara, edota urrutirago begira senti ditzakedanak edo pentsa ditzakedanak bilakatzen ditut, nahita edo nahigabe, literatur gai. [...] Uste dut nire pasioa, hain justu, taupada hori jaso eta ipuin bidez edo narratibaren bidez munduari moldatuta itzultzea dela. Ez dakit, bihotz moduko bat sortu, odol hori jaso kanpo mundutik, eta fikzioaren bidez garbituta baino aldatuta bidali nahi dut beste zain batetik mundura. Zirkuitu horretan ikusten dut nire burua, bihotz horren barruan lanean, beti ere kanpoari lotuta.

Testuinguruaren iragazle izatearen engaiamenduaz gain, hizkuntzarekiko konpromisoa ere bere egiten du Rodriguezek, euskaraz idazteak berarekin dakarrelako hizkuntza konpromiso jakin bat, dioenez.

Nirezat nire konpromisoa euskaraz ere idaztea da. Ez nioke betebeharra deituko. Edukiari begira baino, «hau idatzi beharko zenuke edo hori»... Hori ez, egin behar dudana da euskaraz idatzi, eta egiten dut. Idatzi dezagun euskaraz, irakurri dezagun euskaraz, eta gero norberak topatuko du bere errelatua, bere zera. Hori bada niretzako hautu ideologiko bat.

Konpromiso linguistiko horrek sorkuntzari berari eragiten diola ziur da. Euskararekin «borrokan» ibili ohi delako nahi duena nahi duen moduan esateko, dioenez. Baina borroka horrek ere askatasuna eskaintzen dio.

Euskaraz aukera pilo bat daude gauzak esateko edo nola esan asmatzeko. [...] Alde horretatik, nik askatasuna sentitzen dut; Euskaltzaindiak horrela esan arren, nik hau horrela esan dezakedalako. Hori ahal da oraindik. Horrek plazera ematen dit.

Euskaraz jarduteak, gainera, bestelako muga batzuk dakartza euskal literatur sistematik kanpo. Izan ere, atzerriko jaialdietara joaterakoan edo mahai-inguruetan parte hartzerakoan, literatura ez den beste gaietara buruz aritu behar izaten du: «euskal gatazkaz, ikastolez, torturaz»... eta horrek bere sorkuntzari 'itzal' egiten dio jendaurrean.

Konpromiso politikoari begira ere kritikoa da Rodriguez. Euskal literaturan desoreka egon delako konpromiso horren eraginez, bai gaien aldetik bai trataeraren aldetik ere; alderdikeria ere sumatu du zenbaitetan. Desoreka hori orekatzen ari dela uste du, ordea. Azken urteetako aldaketa soziopolitikoek bide berriak ahalbidetu dituztelako, dioenez.

Konpromiso politikoari begira kritikoa da Eider Rodriguez. Euskal literaturan desoreka egon delako konpromiso horren eraginez, bai gaien aldetik bai trataeraren aldetik ere

Korrante ideologiko batzuekiko [zegoen konpromisoa]. Ez hainbeste «EAJK hau dio eta hau esan behar dut», edo «ETA politiko-militarrak hau dio eta hau esango dut». Ez zen hainbeste hori. Baina goragoko instantziekiko leialtasun lauso batzuk zeuden. Hemen egon da joera bat banatzeko idazleak horrela. [...] Gizartea antolatze modua edo euskaldunok elkar ezagutzeko modua zen: hau polimilia da, hau ezker abertzalekoa, hau jeltzalea... nahiz eta horrek matiz asko zituela jakin. Eta horrek, nolabait, mugatu egiten zuen literatura. Ez zor bat zegoelako ETA politiko-militarrarekiko, edo Sabin Aranarekiko edo Txabi Etxebarriarekiko. Ez zetozen aginduak hortik. Baina jendartea administratzeko modu horrek ekarri zion idazleari ere bide estuago bat. Inkontzienteki bada ere. [...] Orain askoz likidoagoak dira garaiak, eta kezka politikoak ugaritu egin dira, zorionez. Aniztu egin dira.

Aldaketa hori ez du zuzenean lotzen ETAREN desagertzearekin. Bide hori urte batzuk arinago zabaltzen hasi zela uste du. Baina, era berean, ETAREN desagertzeak ekarri ditu aldaketak; berak ere sentitu dituenak, modu lausoan bada ere.

Nik pertsonalki ez dut hori sentitu, edo ez dut inoiz «hau ezin dut esan» edo «hau esan behar dut» modukorik sentitu. Nik kezka ideologiko *x* batzuk izan ditut, gainera, oso markatuak izan zitezkeenak edo identifikagarriak etiketen bidez. Baina, ez dut inoiz sentitu «hau idatzi behar dut» modukorik. [...] Nahiko libre aritu naiz, nahiz eta egia den azken urteetan... zaila zait esaten nola, zertan eta zergatik, baina... oraindik eta libreago sentitu naizela sorkuntzan. *Bihotz handiegia* idazten inoiz baino libreago sentitu naiz. [...] Nik uste dut, azken batean, gatazka armatua bukatu denetik aldatu direla gauza asko, baita gure artean ere. Eta hori munduari lotuta gauden momentutik ere pertzibitu egiten dugula. Arrazoitu gabe, baina pertzibitu. Eta aberatsa iruditzen zait.

Euskal gatazkari lotutako gaiak lantzeko modua ere aldatu da horregatik. Zabaltze moduko bat ikusi du.

Iruditzen zait, 2000. urtera arte gatazkari buruz idatzi diren gauza gehienak batez ere gizonak idatzi dituztela, eta izan direla idatziak gatazkaren zentroan zeuden pertsonaien ikuspegitik, edo pertsonaiei begira. Aldiz, 2000tik hona, gehiago idatzi da horri buruz gatazkari lotutako ahots berrietatik; bazterrean zeuden ahots diferenteek hartu dute tokia errelatuaren kontakizun horretan. Gatazkaren zentroan ez zeuden pertsonaien ahotsetatik edo horiei begira idatzi dira: haurren ikuspegitik, gatazkan parte hartutakoenetik, gatazkaren bueltan zeuden homosexualiei begira, emakumezkoiei begira... Hori ez zegoen lehenago. Alde horretatik, errelatuaren kontakizun politikoa poliedrikoa dela esango nuke.

Dena den, anzitasun hori ez du konpromiso politiko jakin batekin lotzen. Are gehiago, Rodriguezek uste du idazleek ez dutela zertan gatazkari buruz idatzi, alegia, ez dute zertan errelatuan parte hartu.

Ez dut sentitzen hori egiteko betebeharririk daukadanik, idazle bezala. Sorkuntza lana lotzen dut inkontzientea den parte batekin, eta betebeharrak ez du hor zentzu handirik. Bai sentitzen dut nahi bat idazteko gertatzen zaigunari buruz; gure mundutxoaz, nahi baduzu. Baina ez hainbeste tokatzen zaidalako, baizik nahi dudalako.

Hortaz, aldaketa soziopolitikoek eragin dute euskal literaturan eta baita bere jardun literarioan ere. Inoiz konpromiso

zehatz batetik abiatu ez izanagatik ere, inguruarekiko eta gai jakin batzuekiko lotzeko modu berriak ahalbidetu direlako, ‘askeagoak’ direnak.

Aldaketarik ez du sumatu, aldiz, baldintza ekonomikoetan. Idazle moduan profesionalizatu nahi duenak, enkarguzko lan asko onartu eta beste hainbat ekimenetan parte hartu behar duela ohartarazi du Rodriguezek. Berak ez du gustuko lan hori, eta unibertsitateko irakasle izatea hautatu du horregatik; nahi duenaz soilik idazteko. Bada muga, ordea, ez duela nahi bezainbeste denbora idazketara emana pasatzerik.

Hala eta guztiz ere, merkatutik kanpo aritzeak askatasuna ematen diola seguru dago. Rodriguezek ipuinak idazten ditu, besteak beste; hau da, merkatu logikan gutxietsia dagoen generoa. Eta, hala ere, badu modua bere irakurleengana ipuinekin iristeko eta onarpena jasotzeko. Ondorioz, sortzeko askatasuna bermatzen dio profesionalizatzeko muga ere baden merkatuarekiko euskal literaturaren nolabaiteko independentziak.

Hori guztia dela eta, laburbilduz, sortze bulkadari soilik aitortzen dio Rodriguezek nolabaiteko autonomia. Baina, bestela, inguruko kezka eta arazoei lotuta ikusten du bere burua; inguruaren ‘taupada’ jaso eta papereratzea baita Rodriguezen literatur helburua. Azken urteetako aldaketa soziopolitikoek, gainera, ahalbidetu dute zabaltze bat, berak ere sumatu duena eta politika bera ulertzeko beste moduen alde egin duena. Era berean, euskararekiko engaiamendua ezinbestekotzat du, euskaraz idaztea erabaki politikotzat jotzen baitu.

Kirmen Uribe, egia txikiekin konprometituta

Gaztedanik idazle izateko nahia izan arren, unibertsitate ikasketak bukatu ostean erabaki zuen Kirmen Uribek bere lehen liburua argitaratzea. Modu berezian, gainera: poesia eta musika uztartzen zituen *Bar Puerto* ikuskizunarekin aurkeztu zituen aurrena bere poemak jendaurrean, eta ondoren argitaratu zituen paperean. Irakurlearekin harreman zuzena

izatea garrantzitsua baita Uriberentzat, eta hori buruan zuela erabaki zuen ikuskizunaren «estrategia».

Hasieratik euskaraz idatziko zuela erabaki zuen, bere hizkuntza izaki, eta horrela ere izan behar duela pentsatzen du egun. Baina, ez du horregatik zertan bere hizkuntza komunitatera mugatu, dioenez. Itzulpenei esker, erdal irakurlearengana ere iritsi zaitezkeelako.

Garai hartan [hastapenean] kanpoko idazleak asko irakurtzen nituen, baina nire ereduak euskaldunak ziren. Helburua zen euskal idazle bihurtzea, pixkanaka. Eta hori oso polita izan da, apurka egitea. [...] Beti ametsa lehendabizi euskaraz publikatzea zen, eta gero irakurleekin harreman zuzena edukitzea, komunikatzea. [...] Nire kasuan kalitatezko literatura egin nahi dut euskaraz, hori da lehena. Eta gero, nahi duzu ahalik eta itzuliena izatea, eta ezagutaraztea. Beti dago joera hori.

Hori dela eta, itzulpenari aparteko lekua ematen dio Uribek. Euskal idazleek euren lana kanpoan ezagutzera emateko zubitatzat duelako, berarentzat oso garrantzitsua dena. Izan ere, euskal idazle orok sentitzen du bere lanen bidez euskara bera indartu eta ezagutzera emateko beharra, dioenez. Euskararekiko konpromisoa baitu Uribek, erdal hizkuntzekin harremanetan ulertzen duena.

Euskaraz idazten duen idazle batek idazten du hizkuntza hori indartzeko eta babesteko. Norbere hizkuntza delako, eta hizkuntza hori bigarren maila batean ere badagoelako. Hori argi dago. Gainera, aurreko belaunaldiarentzat eta ETako jendearentzat euskara, tresna bezala, gauza arrotza zen; ez zuten euskaraz idazten... gaztelaniaz edo frantsesez. Gure kasuan ez. Guk euskaraz ikasi genuen eta literatur lanak ere euskaraz irakurtzen genituen. Orduan, normalizatuagoa izan da gure ibilbidea. Baina, hala ere, ez da galdu euskararekiko konpromisoa. [...] Erantzukizuna ez dakit, baina ez dago euskal idazlerik pentsatzen duenik euskara egoera normalizatu batean dagoela eta idazten duena modu naturalean. Jarrera aktibo bat dago euskararen alde.

Euskal literatur sistematik kanpo, ordea, aurreiritzi asko daudela ziurtatzen du Uribek. 'Kristalezko sabai' baten

modukoa osatzen dute, eta horien kontra aritu behar izaten du kanpora irteten den aldiro.

Euskararekiko konpromisoa ez da sentitzen duen bakarra, aitzitik. Gizarte auziekin konprometitutako idazletzat du bere burua. Bere idazle belaunaldiari dagokion ezaugarria dela dio. Izan ere, hasieran autonomia literarioaren aldarriekin lerratu bazen ere, bestelako ikuspegi artistiko *lotuagoetara* gerturatu zen ondoren; bere belaunaldiko idazle anitzen gisan, dioenez.

Euskararekiko
konpromisoa ez
da Kirmen Uribek
sentitzen duen bakarra.
Gizarte auziekin
konprometitutako
idazletzat du bere burua

Nik bi ikuspegi nituen [hastapenean]: alde batetik, oso konprometitua nintzen nire bizitzan. Kartzelan egon nintzen intsumiso izateagatik, kontu sozialetan ibili nintzen.... Eta, bestetik, literatura gustatzen zitzaidan, literaturaren edertasun hori. Baina, gure belaunaldiarekin gertatzen da aldaketa bat, eta da Atxaga, Saizarbitoria... horien autonomia literario hori guk pixka bat 'pasatuta' ikusten dugula, beste era batera ikusten ditugu gauzak, eta berreskuratzen hasten gara gizartearekiko kezka hori. Irakurtzen baduzu *Bitartean heldu eskutik*, oso argi dago hori, eta besteak ere irakurtzen badituzu, argi dago berriro datorrela konpromisoarena. Baina mundu mailan gertatu den gauza bat da. Gaur egungo idazle, artista, zinegile, pentsalariak... askoz ere erreallitate *lotuago* daude duela hogeit hamar urte baino.

Konpromiso sozial batek ardazten du idazlearen obra Uriberen ustez, hortaz. Are gehiago gaur egungo kontestuan. Literatur sorkuntzak gizarte premia bati erantzuten diolako egun:

Politikariek orain gezurra erabiltzen dute etengabe. Sare sozialetan ere nonahi. Orduan, zein da idazlearen betebeharra? Egia bilatzea, eta egia hori da gizabanakoak bilatzen duen egia bat, ez egia handi bat: nola bizi da jendea? Nola sentitzen du? Egia txiki horiek, handiek baino pisu handiagoa dutenak, horiek azaldu nahi ditugu. [...] Garai honetan, egiak bilatu nahi dituzte idazle eta artistek, oro har. Edo filosofoek. Egiarantz jartzen dugu gure fokua.

Bere inguruari begira dagoen idazletzat deskribatzen du bere burua Uribek, «egia txiki» horiek papereratzea helburu duena. Idazle konprometitua da, hortaz.

Konpromiso politikoei buruz propio galdetuta, bestalde, konpromisoa bera ulertzeko modua aldatu dela dio. Izan ere, orain gutxi arte ideologia jakin batzuetara lotuta ulertu da konpromiso politikoa, dioenez; hala nola, komunismoarekin edo faxismoarekin, esaterako. Egun zaharkituta daude identifikazio horiek, Uriberen ustez, eta sortzaileak bestelako konpromisoetara egiten du balantza, konpromiso sozialagoetara.

Euskal gatazkaren errelatuari dagokionez, aldiz, begi onez ikusten du idazleen inplikazio zuzena, norberaren sortzaile ikuspegia eta pentsaera galdu ezean. Literaturaren funtzioetako bat hori ere badelako, dioenez: herri baten errelatua osatzea.

Nire ikuspegitik, idazle eta intelektual bat baliagarria izango da independentea bada. Ez du horrek esan nahi ekidistantea izan behar duenik. Zuk zure iritziak dituzu eta horiekin lagundu nahi duzu. Baina ez dira alderdiko iritziak. [...] Euskaldunok ez dugu historia ofizialik. Orain ari gara gure buruari kontatzen. Saturraraneko kartzela ez zekien jendeak existitu zenik ere, edo Iruñeko Ezkabakoa eta beste asko. Orain ari gara gauza horiek kontatzen, etxean kontatzen zen hori era publikoan. [...] Herri txikiek edo minorizatuek edo kolonizatuek ez dute historia ofizialik. Beraien historia egin behar dute, eta gu horretan ari gara. Idazleak ere parte hartzen du hor. [...] Nire burua ispiluan ikusteko gogo bat da: zergatik naiz horrelakoa, gure belaunaldia; zergatik gertatu da gertatu den guztia. Ez du esan nahi konpartitzen duzunik, baizik ulertu nahi duzula.

Azkenik, baldintza ekonomikoek ekarri ditzaketen bestelako konpromisoei buruz galdetuta, Uribek aitortu du ezinbestean lan egin behar duela enkarguz, eta itzulpenak oso lagungarriak direla idazlearen profesionalizazioa ahalbidetzeko. Bestela, ezingo luke euskal idazlea izan. Baldintza horiek, ordea, ez zaizkio sortzeko traba. Merkatu arauetatik kanpo dagoen literatur sistema batean aritzeak askatasun handia ematen diolako, dioenez, enkarguak enkargu.

Hori dela eta, Kirmen Uribek literatur autonomiaren plan-teamenduetatik urruti kokatzen du bere burua. Euskararekiko eta gizartearekiko bereziki konprometituta ulertzen du bere jardun literarioa, euskara indartzeko eta «egia txiki-tara» gerturatzeko tresnatzat duelako euskal literatura. Eta, era berean, komunitate nahiz herri baten errelatua sortzeko tresnatzat ere badu, idazleak bere egin dezakeena.

Norbere munduari lotzeko kontaktu

Hiruren hitzak gurutzatuz gero, beraz, idazle engaiatutzat dute euren burua, konpromiso artistiko, sozial eta kultural-linguistikoez zeharkatzen dutelako hiruren jardun literarioa. Izan ere, idazlearen funtzioa norberaren garai eta ingurua kontatzea dela defendatzen dute, zuzenean nahiz zeharka, norberaren hautu artistiko-estetikoa edozein izanik ere. Azken batean, parte den inguruarekiko hartu-emanetik sortzen duelako idazleak, parte den inguruarentzako.

Ikuspegi hori ez dute lehen momentutik izan, urteek aurrera egin ahala garatu dute. Hasiberriagoak zirenean, autonomia literarioarekin lotuagoa zegoen idazlearen irudia zuten erreferentziatzat, bereziki Canok eta Uribek. Hau da, gizartearekiko aparteago eta jardun literario estetikoan murgilduago zegoen idazlea zuten eredutzat; Atxaga eta Autonomia Literarioaren belaunaldia, hain justu. Inguruko itaunen zein norberaren esperientzien eta kezken eraginez, ordea, aldatu zuten ikuspegia. Baita jarduna ere. Hortaz, inguruan izandako gertakari eta bizipenen ondorioz gertatu zen ikuspegi aldaketa.

Horrek erakusten du autonomia literarioaren eta konpromisoaren eztabaida ez zela guztiz desagertu, oihartzuna apaldu arren. Alde batetik, ezinezkoa delako, idazleen hitzetan: sorkuntzan murgiltzen den orok bizi duelako konpromisoaren eta autonomiaren arteko balantzaren dantza. Eta, bestetik, 80ko hamarkadatik zetozen ikuspegiak erauziz birplanteatu zutelako eurena: konpromiso politiko konkretuei (Txillardegia)

zein autonomia literario hutsari (Atxaga) men egingo ez dien eta gizarte kezkei lotuagoa den ikuspegi dibertsifikatuagoa.

Izan ere, konpromiso politikoa ulertzeko eta eztabaidatzeko modua bera birdefinitzen ari dela diote, bereziki gertakari historiko eta soziopolitikoek hauspotuta. Alegia, ideologi korrante zehatzetatik landa, zer den politikoa eta zer ez ulertzeko modua eraldatu da, gaien eta ahotsen dibertsifikazioan sakonduz. Gainera, gizarte konpromisoaren baitan kokatzen dute konpromiso politikoa, bien arteko muga lausoa baitlitzan. Horregatik, politikotzat jo litezkeen gaiak ikuspegi sozialagoetatik lantzeko bidea zabaldu da, euren ustez –literaturaz gaindiko konpromiso politiko horien ondorioei bestelako begiekin begiratzeko modu bat dela pentsa liteke–. Beraz, konpromiso mota horren kokapena bera birformulatzan ari dela esan genezake, ez bada dagoeneko birformulatu.

Aldaketa horietan ETaren desagertzea mugarri izan ote den galdetzerakoan, ez dute lotura zuzenik egiten. Aurretik zetozen literatur jardunean eragingo zuten aldaketak, diotenez.

Hala ere, ETaren desagertzeak bere ondorioak izan ditu. Esaterako, idazketarako aukerak zabaldu direlakoan da Rodriguez. Horrenbestez, testuinguru soziopolitikoak iragazi da sortzaileengan, eta ‘ulertze nahi batetik’ abiatuta gerturaten dira literaturatik errealitate konkretu horretara,

Desados daude Euskal Herriaren eta euskal gatazkaren gaineko errelatuan idazleek izan behar duten parte hartze eta betebeharrarekin

ra, bere egunerokoaren/testuinguruaren parte izan delako.

Deigarria da, ordea, zein garbi posizionatzen diren errelatuaren aferaren aurrean, alde edo kontra izan. Izan ere, desados daude Euskal Herriaren eta euskal gatazkaren gaineko errelatuan idazleek izan behar duten parte hartze eta betebeharrarekin. Uriberentzat premiazkoa da fikzioaren bidez errelatua osatzea; Euskal Herriaren historia eta zapalketa kontuan izanik, euskal idazlearen funtzioetako bat hori

ere izan litekeelako. Rodriguezek eta Canok, aitzitik, errelatuarekiko inolako konpromisorik ez dutela berretsi dute, eta hori idazleei eskatzea lekuz kanpoko delakoan daude.

Jarrera horiek erakusten dute errelatuaren eztabaida bizi-bizi dagoela, eztabaida horren muinean izaki. Hori dela eta, autonomiaren eta konpromisoaren talka errelatuaren esparruan kokatzen dela esan genezake, edo bai behintzat eztabaidaren ertz nabarmen bat.

Gainera, talka hori ez da idazleen artean sortu, diotenez, baizik eta bestelako eragileen ondorioz jazo da, Canoren hitzetan; eragile horiek aitortu/ezarri baitiete idazleei errelatore rola. Kanpo indarren eragina ohikoa da literatur sistemetan eta horiei lotutako eztabaidetan,³ eta kasu honetan ere presente daudela azpimarratu beharko litzateke, autonomiaren eta konpromiso konkretu horren inguruko eztabaida bera hobeki kokatu eta neurriaz zein eraginaz jabetzeko.

Erabateko adostasuna dute hirurek, aldiz, euskararekiko engaiamenduan. Euskal idazle orok euskaraz idazteagatik sentitzen duen aurrekontzientziaren ondorioz, saihestezina den konpromisoa dela ziurtatu dute hirurek, hizkuntza gutxituetako literatur eremuetan ezinbestean presente dagoen auzia baita hizkuntzarena. Euskal kulturaren eta euskararen egoera baldintzagarria baita, bai sorkuntzari bai plazari begira, ikusi dugunez.

Dena den, euskaraz idazten duenaren aurrekontzientzia ez da norberetik soilik sortzen; edota sortu izanagatik ere, ez du idazlea zertan euskarara lotu behar. Horregatik, inguruaren eragina lagungarria gerta liteke hizkuntza-hautua errotzera-koan. Izan ere, Canoren eta Uriberen lehen urratsetan gakoa izan zen euskal ekosistemaren babes, bai idazten jarraitzeko, eta baita euskaraz idazten jarraitzeko ere. Zentzu horretan, gainera, bazuten euren burua non irudikatu: euskarazko idazleak ziren euren erreferenteak. Atxaga izan nahi zuen Canok, adibidez. Beraz, euskal idazle izatearen hautua egin zitekeela ikusi zuten gaztedanik –aurreko belaunaldietako askok ez bezala–, eta hautu horren aldeko jarrerak eta babesak

urratsak ematen jarraitzeko baliagarriak izan ziren. Alegia, euskararekiko kontzientzia izatetik konpromiso bihurtzeko bidean, inguruaren eragina garrantzitsua da.

Gainera, ondoren, euskal kulturarekiko eta euskararekiko konpromisoaren kontzientziaren kontzientzia ez izatea ia ezinezkoa dela dirudi. Bereziki euskal literatur sistematik kanpo kokatzean. Norberaren sorkuntzarena baino, euskal komunitatearen ordezkari moduan aritu behar izaten dutelako idazleek euskal literatur sistematik at, eta, gainera, euren lana estereotipatzen duten aurreiritziei aurre egiten. Ondorioz, euskal idazleei etengabe gogorarazten zaie euskal idazleak direla –*euskal* lehenengo, idazle gero–. Horregatik, ez dira harritzekoak Rodriguezen hitzak: euskaraz idaztea bada hautu politiko bat. Modu eta konpromiso bat, alegia. Posizionamendu ez hegemoniko batetik eta kontzientzia baten emaritik jardun behar izaten baitu euskal idazleak.

Horrek ez du esan nahi idazlearen autonomia literarioa erabat mugatuta dagoenik. Euskal literaturaren eremuaren ‘txikitasunak’ badituelako zenbait abantaila autonomiari bide emateko. Egia da sorkuntza bera modu jakin batean bideratu lezakeela egoera horrek: «kalitate handiago» baten nahira bultzatzen du Uribe, alegia, literatura mota bat egitera, edo hizkuntzaren moldeekin jokatzera behartzen du Rodriguez, mugatzaile bezain askatzailea zaiona. Egia ere bada euskal literatur sistemaren neurri ekonomikoek enkarguz lan egitera behartzen dituela Cano eta Uribe, norberaren autonomia eta sorkuntzarako denbora mugatuz, eta baldintza horrek ere bideratu du Rodriguez irakaskuntzara, berak nahi duen hori idatzi ahal izateko. Baina, hala eta guztiz ere, baldintza horiek ez dute sormenerako askatasuna murrizten. Azken batean, euskal literatur sistemaren egoerak kontzientzia komertzial murriztagoarekin jardutea ahalbidetzen du. Beste hitzetan esanda: merkatu arauetatik kanpo dagoen literatur sistema batean jarduteak autonomia handiagoa eskaintzen die, bai generoa aukeratzera, baita gaiak eta ildo estetikoak hautatzera ere.

Hori dela eta, Cano, Rodriguez eta Uriberen jarduna ikuspegi sozialago baten aldeko konpromisoan kokatzen dela esan genezake, sortzaile moduan inguruarekin harreman-tzeko ulerkerak jakin baten ondorioz sortu dena; euskararen eta euskal literaturaren errealitateak baldintzatu duena, baita gertatutako aldaketa soziopolitikoek eta norberaren bizipenek ere. Hori dela eta, euskal kulturarekiko konpromisoarekin gertatu ez bezala, lausoagoa da egun literaturarekiko konpromiso politikoa ulertzeko era zein autonomia literarioa bera ulertzeko modua ere –erabateko autonomia izatea ia ezinezkoa dela uste baitute aztertutako idazleek–. Hala ere, eztabaidak bizirik jarraitzen du, orain errelatuaren auzian katramilatuta eta idazleez gaindiko bestelako aktoreek ere eraginda. Azken batean, garaiaren eta testuinguruaren hartu-emanen sortzen baita literatura, eta, ondorioz, garaiko kezken, isiltasunen eta talken isla da eztabaida. Literatura bera garaiaren eta inguruaren parte delako. 📖

Oharrak

1. Bernardo Atxaga buru, Pott Bandaren bueltan ibilitako idazle belau-naldiak literaturaren autonomia defendatu zuen, Mari Jose Olaziregi literatura aditu eta irakaslearen hitzei jarraiki.
2. UOC unibertsitaterako 2019an egindako *Escribir en euskera, ¿un ejercicio exclusivamente literario?* (Euskaraz idatzi, jardun literario hutsa?) master amaierako lanean dago oinarrituta artikulua.
3. Pierre Bourdieu soziologoak indar heteronomo gisa izendatu zituenak literatur eremuen teorian.

EGUNEN GURPILEAN

99 Kultura

Hamarkada berri baterako hitzak
Artisten mundua
«Ez da gure hautua»
Itziar Ugarte Irizar

105 Soziolinguistika

Arnas eta ardatzak periferian
Egurtutako hizkuntzen hiztun berriak
Ordena soziolinguistikoa aldatzen
duten subjektuak
Geroa zizel, giroa pizten
Erdigune eta ertzetako zizelkariak
Jaime Altuna Ramirez

112 Glokalia

Eskerrak jaio ginen!
Alba Garmendia Castaños



Kultura

Itziar Ugarte Irizar

Hamarkada berri baterako hitzak

Ez dakit zeini irakurri nion, baina bizpahiru bider borobilduta daukat koadernoan: kultura ekintza kritikoaren aktibatzailea da.

Hamarkada berri baten zirimolan sartu gara: badatoz eta badoaz bueltan egun berriak. Aldatu ditugu eskuz hormetako egutegiak, eta digitalki eguneratu zaizkigu beste guztiak inguratzen gaituzten gailuetan. 2020. Eta badoa aurrera. Guri arrotza bazaigu zifra, ez dut jakin nahi zenbatera arte ondo-ko zenbaiti. Entzuterik ere ez duela gura esaten du gertuko batek; bera 1936an jaio zen.

Unai Elorriagak esaten zuen aurrekoan, *Iturria* bere nobela berriko protagonistak berriz adineko pertsonak direla-eta, uste duela familian kide zahar ugariz inguratuta hazi izanak eragina izan dezakeela bai hautu horretan eta bai literatur zaleterakoan ere. «Nire aitona-amona guztiak XIX. mendean jaio ziren», esan zuen; aitzitik, bere ikasle guztiak XXI. mendean jaio direla. Gogoeta hari hau utzi zuen haietaz aritzean:

Nire oraingo ikasleak 2002 inguruan jaio dira, eta eurentzako XX. mendea ez da existitzen. «Gu ez ginen jaio; beraz, ez da interesgarria». XXI. mendekoak dira erabat. XX. mendea da entelekia bat ez dutena ulertzen, eta ez zaiena inondik inora interesatzen. Eta harritzen nau. Egun gazte askok duten tristeena jakin-min falta hori da. Niri asko interesatzen zitzaidan nire aurreko sasoia, nondik natorren jakiteko: zer gertatu den hemen, gerra bat, haren ondorioak, nola ikusten duen heriotza 90 urteko batek...

Xabier Gantzarainek heldu zion hariari *Berria*-ko *Lauhazka*-n. Beste koska bat gora egin duen mende hau ulertzen

saiatzeko nagiaz mintzo zen, agian, ankerrena gogo falta hori dela iritzita. Baina esan dezala berak:

Eta pentsatu nuen beharbada horixe dela tristeena, gaina hartzen ari zaidan jakin-min falta hau, XXI. mendea ulertzen saiatzeko nagia, nire sasoi pasatu zela eta orain munduaren zama, eta munduaren ederra, beste batzuei tokatzen zaiela sentitzea batzuetan, inor liluratzeko ez duen eskapismo baterako tentazioa gailentzea geroz eta gehiagotan, neure garaiari eta bizi naizen tokiari bizkarra emanda bizitzeko aukera aintzat hartzen hastea, egunean hiruzpalau aldiz, beste garai batean, beste leku batean, ahal bada hemendik urruti.

Aurrerago ohartarazten du baietz, jende gehiena bizi dela horrela, nork bere neurrira eraikitako mundu batean, eta mundu hori zalantzan jar dezakeen oro bazter utzita. Erne hitzokin:

Gutxiago, askoz gutxiago irakurtzen dudanetik, mundua lauagoa bihurtu zait, ertzak galdu ditu, dentsitatea galdu du, gorputza galdu du, denbora galdu du: neurrira egindako eguneroko errealitatea besterik ez daukat orain.

Irudipena baitut ez dela berari buruz ari. Pertsona aldatu, eta funtzionatzen segitzen du: «Gutxiago, askoz gutxiago irakurtzen dugunetik, mundua lauagoa bihurtu zaigu, ertzak galdu ditu, dentsitatea galdu du, gorputza galdu du, denbora galdu du: neurrira egindako eguneroko errealitatea besterik ez daukagu orain».

Artisten mundua

Irakurketaz ari ginen, baina artera egin dezakegu jauzi. Aldizkari honen aurreko zenbakian Gantzarainek berak irmo idatzi baitzuen, tonu etsiz, onar dezagula, inork ez duela hitz egiten arteaz, inori ez zaiola axola nola ikusten duten artistek mundua.

Horrekin gogoratu nintzen Madrilgo Reina Sofia Museo Nazionalean *Demokraziaren poetikak*. *Trantsizioko irudiak eta*

kontrairudiak erakusketa bisitatzean. Historiografia ofizialetik kanpo utzitako 1970eko hamarkadako esperientzia artistikoak aldarrikatzea da proposamena, estatu espainiarraren barrukoak aintzat hartuta. Estetika eta praktika berriak erakusten ditu, fase historiko berrian boterean segitu nahi zuen logika frankista irauli nahi zutenak, bakoitzak bere moldez. 1976ko Veneziako Bienalarekin abiatzen da erakusketaren kontakizuna, komisarioen arabera, «gertaera artistiko bat» izan baitzen hura, momentu hartako arte antifrankistaren diskurtsoa bildu zuen gertaera artistiko bat. Historialari ofizial ugari 40 urteko diktadura militarretik *demokraziarako* trantsizio unea kontsentsuak ezaugarritu zuen fasetzat definitu badute ere, hortik urrun, desenkontruetik eta kontraesanek zeharkatutako garaia izan zela irakur daiteke hormetan, zeinak gaur egunera arte irauten duen, agerikoa denez.

Testuinguru horretan, baina, hara non topo egin genuen euskal artisten lanekin, eta haien orduko eskakizunen berri zekarren *El País*-eko artikulu batekin. 1976ko abuztuaren 3a. Titularra: «Euskal Herria presente egongo da Veneziako Bienalean». Hurbildu ginen kristalera ahal beste, eta jakin genuen urte hartako bienalean *arazoak* izan zirela euskal artistekin.

Ibarrolak, Oteizak eta Txillidak gonbidapena jaso zuten euren lana *40 urteko borroka antifrankista* erakusketan ikusgai jartzeko, Veneziako Bienalean izango zen ordezkari-tza espainiarraren barruan. Azken biek, ordea, haien lana ezin zela euskal kontestutik kanpo eman eta euskal artistek errepresentazio propioa behar zutela erantzun zuten; «are gehiago, kontuan izanda euren aparteko parte hartzea frankismoaren aurkako borrokan», zekarren egunkari mozketak. Kasua aztertzeke batzorde bat sortu zuten, bienaleko ordezkariak euskal erakundeekin ere jarri ziren harremanetan, baina ez omen zuten behar adinako interesik agertu. Euskal artistek bazterketa salatuko dute azkenean, eta artista italiarrak izango dira euren pabiloiaren parte bat haiei uzteko prest agertuko direnak. Euskal Herriko artista batzuek ikurrin soil bat jartzea proposatuko dute, bazterketaren sinbolo modura.

Artikuluaren ondoan *Ikimilikiliklik*-en kartela, eta ondoan beste bat, zuri gorri berdea, *Euskadi en la bienal 76*, eta han izen ezagunak: Laboa, Zabala, Sistiaga, Basterretxea, Larrukert...

Eta ikusten ditugu elkarren harridura aurpegiak. Ez genuen ezagutzen pasarte hau. Eta onartzen duzu zuk ere nahi baino urrunago duzula maiz artea, nori hasiko zara orain errua zamatzan, eta onartzen baietz, hor dagoela jakin nahi duenarentzat, eta aztarrika hasiz gero, iristen dela bat jakitera. Nekagarria den arren, eta bidegabea, esaten hasita. Bestela, esan nola bilatuko dugun gaurkoa.

Horregatik eragiten du poza Gasteizko Artium museoan sumatzen hasi den ildo aldaketak. Beatriz Herraek da zuzendari berria, lekukoa Daniel Castillejori hartuta, eta, aurrekoan Garazi Ansa kritikariak ohartarazi zuenez, denbora bat igaro den arren Herraek kargua hartu duenetik, badirudi aurten hasiko direla atzematen aldaketak. XX. eta XXI. mendeko euskal artista askoren lanak barnebiltzen ditu museoaren funtsak, eta horien bidetik euskal artearen kartografia berrian «eragile aktiboa» izan nahi dutela dio zuzendariak. Ansaren hitzei segituta, museoaren izen ofizialean agertzen den «euskalduntasunean» azpimarra jartzea da Herraeken lan taldearen asmoetako bat –Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa baita Artium izen osoz–. Elena Mendizabalen erakusketa izan zen lehena, urtarriletik Juan Luis Morazaren lanak daude bisitagai, Gema Intxaustirenak ere bai orain –bidenabar, emakume artisten lanei zor zaien ikusgarritasuna borrokatzeko erronka ere badu-eta Herraek–. Baita erakusketa ireki bat ere, 1997tik 2002 arteko euskal artisten obrak hartzen dituen, eta eraldatuz joan asmo duena: *Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian*.

«Ez da gure hautua»

Ezagutza premia baita. Ezer berririk ez, eta halere beti lilura eta beti kolpea. Belen Gopeguik berretsi du, *Ella pisó la*

luna izeneko liburuan. Madrilgo ziklo baterako idatzi zuen testu bat jaso du bertan; artearen, pentsamenduaren zein zientziaren historia nola kontatu zaigun jarri nahi izan zuten zalantzan jardunaldi haietan, eta Maisutik Maisura harilkatuz joan diren historiaren zuloak bistaratu.

Margarita Duránen inguruan ari da Gopegui testuan, bere amaren inguruan. Aita astrofisikari famatua du idazleak, eta haren itzalpean sekula galdetu ez dioten andrearen inguruan doa idatzia. Eta harago doa, beraz; jaso ez diren bizitza horien auzira. Testu soila da, eta zoragarria:

Ehunka milaka emakumeren bizitzak daude ez soilik kontatua izatea merezi dutenak, ezpada borrokatu behar dugunak kontatuak izan daitezten; egiturei irabaztea ditugun istorioen menpe ere bai baitago. Ez da soilik polita litzatekeela edo interesgarria horiek kontatzea, kontua da haien beharra dugula ulertzeko gertatzen ari zaiguna.

Eta egia esan, ari gara. Hemen eta han, jendea ari da lanean. Joserra Senperenak ere arrazoi du sortzaileak negarrez entzuteaz nekatuta dagoela dioenean, arrazoiak ulertu eta konpartitu arren, berak euren sormen lanaz entzun nahi diela esaten duenean.

Argia-ren aste honetakoa irakurri dut gaur, 2.675. zenbakia. Edurne Azkarateren eta Oier Zuñigaren elkarrizketak dakartza, eta euren lanarekiko erakusten duten konfiantzak baretu ere egin ditzake kezkak. Bi azpimarra, hamarraldi berriak ekartzeko duenari gogoz itxaroteko. Azkarate lehenengo, eta Zuñiga ondotik:

Ondo legoke gure belaunaldiari begira, ikusita zer datorkigun, guk ere gure publikoa sortzeko lana hartzea. Haiek badute haie-na [*Zaldi urdina* antzezlaneko konpainiek], hogeituroko lana eta gero. Baina horrek transmisio bat behar du. Batetik, guk naturalki ogibidean egingo duguna, edo egiten ari garena. Baina, bestetik, publikoan ere oso zaila den transmisioa eman behar da. Hori ez da lehentasuntzat jotzen, baina bada.

Motxila eta itzal bat baditugu, eta hori ezagutzea eta presente izatea oso inportantea da. Nik duela gutxi berrirakurri dut Otei-

za, eta bat-batean, ikusten dituzu ideia batzuk gaindituta egon daitezkeela, baina beste batzuek erabateko gaurkotasuna dutela, nahiari eta bulkadari dagokionean. Uste dut oso inportantea dela jakitea nondik gatozen, hori ere bagara; zalantzan jartzen dudana da hori bakarrik ote garen.

P.D. Gantzarainenari berez lotzen zaion Azkarateren hau, ez kasualitatez:

Nik lehen gehiago irakurtzen nuen. Orain ordu eta erdi duzunean, pelikula bat ikusi beharrean ikusten dituzu cup-cake batzuk, aerobik saio bat, zeinek surfeatu duen olatu erraldoi bat, zure ezagun urrunek zer egin duten, ea paseo bat eman dioten txakurrari... Gure denbora pixka bat aberastu behar dugu. Tontotzen ari gara. Eta ondo iruditzen zait, eskubidea daukagu, baina makabroena da ez dela gure hautua. Hala saldu digute, baina ez da gure hautua. 🍷



Soziolinguistika

Jaime Altuna Ramirez

Arnas eta ardatzak periferian

Ezaguna da Sustrai Colinak 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian botatako bukaerako agurra. Hainbat kolektibo, sorlekua duen Urruña eta bizi den Iruña aipatu ondoren, honela amaitu zuen:

Euskal Herria gelditu
ez dadin euskal erdian
bila ditzagun arnas ta
ardatzak periferian.

Aldiriko arnas bizigarri horren lagin polita eskaini digu Topatu.eus gazte proiektu komunikatiboak *Zizelkariak* izeneko dokumentalarekin. Euskal Herriko periferia erdigunera ekartzeara helburu duen filmak gure geografiaren ertzetan hainbat mugimendutan lanean ari diren sei gazteri ahotsa ematen die.

Dokumentalak adierazten digu lur egurtua dela gurea, eta sei gazte euskaldun horiek, ertzetako lur egurtuan jaio eta hazitakoak, arrotz sentitu izan direla kontatzen digute. Tuterako mugimendu feministako kidea den Edurne Sanchezek euskaraz hitz egiteaz lotsatzen zela aipatzen du. Euskaraz hitz egiteagatik oso markatua sentitu izan dela, eta euskaldun gisa jasaten zuen zapalkuntza horretatik bizi izan zuela feminismoaren beharra. Martta Irigoien gazteak dantza eta antzezpenarekin gorpuzten du euskara Amikuzen. Gazteek modu kolektiboan euskara Nafarroa Behereko paisaian gorpuzten dute libertimenduaren bidez, eta, Irigoien ustez, oso garrantzitsua da gorputza plazara eramatea euskaraz sortu den zerbaiten bidez. Irunberriko gazte musikaria den Ibai Osinagak ere euskaraz abestea hautu politiko gisa hartzen du.

Antzera mintzo dira Maika Alfaro, Jon Maruri eta Arkaitz Lopez: despopulatzeaz, prekaritateaz, etxe hutsen arazoaz, langabeziaz, turismoaren arriskuez... Alduden, Ezkerraldean, Arabar Errioxan, Amikuzen, Irunberrin edo Erriberan bi-zi duten errealitate soziopolitikoa aldatu nahi duten euskal hiztun gazteak dira.

Sei ertz, sei ahots, sei borroka. Lur egurtuan jaio eta zizel-kari bihurtu diren sei gazte.

Egurtutako hizkuntzen hiztun berriak

Lur eta hizkuntza egurtua da gurea. Eta gurea bezala, milaka dira munduan txikiagotu eta txikitutako mintzoak. Horietako lau agertzen zaizkigu duela gutxi argitaratutako *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español* liburuan: euskara, katalana, galegoa eta aragoiera. Fernando Ramallo, Estibaliz Amorrortu eta Maite Puigdevall-ek koordinatu duten liburuan, gutxiagotutako hizkuntzen inguruan hausnarketa egiten da *hiztun berrien* perspektiba oinarri hartuta. Honela definitzen dute liburuaren sarreran minorizatutako hizkuntza baten hiztun berria:

Hasierako hizkuntza beste bat duten pertsonak, baina beren bizitzako uneren batean, normalean beste aldaketa pertsonal eta/edo sozial batzuekin lotuta, hizkuntza-praxia aldatu eta beren hizkuntza-errepertorioan bigarren hizkuntza hori sartzeko erabakia hartzen dutenak, soilik edo nagusiki hizkuntza gutxiagotuan ari-izteko edo zenbait espazio zehatzetan erabiltzeko.

XXI. mendeko bigarren hamarkadan, hiztun berrien profilen ikerketa arloak garapen interesgarria izan du. Euskal Herrian azpimarratzekoak dira Ane Ortega, Estibalitz Amorrortu eta Jone Goirigolzarrik egindako ikerketak. Katalunian eta Galizian ere lan aipagarriak egin dituzte eta, gainera, lurralde horietako azterketak eta Europako beste hainbatekoak elkarbanatzeko foroak eta proiektuak sortu dira.

Hain zuzen, aipatutako liburuaren helburua da hiztun berriari buruzko azken urteetako ikerketen emaitzak zabaltzea espezialista ez den publikoaren artean. Ramallo, Amorrortu eta Puigdevallen ustez, subjektu horren bidez aldaketa garrantzitsuak gertatu dira hizkuntza minorizatuen orainaldia eta etorkizun hurbila ulertzeko, baita hizkuntza gutxitu horien subjektu legitimoei buruzko gizarte-irudikapen berriak ere.

Argitalpenarekin, hiztun berri horiek nortzuk diren arakatu, ulertu eta erakutsi nahi izan dute. Baina etorkizunean ere jarri dute begirada, indarberritze prozesuetan berebiziko garrantzia baitu hiztun berrien kopurua handitzeak; horretarako bi erronka daudela azpimarratu dute: hizkuntzen ezagutza eta erabileren aktibazioa. Horri begira, liburuan idazten duten hamalau egileen idazlanetan bi oinarritzko elementuren garrantzia errepikatzen da: hizkuntza ideologiak eta harremanetarako espazioak.

Ordena soziolinguistikoa aldatzen duten subjektuak

Hiztun berriek gizartean ezarritako hizkuntza egitura aldatzen dute. Hala gertatu zen Euskal Herrian joan den mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan euskaltegietan euskaldundu ziren *euskaldun berri* guztiekin. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* belaunaldikoak ziren, herriko jaietako bertsolarien hitzak ulertzen ez zituztenak eta traktorean arratsalde osoa bueltaka aritu behar zutenak motorra nola itzaltzen zen ez zekitelako.

Euskaldun berri haiek ekarri zuten euskal hiztunari ordura arte zegokion profil eta kokapen sozialean berrikuntza, eta esango nuke, azken lau hamarkadetan eskolaren bidez euskaldundu diren hiztun berri gazteen kasuan, antzeko zerbait gertatu dela. Figura berri horren bidez euskaldun izateari egotzi izan zaizkion zenbait ezaugarri aldatu eta aldatzen ari dira. Garapen eta aldaketa horietan hizkuntza ideologiak daude eta, oinarri-oinarrian, galdera bat dago: nor da hizkuntza komunitate batean hiztuna den subjektua?

Itaun horri lotuta, beste hauek ere bota ditzakegu: nork dauka hizkuntza hori hitz egiteko autoritatea? Nork ematen du autoritate hori? Nola egin aurre autoritate eta arau horiei? Zer ondorio ditu aurre egite horrek?

Ziur aski, azken hilabeteetan gurean berpiztu diren hainbat eztabaidak lotura zuzena dute hiztun berri horri ematen zaion autoritate edo legitimitatearekin. Fernando Ramallo soziolinguista galziarrak dio hiztun berria ez dela erabat onartua «subjektu problematizatzailea izateaz gain, subjektu problematikoa ere badelako, espazio soziolinguistikoan bere tokia bilatzen jarraitzen duena». Euskal Herrian bezala, antzeko egoera duten tokietan errepikatzen den kontua da: *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español* liburuko kapitulu guztietan agertzen da hiztun berrien legitimazioaren auzia. Deigarria da ikustea, adibidez, Goirigolzarri, Amorrortu eta Ortegak jasotako hiztun berrien ahotsek («erabiltzen dut hizkuntza *artifizial* ematen du, *liburukoa*» edo «batuera erabiltzen baduzu zara *como un guiri*») antz handia dutela Vigoko *neofalante*-en bizipenekin:

Para min o maior obstáculo non é desenvolver a lingua, é a xente que pon límites á nosa lingua. E iso é o problema, que podemos atopar os neofalantes, alguén que te mira é que di: «buá, é que o teu galego é unha lingua de libro» (Niretzat oztoporik handiena ez da hizkuntza garatzea, gure hizkuntzari mugak jartzen dizkion jendea baizik. Eta hori da hiztun berrien arazoa, begiratzen dizun norbait eta esaten dizuna: «*bua*, zure galiziera liburu-hizkuntza da»).

Hain zuzen, Miren Artetxek berriki aurkeztu duen tesian (*Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak*), bertso munduan sozializatzen diren hiztun berrien legitimitatearen inguruko oso hausnarketa interesgarriak luzatzen dizkigu. Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletan jasotakoaren arabera, espazio horiek oso aproposak dira euskaldun gisa legitimatzeko. Baina, era berean, bertso munduan gertatzen da halako deslegitimazioa ‘sortzez’ edo ‘familiaz’ euskaldun ez diren edo itxura hori ematen ez duten horiengan.

Artetxe egoera horrek sortzen duen legitimitatearen gurpil zoroa eteteko beharraz mintzo da, eta uste du egungo bertsolaritzak eta bertso-eskolek aukera onak eskain ditzaketela auzi hori gainditzeko.

Izan ere, etxekoa edo eskolakoa, zaharra edo berria, euskalkia edo batua, *goxua* edo modernoa bezalako dikotomiak praktikan leuntzen ari diren garaiotan, zenbait eztabaida publikotan erdiguneko hiztunak eta aldirikoak bereizi nahian, traktorearekin bueltaka jarraitzen dugula ematen du.

Soroan gurpil zoroan jarraitzen dugu traktorea nola gelditu jakin gabe.

Geroa zizel, giroa pizten

Baztan ere aldirikotzat hartzen dugu hiri eremu inguruetan bizi garenok. Maite ditugu bere bazterrak, baina lanbroak ezkutatzen dizkigu periferia horretako bizilagunak. Zorionez, batzuk ez daude zain egoteko prest, eta (*H*)*ilbeltza* moduko ekimenak antolatzen dituzte. Lur egurtua baita gurea, baina ez sortzeko gaitasunik gabekoa.

Euskal Nobela Beltzaren Astea errotuta dagoen jaialdia da. Ez zen bertan goxo geratzeko asmoarekin sortu, eta urtero Euskal Herri osoko literaturzaleei Baztanera gerturatzeko deia egiten diete. Erantzuna primerakoa izaten da, eta aurtengoan ilbeltzeko azken asteburuan bertaratu ginenon artean hizketagai eta hizkera ugari elkarbanatu genituen. Antolataile taldeko Aitziber Zapiainen hitzetan:

Komunitatea egitea garrantzitsua da, euskaldunak Baztanera etortzea eta bertakoekin egotea, bertako jendea ezagutzea, hitz egitea...

Zinemari buruzko solasaldiak, liburu aurkezpenak eta idazleei buruzko solasaldiak. Egiatzko gertakari ilunen inguruko mahai inguruak eta heriotza-balada zaharrei buruzko erakusketak. Gau lanean oinarritutako mendi irteera eta susmagarrien gaua. Ikasteko, solastatzeko eta jolasteko

tarte polita. Zapiainek *Berria*-n egindako elkarrizketa batean azpimarratzen zuen denon artean egindako ekimena dela:

Guk zerbait eskaini nahi dugu, bat izan nahi dugu, taldekide izan nahi dugu denok: harremanak zaintzea, jendeari bere lekua eskaintzea, denok dugu zerbait eskaintzeko. Hori aldarrikatzen dugu, (H)ilbeltza egitera joatea, (H)ilbeltza izatea denok, denok denontzako egina izatea.

Baina denok denontzat egiteko, ezinbestekoa da gune hori sortzeko ahalegina egiten duten horien lana. *Geroa zizel, giroa pizten* abesten du Olatz Salvadorrek *Zizelkariak* dokumentalerako egindako abestian. Baztanen badira giroa pizten duten zizelkari onak.

Erdigune eta ertzetako zizelkariak

Bidasoa sortzen den Baztanera joan aitzin, *Zizelkariak* dokumentala ikusten izan ginen Bidasoa itsasoarekin bat egiten duen Hondarribiko Gaztetxean. Ainara Conde eta Maddi Ane Txoperena lesakarrak azaldu ziguten ikus-entzunezko horren ekoizpen prozesua. Solasaldi interesgarria sortu zen bertaratu ginenon artean, eta erdiguneaz eta periferiaz hausnarrean egin nuen Baztanerako bidea. Filmean agertzen diren Tuteran, Amikuze edo Ezkerraldeko gazteak ‘euskararen periferia geografikoan’ erraz kokatzen ditugu. Baita Maule, Gasteiz edo Balmasedakoak ere. Oiartzun, Orio eta Usurbil, ordea, erdigunean kokatuko genituzke. Baina, non ipiniko genuke horien ondoan dagoen Donostia? Gipuzkoako hiriburua erdigune al da? Ba al dago benetan euskal erdigunerik? Nor da erdigunea? Euskaraz aritu nahi dugun guztiok ez al gara nahiko periferia?

Ziur aski, galdera horien erantzunek ez dute horrenbesteko garrantzirik. Erdigunea eta ertza non kokatzen dugun baino, hiztun berri nor den eta noiz arte den baino, euskaraz lasai, lotsarik gabe eta lotsagabe egiten duten hiztunak behar ditugu. Denon ekarpena ezinbestekoa baita.

Gorka Urbizuk aldizkari honen azken zenbakian idatzi zuen euskarazko musikak entzule aktiboak behar dituela, eta horretarako denetik behar duela: ertza eta ertza ez dena. Euskara indarberritze prozesuan ere hori da behar duguna: hitzun aktiboak diren zizelkariak, ertza direnak eta ez direnak, berriak eta berriak ez direnak.

Baita Sustrai Colinak bertsoan aipatzen zituen *etiketen trajedian kabitzen ez direnak* ere. 🍷



Glokalia

Alba Garmendia Castaños

Eskerrak jaio ginen!

Amildegiairen efektua du gorputzak batzuetan: erakarri egiten du, eta aldaratu. Onintza Enbeitak *Berria*-ko *Bira* atalean esan zuen jada badakiguna: «balio estetiko soiletara kondenuatu dugu eta zigortu egiten dugu [gorputza]. Ez zaigu gus-tatzen. [...] [B]eti badugu zerbait geure gorputzaren kontra» (2020-01-19). Imitaziozko urrez apaindutako kartzela, ordea, hori baino gehiago da eta esan gabe zenbat gauza adierazten dituen gogorarazten zigun; kasu gehiago egin beharko genio-keela. Baina urreak erakartzen gaitu, gorputz gordinek eta egiazkoek adina akaso, eta azken horiei hala ere uko.

Bada margolan bat amildegiairen efektu horixe oroitaraz-ten duena: *Laino itsasoaren gainean alderrai*, Caspar David Friedrich margolari erromantikoarena. Gizon bat bizkarrez arroka batzuen gainean, itsaso haserreari begira. Bere gorputza botako ote du? Edo enbataren handitasunarekin bat egin nahian ote dabil hari so? Itsaslabarrari zerbait ikusiko zion Immanuel Kantek ere, naturaren fenomenoaren aurreko halako sentimenduz idatzi zuen eta. Berak esana da sublimea ez dela soilik atsegin dugun hori, terrorea –edo beldurra, malenkonia, harridura– ere sortzen digun sentimendua baizik. Gorputza ere hori delakoan nago, plazer iturri zein gudu zelai. Amildegiairen aurreko bertigoaren eta transzendentziaren pareko zerbait ez al da orgasmoaren sublimea ere?

Gorputzaren nekeak sublimetik urrun daude gehienetan, ordea. Egia esan, nire eguneroko lanak gorputzik gabea dirudi kasik. Hamar hatz teklatuan eta begi parean testuan, ez gehiago. Nekea ere adimenarena begitantzen zait egunaren

amaieran. Gorputza ahazte hori gaitz ohikoa da beharbada ikerketa-mundu hauetan.

Horiek horrela iritsi baitziren ditzosozko Joxe Azurmendi Kongresuaren egunak. Euskal pentsamenduaren muina biltzen zuela zirudien hartan teoriak, abstrakzioek edo filosofiak berak behar lukete protagonista akaso; baina jaramon gutxi egin niela aitortuko dizuet, gorputzak ikusten, entzuten eta sentitzen despistatu bainintzen. Aretoa betetzen zuten entzule (ez hain) anonimoen eta izen-abizendun hizlarien gorputzak, urduritasunak izerditutako eskuak, sabeleko tripa-zorriak, eztarri bateko korapiloa, baten haserre eutsia eta bestearen ahots hautsia... Beharbada haiek ere saiatu ziren soinetik abstraitzen, baina bazegoen testuek ez zioten zer-bait gorputz haietan.

Kasualitatez edo ez, baina azkena irakurri ditudan bi liburuek gorputza dakarte azaletara. Gorputz ukatua eta askapenaren bide den gorputza. *Idazleen gorputzak* deitzen da Eider Rodriguezen lana, eta Laura Mintegiren hitzek parafraseatzen dute aurreko ideia: «Ukatu egiten dut [gorputza]. Urteak dira ez diodala uzten ezta ortutsik ibiltzen ere. Ez dut sentitu nahi gorputzaren bidez ezer. Konturatzen naiz ez dela naturala. Badakit» (48. or.).

Gorputz honetatik dio Elena Olaverenaren azpigituluak eta, honela, *Gudu zelaia ezbaian* poemak (*Zeldak*, 54. or.):

Kaiola omen da gorputza
barroteen artetik izpiak igarotzea beharrezko duena
barnea elikatzeke, hura salbu izateko
oholtza gainean preso damu baten tankera hartzean lurtean ez
[pausatzeke
hankak dardarka dauden aldi berean arkitektura oso
baten kontzientziaz
organo guztien arteko komunikazioa bermatzeko
tente eta erne muga batzuen baitan jardun ahal izateko.
Kaiola da gorputza
baina askapena ere, bitartekaria noizbehinka

kontrolpean dugun oro alde batera uzteko
forma landuz, haragia modelatuz, rolak uztartuz
usainak burdinatik burdinara lekualdatuz
lurrundutako espazio sargori batean arnastu ahal izateko
haragizko barroteen baitan dagoen ugaztun asmatikoari
eskua luzatzeko.

‘Trans’ aurrizkiak zerbaitez haraindi eta zerbaiten barrena esan nahi du. Atlantikoa zeharkatzen du transatlantikoak; ezagutzen ditugun mugetatik haratago dagoena da transzendentzia. Transhumanismoak, gizakia teknologikoki hobetuz, gizatasuna bera gaindituko duen izaki bat bilatzen du; ‘cybernetic organism’ bat, *cyborg* bat.

Francisco Martorell filosofoaren doktorego tesian ideia nagusietako bat da ondorengoa: gure garaian makinak ez dira, modernitatean bezala, gizakiaren kanpoko zerbait. Utopiak eta distopiak postmodernitatean (70eko hamarkadaren erdi partetik gaur egun arte, dio) izan duten eraldaketa aztertu zuen 2015ean argitaratutako tesian. Utopia modernoaren heroia sistema politikoaren kontra ari den iraultzailea bada, postmodernoarena naturaren kontra dabilen cyborga da. Berdintasuna bilatzen bazuen lehenak, hilezkortasuna, bigarrenak. Gorputz soziala eraldatu nahi zen lehen; orain, biologikoa (Martorell, *Transformaciones de la utopía y la distopía en la postmodernidad*, 352. or.). Hala, gure garaian ezaugarria da modernitatean hain argi zegoen gizakiaren eta makinaren arteko bereizketa, naturaren eta artifizioaren artekoa, desegin izana; «teknologia postmodernoak eragindako metafisikaren deribaren sinbolo bihurtzen da cyborga» horrela (529. or.).

Zientzia fikzioak (eta kirurgia estetikoak) gorputzaren mugen distopia asko erakutsi dizkigu, alajaina! Baina inor ez doa ebakuntza-gelara sartu denean baino itxura okerragoarekin aterako den ustean. Izan ere, ordura arte distopikotzat jotzen zen giza gorputzaren hobekuntza teknologikoa desiragarritzat ikusiz joan zen pixkanaka. Protesiak, dena

delako errendimendua hobetzeko pilulak, sexua aldatzeko operazioak, taupada-markagailuak, inplanteak... teknologia medikuntzan sartu zenetik bizitza hobetu zaigula ere aitortu beharko dugu.

Martorellek cyborgizazio prozesuan hiru gradu bereizten ditu: (1) Ezagunena: gailu teknologikoz osatutako giza organismo bat da cyborga, bizitza nabarmen luzatua edota bere gaitasunak bereziki garatuak izanagatik giza fisionomia duena oraindik. (2) Desaragitzearen fase erradikalago honetan, garuna baino ez da libratzen. Zahartzen eta hiltzen ari den gorputza albora utzi eta burmuinak soilik bizirik irauteko moduko teknologia bilatzen da. (3) Hirugarren mailan, garuna bera ere ordezkagarria da. Buruko prozesuak «egoe-ra funtzionalak dira eta, beraz, egiten dituzten funtzioek ezaugarritzen dituzte, ez bere euskarriak» (408. or.); gure garunaren segurtasun-kopiaren moduko zerbait egiten da orduan, euskarria hiltzen denean edukiak hilezko iraun dezan. (Bai, niri ere pasa zait burutik Joxe Azurmendi cyborg baten fantasia.)

Gorputza ahaztu nahi izatea ez da, ez, akademiara mugatzen. Baina ezta literaturara ere, fikziotik gero eta gehiago duela dirudien zientzian esperimenduak egon bai baitaude. Jakin-minez bazaudete, Kevin Warwicken cyborg proiektuaz galde diezaiokezue Interneti.

Xelebrekeriak aparte, gizatasunaren muin-muineko zerbaiti heltzen dio kontu honek, zeri esaten ondo asmatzen ez badugu ere. Betierekotasun desiratuari eta heriotza izugarriari erantzuten diola esango du baten batek; zahartzen eta galtzen ikusten den gorputza duin (?) mantendu nahiari, besteren batek; edo bizi ditugun garaien isla dela uste izango da, besterik gabe? Zibernetikaren, adimen artifizialaren, ingeniariaren, genetikoaren, nanoteknologiaren... garaiotan, garapenak lilurata, gorputza bera ere muga biologikoetatik askatu eta abatar bihurtu (nahi) baitugu. Pausorik deserosoenak sare sozialaren hormaren atzetik eman ostean, ordea, goza dezala hezur-haragizko gorputzak. Eta amildegiaurrean gaude berriro.

Gaixotasunak eta heriotzak hor diraute, hala ere. Aurre hartu nahian edo onartu nahian, baina haiekin borrokan jarraitzen dugu. Heriotza utopiaren ukapena bera dela esan zuen Ernst Blochek –utopiaren filosoforik ezagunenetakoa–, baina, azkenean, halabeharrez onartu besterik ez daukagula:

Etorkizunean askoz ere errazago hilko da gizakia, bere bizitza ez da indarkeriaz laburtuko eta klase zapaltzaileak sortutako bizi-larritasuna desagertu egingo da. [...] Hala ere, atzeratuagatik ere, heriotza naturalak zutik iraungo du, ezein askapen sozialek aldatu ezin duen horren modura. Pobrezia eta bizitzarekiko kezka desagertutakoan, heriotzarekiko egonezina gogortasun berdingabeaz ageri zaigu (Martorelli jasotako Blochen aipua, 368. or.).


Jaiotzen garen bezala hiltzen gara, bakarrik. Bitartean dago utopia. Bizi garen bezala amesten dugula esan zuen beste hark ordea, bakarrik. Baina sinetsi nahi dut bakardade existentzialak ez duela indibidualtasun soziala esan nahi, eta hortxe dago utopia postmoderno transhumanista horien okerra, Martorellen ustez: apolitiko diren ustean, indibidualismoaren eta kapitalismoaren apologia egiten dutela. Alegia, punta-puntako teknologiaren bidez natura bera desagerraraztea ez da zibilizazio bidezkoago bat lortzeko egiten, hilezkortasun indibidualera iristeko baizik (527. or.). Bestela esanda, «[b]adirudi behinola saihestezin zena (heriotza) kontingentzia bihurtu dela, eta kontingentea zena (produkzio-modu kapitalista), berriz, saihestezin» (360. or.).

Gutziz bestelakoa eman lezake Manjula Padmanabhan artistari duela pare bat urte Tarragonan entzun nionak, funtsean Blochekin bat etorriko litzatekeela esango nukeen arren. Ikerketa utopikoen elkarteak antolatutako kongresuaren irekiera aprobe txatu zuen bere utopiaren bost zutabeak motz azaltzeko. Horietako batek ezinbestean eman zidan atenzioa: heriotzak. Heriotzarekin eroso egoten ikasi behar dugula esan zuen, bizitzak bukaera bat izatea pribilegio bat dela, denbora kontuz erabiltzea eskatzen diguna. «Heriotzari eskertuak egon beharko genuke». Tonu kaustikoagoan zuen aldarri heriotza duina Joan Mari Irigoienek Gabonen

bezperan: zer moduz zegoen galdetu zion kazetariak, «hiltzorian, bestela ondo», erantzun zuen (*Berria*, 2019-12-20). Ezintasun izateari uztea nahi badugu, heriotzaren ezinbestekotasuna eta haren aurreko ezinegona iruditeria utopikoan sartu beharko ditugu.

Cyborgak kontzebitu aurretik ere hiltzen zen jendea. Baziren gizatasuna gainditzearen eta hilezkortasunaren ametsak; gorputzaren nekabidearen amesgaiztoak. Galdera zaharbertua da, zerk egiten gaituen *nor*: gorputzak edo garunak, edo biek, eta teknologiak? Norberak bere zeldak ditu, bestalde; bere beldurak eta minak, gorputzarenak eta gogoarenak. Eta bere askabideak, onarpenak eta ukazioak eta plazerak... Badu amildegiaeren efektua gorputzak.

Bizilagunarenean, aldarri errepikakorra omen dute bizitza: «eskerrak jaio ginen!». Esandako guztien ondoren, eskerrak hiltzen garen ere. Zer da sublimea, bestela? 🍷



 euskadi
irratia
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzue etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



JAKINKIDE TXARTELA

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonoa

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea



Jakin • *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus



ANIMALIA TERRITORIALA

Oiz



Jakin^{eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkean
Gudaren etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

